




Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea  
Facultad de Derecho

ZUZENBIDEKO FAKULTATEA - FACULTAD DE DERECHO

## **Genero indarkeria: Komunikabideen azterketarako hurbilpen kriminologikoa**

---

Gradu Amaierako Lana

**KRIMINOLOGIA GRADUA**

2016-2017 IKASTURTEA

**EGILEA:** ASIER GUTIERREZ FERNANDEZ  
**ZUZENDARIA:** JOSEBA EZEIZA RAMOS

Donostian, 2017ko maiatzaren 18an



## **Eskertza**

Ez litzateke zilegi lehenengo lerro hauek idazten hastea berau burutzen lagundu eta suspertu nauten pertsona orori eskerrak emango ez banieke.

Lehendabizi, Joseba Ezeizari, jadanik nire graduiko ikasketetan irakasle izan zena eta oraingoan Gradu Amaierako zuzendaria denari. Oro har, lana burutzean emandako gidaritzaren, gomendio eta prestutasunagatik eman nahiko nizkioke eskerrak, izan ere, momentu oro bertan egon da aholkuak emateko prest.

Bigarrenik, eskerrak eman nahi nizkioke lan honetarako elkarrizketatzeko aukera izan dutan pertsonari: Irene Ormazabal, Raquel Raposo, Lucia Martinez, Alazne Corral eta Gorka Alvarez. Beraien laguntza eta prestasunik gabe, lanaren atal oso garrantzitsua ez zen aurrera aterako.

Azkenik, eskertze berezia egin nahi diot arlo pertsonaleneko eta profesionalen senide, lagun eta lankideei, zinez, euren partaidetza inplizitua ezinbestekoa euskarria izan delako.



## Laburpena

Lan honen helburua, hurbilpen bat egitea izango da komunikabideek emakumearen aurkako indarkerian duten eraginaren inguruan. Indarkeria mota honetan, garrantzitsuak diren bi alderdik hartzen duten parte: alde batetik, hezkuntza dago, kultura bat eraikitzen den funtsezko oinarri modura; bestetik, komunikabideak daude, hezkuntza informalerako tresna boteretsuena. Lan hau egiteko bi atal nagusitan banatu da: alde batetik, atal teorikoa, non emakumearen aurkako indarkeria eta komunikabideek gizartean duten inpaktuaren inguruan hitz egingo da. Bestetik, atal enpirikoa, non hiru helburu nagusi hartuko diren jomugan: lehenengoa, bost komunikabidek emakumearen aurkako indarkeria modu egokian tratatzeko dituzten autoerregulazioa kodeak aztertzea; bigarrena, gaian adituak diren zenbait pertsonaren ikuspegiaren berri izatea; hirugarrena, lanerako sortu dugun corpus baten bitartez, Gipuzkoan gehien saltzen diren lau egunkariak emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko albisteak nola tratatzen dituzten aztertzea. Gai hau gaurkotasun handikoa da eta ezinbestean ikertu beharrekoa, izan ere, jakina da indarkeria mota hau, gure gizartearen nahiz mundu osoko gizartearen arazoa dela, lurralde, gizarte mota eta klase sozial guztietan agerpena duena.

**Hitz-gakoak:** *indarkeria, generoa, komunikabideak, autoerregulazio-kodeak, tratamendua*

## Resumen

El objetivo del presente trabajo es realizar un acercamiento a la influencia que tienen los medios de comunicación en la violencia contra las mujeres. En este tipo de violencia intervienen dos aspectos básicos: por un lado, se encuentra la educación, fundamento esencial para la creación de la cultura; por otro lado, están los medios de comunicación, poderosa herramienta de educación informal. El trabajo está dividido en dos partes principales: por un lado, la parte teórica, en donde hablaremos sobre la violencia contra las mujeres y sobre el impacto que tienen los medios de comunicación en la sociedad. Por otro lado, la parte empírica, en donde analizaremos tres principales objetivos: el primer lugar, analizar cinco códigos de autorregulación para el tratamiento de la violencia contra las mujeres en los medios de comunicación; en segundo lugar, conocer los puntos de vista de profesionales en la materia; en tercer lugar, analizar cómo tratar los cuatro periódicos más vendidos de Guipúzcoa la violencia contra las mujeres mediante un corpus que hemos creado para el trabajo. Es muy importante realizar este tipo de examen, porque como es sabido, este tipo de violencia constituye un problema en nuestra sociedad así como en las del resto del mundo, teniendo su aparición en todos los países, en todo tipo de culturas y en diferentes clases sociales.

**Palabras clave:** *violencia, género, medios de comunicación, códigos de autorregulación, tratamiento*

## Abstract

The aim of the following work is to approach the influence of the media on violence against women. This type of violence involves two basic aspects: on the one hand, education, as essential base for the creation of culture; on the other hand, means of communication, like a powerful tool for informal education. Therefore, the work is split into two main parts: the theoretical part, where we are talking about violence against women and the impact of the media in society; the empirical study, where we are going to analyse three main targets: firstly, analyse five self-regulatory codes for the treatment of violence against women in the media; secondly, know the points of view of professionals in this topic; thirdly, through the corpus we have created for this project, analyse how deal this subject the four best-selling newspapers in Gipuzkoa. It is of fundamental concern to carry out this kind of investigation because, as far as we know, this kind of violence is a social problem for our society as well as for the rest of the world, which is present throughout all over the countries, cultures and social classes.

**Keywords:** *violence, gender, media, self-regulation codes, treatment*



## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	9
1.1. Lanaren nondik norakoak.....	9
1.2. Gaiak kriminologiarekin duen zerikusia.....	10
1.3. Gradu Amaierako lanaren aukeraketaren zergatia.....	11
1.4. Lana eta Kriminologiako graduako irakasgaien arteko erlazioa.....	11

### ATAL TEORIKOA

#### **I. KAPITULUA – GENERO INDARKERIA.....** 13

1. Sarrera.....	13
2. Genero indarkeriaren kontzeptua.....	13
2.1. Generoaren kontzeptua.....	13
2.2. Genero indarkeriaren definizioa.....	17
2.3. Genero berdintasunari buruzko legeak.....	19
2.3.1. Nazioarte mailako legedia.....	20
2.3.2. Estatu mailako legedia.....	21
2.3.3. Euskal autonomia-erkidego mailako legedia.....	26
2.4. Genero indarkeriaren arrazoiak.....	27
2.5. Genero indarkeriaren ondorioak.....	30
2.6. Genero indarkeriari buruzko datuak.....	31
3. Indarkeria aipatzeko bestelako kontzeptuak.....	35
3.1. Indarkeria sexista.....	36
3.2. Indarkeria matxista.....	37
3.3. Emakumearen aurkako indarkeria.....	38
3.4. Etxeko indarkeria.....	39

#### **II. KAPITULUA – KOMUNIKABIDEEN INPAKTUA GIZARTEAN.....** 42

1. Sarrera.....	42
2. Komunikabideen eragina gizartean.....	42
2.1. Genero indarkeria komunikabideetan.....	44
2.2. Komunikabideen kontsumoaren inguruko datuak.....	48
2.3. Komunikabideen araudia genero indarkeriaren trataeran.....	51

### ATAL ENPIRIKOA

#### **III. KAPITULUA – HELBURUAK, METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK.....** 55

1. Helburuak.....	55
2. Metodologia eta baliabideak.....	55
2.1. Lehenengo helburua.....	55
2.2. Bigarren helburua.....	57

2.3. Hirugarren helburua.....	59
<b>IV. KAPITULUA – EMAITZAK.....</b>	<b>65</b>
1. Komunikabideetako kodeen azterketa.....	65
1.1. Sarrera.....	65
1.2. Komunikabideen autoerregulazio-kodeak.....	66
1.2.1. RTVE eta Emakumearen Institutuaren kodea.....	66
1.2.2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen kodea.....	67
1.2.3. <i>Público</i> egunkariaren kodea.....	69
1.2.4. Bartzelonako Udaletxeko Emakumeen Sailak eta Kataluniako El- karteko kodea.....	69
1.2.5. Arrasateko Berdintasun Sailak eta Goiena Komunikazio Taldearen kodea.....	71
1.3. Autoerregulazio-kodeen arteko konparaketa eta ondorioak.....	72
2. Aditu, profesional eta aktibisten pertzepzioa.....	76
2.1. Lehenengo elkarrizketa.....	77
2.2. Bigarren elkarrizketa.....	77
2.3. Hirugarren elkarrizketa.....	78
2.4. Laugarren elkarrizketa.....	79
2.5. Ondorioak.....	79
3. Komunikabideetako testuen analisi konparatiboa eta ondorioak.....	80
3.1. Prentsako testuen corpus txiki baten analisi konparatiboa.....	80
3.2. Hitzen agerpenen esangarritasunaren analisi estatistikoa.....	86
3.3. Ondorioak.....	93
<b>V. KAPITULUA – KONKLUSIOAK.....</b>	<b>96</b>
<b><u>BIBLIOGRAFIA</u>.....</b>	<b>99</b>
<b><u>ERANSKINAK</u>.....</b>	<b>105</b>
1. ERANSKINA. Genero indarkeriaren tratamendurako komunikabideen autoe- rregulazio kodeak.....	105
2. ERANSKINA. Elkarrizketak.....	118
3. ERANSKINA. Corpusaren osaera eta xehetasunak .....	140
4. ERANSKINA. Txosten exekutiboa .....	147



## 1. Sarrera

Komunikabideek eragin handia dute iritziak sortzeko, iritziak bideratzeko, gizartea eraldatzeko edota gizartea sentsibilizatzeko orduan. Komunikabideek, informazioa helarazteaz gain, gizartearen parte dira edozein giza talde bezala, eta haiek ere aurriritziak eta ideologia propioa ere badute. Historikoki komunikabideak gizartearen isla bezala irudikatu dira eta zentzu horretan ulertuak izan dira mundu sexistaren irudikapena indartzen duen gizarte patriarkal baten ispilu gisa. Denborarekin, komunikabideak gizarteratze erakunde garrantzitsu bihurtu dira.

Historikoki komunikabideak gizartearen isla bezala irudikatu dira eta zentzu horretan ulertuak izan dira mundu sexistaren irudikapena indartzen duen gizarte patriarkal baten ispilua bat bezala. Denborarekin, komunikabideak gizarteratze erakunde garrantzitsu batean bilakatu dira, gu eta ni nor garen definitzeko baliozkoa den prozesu bat bezala eta baita ere, besteak zein diren zehazteko balio diguna (Varela Menéndez, 2006: 3 or.).

Genero indarkeria, gaur egungo komunikabideen agendan presente dago, baina 90. hamarkada arte, Espainian genero indarkeriak ez zuen albisteetan inongo balorerik jaso Ana Orantesen<sup>1</sup> kasua gertatu zen arte, non honen eraginez, emakumearen aurkako indarkeria agenda mediatikoetan sartu zen lehen aldiz eta horrela, arazoa eztabaida publikora nahiz politikarien agendetara salto egin zuen (Ménendez Ménendez, 2014: 53 or.). Orain dela hamabost urte, Espainiako komunikabideek aurre-rapauso bat eman zuten tratatu txarren tratamenduaren inguruan (nahiz eta, gaur egun, genero indarkeria erabili) eta munduko erreferente bezala bilakatu ziren arazo larri hau ikusgarri egiten, emakumearen aurkako estereotipoak eta erruduntasuna alde batera utzi (López Díez, 2009: 1 or.).

### 1.1. Lanaren nondik norakoak

Lana bi atal nagusitan banatua dago: atal teorikoa eta atal enpirikoa.

Atal teorikoan, ikuspegi juridikoa baliatuko da eta gehienbat legeak aztertuko dira, genero indarkeriaren azalpena aztertzeko eta zer trataera ematen dioten ikusteko. Bestetik, ikuspegi soziologikotik komunikabideek gizartean duten inpaktuaz mintzatuko

---

<sup>1</sup>1997. urteko abenduaren 4an, Ana Orantes Ruizek arratsaldetan ematen zen "Canal Sur"-eko telebista saio batetara joan eta bertan, orain dela 40 urte hasitako bere infernu pertsonala telebistan kontatu zuen, hau da, garai horretan bere senarra zen Jose Parejo Avivar-en eskutik tratatu txarrak jasaten zituela. Handik egun batzuetara, bere senar ohiak Ana Orantes hartu eta Cullar Vega (Granada) herrian zuten etxebizitzako patioan aulki batean lotu eta su eman zion konorterik gabe zegoela. Ana Orantes Ruiz, 60 urteko emakumea erreta hil zen.

gara, baina baita ere, genero indarkeriak komunikabideetan izan duen garrantziaz. Honekin batera, komunikabideen kontsumoaren inguruko datuak azalduko dira. Atal enpirikoan, helburu eta gaitasunei dagokienez, ondorengo hiru helburuak aztertuko dira:

1. Komunikabideetako kode deontologikoez eta autoerregulazio-kodeez diotena aztertzea.
2. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan lanean jarduten duten aditu, profesional eta aktibistek duten pertzepzioa jasotzea.
3. Albisteen corpus txiki bat oinarri hartuta, Gipuzkoan gehien saltzen diren egunkariak epe jakin batean gaiari ematen dioten trataeraren analisi konparatiboa egitea.

Metodologiari dagokionez, atal teorikoaren hasiera azaroan egin zen. Behin lana ondo egituratua zegoela, atal enpiriko lantzen hasi ginen otsaila inguruan. Albisteen corpora egiteko, genero indarkeriaren gaiari *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Berria* eta *Gara* egunkariak ematen dioten trataeraren analisi konparatiboa egiteko epealdia, otsailaren 14tik apirilak 13ra bitarteko izan da.

## **1.2. Gaiak kriminologiarekin duen zerikusia**

Kriminologia, delitua, delitugilea, biktima eta kontrol soziala aztertzen duen diziplina anitzeko zientzia da (García-Pablos de Molina, 1989; 80 or.), hau da, krimena, gizartea nahiz banakoaren fenomeno gisa aztertzen duen gizarte zientzia. Delituaren jatorria, dinamika, delitua ekiditeko aurrezaintza programak eta delitugilearen pertsonan interbenitzeko teknikaz arduratzen da.

Kriminalitatea ulertzea zerbait konplexua da, izan ere, alde batetik, historian zehar aldatzen joan den terminoa delako eta bestetik, diziplina desberdinetatik (soziologia, kriminologia, zientzia normatiboak, psikologia, etab.) mota guztietako ekarpenak egin dituztelako. Baina modu orokor batean hitz eginez, kriminalitatea legeek ezartzen dituzten arauen kontra jardutea izango litzateke, gizabanako edota talde batek burutu-tako portaera momentu eta leku zehatzetara. Beraz, kriminalitatearen barnean, genero indarkeria edo emakumearen aurkako indarkeria dago, emakumeari emakume izateagatik egindako indarkeria alegia.

Kriminologoek lan eremuen artean, delituaren zergatia azaltzea eta honen aldagaien inguruko informazioa eskaintzea dago (García-Pablos de Molina, 1989; 84 or.). Hori horrela, kriminologiari delituaren jatorria eta honen dinamika interesatzen

zaion heinean, genero indarkeriaren jatorria eta bere dinamika interesatzen zaio. Hori horrela, fenomeno honetaz zabaltzeaz arduratzen den tresna oso garrantzitsua komunikabideak direnez, kriminologiari erabat interesatzen zaio emakumearen aurkako indarkeria komunikabideetan egiten duten tratamendua aztertzea, izan ere, kriminologiak dituen helburuen artean, errealitatean ematen diren ezagutza desberdin guztiak azaltzen saiatzea da.

Beraz, lan honetan ikusten dugu kriminologiaren ezaugarrietako bat, hau da, ikuspegi aniztasuna, izan ere, hiru ikuspegi aztertzen dira: alde batetik, komunikazio zientziak; bestetik, zientzia juridikoak; azkenik, auzitegiko hizkuntzalaritza. Ildo horretatik, ikuspegi juridikoa eta horren oinarrian egin diren gomendio giden analisia, adituei eginiko elkarrizketak eta corpus baten analisia egin da. Beraz, lan honetan, emakumearen aurkako indarkeria autoerregulazio-kodeen ikuspegitik, indarkeriaren aurkako lanean inplikaturik dauden adituen ikuspegitik eta prentsako testuen ikuspegitik corpusaren ikuspegitik aztertzen da.

Ondorioz, kriminologiaren ikuspegitik, lan honetan ikuspegi zabal batetik heldu nahi izan zaio gaiari, izan ere, kriminologo batek bere ibilbide akademiko eta profesionalean zehar diziplina anitzeko ezagutzak bereganatzen eta lantzen dituzenez, bere lan eremua ez da esparru batetara mugatzen.

### **1.3. Gradu Amaierako lanaren aukeraketaren zergatia**

Gradu Amaierako lanaren aukeraketaren arrazoi nagusia, gai honen inguruan nuen ezjakintasuna izan zen. Hau da, Kriminologia Graduan daramatzen lau urteetan, ikasgai desberdinetan emakumearen aurkako indarkeria lantzeko aukera izan dugu, baina oso gutxitan erreparatu zaio komunikabideek gizartean burutzen duten funtsezko jarduerari. Horrek eraman ninduen gaia honetan gehiago ikertzeko nahia izatea. Zin helburu jomugan? Komunikabideek emakumearen aurkako indarkeria nola tratatzen zuten aztertzea ea, beraien kezken artean emakumearen aurkako indarkeria ote zegoen.

### **1.4. Lana eta Kriminologiako graduako irakasgaien arteko erlazio**

Kriminologiako graduakoari dagokionez, lan honek zerikusia dauka ondorengo irakasgaiekin:

- Soziologiarekin, izan ere, soziologia gizartearen azterketa sistematikoa, zehatza eta zientifikoa burutzen duen gizarte zientzia denez, errealitate

soziala deskribatu, azaldu, ulertu eta aurreikusi egiten du. Beraz, lan honetan, komunikabideek gizartean duten eraginaz aztertzen da.

- Zuzenbidearekin, izan ere, lan honetan zehar genero indarkeriarekin zerkusua duen araudia aztertzen delako bai nazioarte mailakoa estatu mailakoa eta autonomia-erkidego mailakoa adibidez, genero indarkeria lege desberdinetan nola aurreikusten den aztertzen delako edota adibidez, Zigor Kodean delitua burutzeak daukan zigorra aipatzen delako, etab. Baina baita ere, komunikabideek genero indarkeriaren arloan bete behar dituzten legeen inguruko aipamena egiten da.
- Psikologiarekin, izan ere, genero indarkeriak sortzen dituen lesioen artean, lesio psikologikoak aurkitzen direlako eta lan honetan, horien inguruko aipamena egiten da. Baita ere, “dependentzia emozionala” izeneko trastornoaren inguruan hitz egiten da.
- Komunikazioarekin, izan ere, kriminologiaren bitartez, komunikabideek delituari egiten dio tratamendua aztertzeko aukera ematen duelako. Delituaren errepresentazioa komunikabideetan etorkizunean neurri politiko-kriminalak hartzeko aukerak ekar ditzakeela.
- Hizkuntzalaritzarekin, izan ere, lan honetan, gure corpusean agertzen diren hitzen agerpenen esangarritasunaren analisi estatistiko bat egin da hizkuntzalaritza konputazionalaren, auzitegiko hizkuntzalaritzaren eta diskurtsoaren analisiaren bitartez.

## **ATAL TEORIKOA**

### **I. KAPITULUA – GENERO INDARKERIA**

#### **1. Sarrera**

Lan honetan zehar, “genero indarkeria”, “emakumearen aurkako indarkeria” eta “indarkeria matxista” terminologiak erabiliko dira, izan ere, gaur egun, autoerregulazio kodeetan nahiz legeetan hiru terminologia hauek hobesten dituzte. Hiru kontzeptu horiek, bata nahiz bestea berdin, emakumeen aurka emakume izate hutsagatik eragindako indarkeria-mota guztiei egin nahi die erreferentzia.

Xehetasun hau argitu eta gero, genero indarkeria, emakumearen aurkako indarkeria eta indarkeria matxista edo zer den eta legeetan nola aurreikusten den aztertuko dugu atal honetan zehar.

Dakigun moduan, emakumeen aurkako indarkeriak modurik larrienean urratzen ditu giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak eta modu desberdinetan agertzen da testuinguru ekonomikoaren, sozialaren edota kulturalaren arabera (Ménendez Ménendez, 2014: 55 or.). Honekin batera, indarkeria hau gure gizartean nahiz munduan zehar egunero ematen den errealitatearen isla da, gizartean dugun arazo nagusietako batean bilakatuz.

#### **2. Genero indarkeriaren kontzeptua**

##### **2.1. Generoaren kontzeptua**

Genero hitza “*genus*” edo “*generis*” latindar hitzetik dator eta ezaugarri komun bat edo batzuk dituzten izakien multzoa bezala definitzen da (Aranguren, y otros, 1998: 671 or.). Hau da, gizakiei esleitutako ezaugarri psikologiko, sozial eta kulturalen multzoa dela adierazi nahi da. Ezaugarri horiek, sexuaren arabera esleitu dira, “gizonezko” eta “emakumezko” erduetan alegia. Antzeko hitzetan aipatzen du “*Real Academia Española*” hiztegiak genero hitza:

*“1. m. Conjunto de seres que tienen uno o varios caracteres comunes.*

*2. m. Clase o tipo a que pertenecen personas o cosas.*

*3. m. Grupo al que pertenecen los seres humanos de cada sexo, entendido este desde un punto de vista sociocultural en lugar de exclusivamente biológico”.*

Historikoki, sistema patriarkalak<sup>2</sup>, gizartea antolatzerako orduan, balio handiagoa eman die "gizonenak" ziren jarraibideei "emakumeenak" zirenei baino, eta horrek emakumea gizonaren menpe egotea ekarri du. Sistema honen bitartez, emakumeek eta gizonek sozietatearekin erlazionatzeko duten modua azaltzen eta justifikatzen saiatu da, horretarako bi sexuen artean dauden "berezko desberdintasunak edota desberdintasun fisikoak" erabiliz.

1955. urtean, Jhon Money psikologoak (sexologian espezializatua) genero kontzeptua erabili zuen lehen aldiz ingelesez (*gender*) analisi zientifikorako. Genero kontzeptua ezaugarri kultural bat zuela adierazi zuen, pertsona transexualekin egindako ikerketa bat ostean. Psikologo honek ondorioztatu zuen, pertsonen hezkuntzan, bere sexu biologikoarekin zerikusia ez zuten papera txertatzeko aukera eman zitekeela. Horrela, sexua eta generoa gauza berdinak ez zirela adierazi zuen, izan ere, generoa eraikuntza sozialari erabat baldintzatuta zegoelako. Ondorioz, 1951. urteaz geroztik, genero kontzeptua analisi-kategoria gisa erabili izan da gizarte zientzietan.

Beranduago, 1963. urtean, Robert Stoller psikiatrak, sexu-identitatearen nahastei buruz egindako ikerketetan, genero-identitatea ondorengo hitzetan definitu zuen: "*grandes áreas de la conducta humana, sentimientos, pensamientos y fantasías que se relacionan con los sexos pero que no tiene una base biológica*" (Stoller, 1968: 8 or.). Stollerek ondorioztatu zuen identitatea ez zegoela sexu biologikoaren menpe, jaiotzatik bi generoei esleituta dauden esperientziei, errituei eta ohiturei baizik. Beraz, Moneyk eta Stollerek, "sexuaren" eta "generoaren" arteko desberdinketa kontzeptuala proposatu zuten (Hernández García, 2006: 1 or.).

Beraz, sexua eta generoaren arteko desberdinketa egitea beharrezko da, Linda Nicholsonek adierazten duen moduan: "(...) *lo cierto es que se emplea (género y sexo) por los menos en dos sentido distintos y, en algunos aspectos, incluso contradictorios*". Izan ere, bere ustetan genero hitzak bat egiten du aurretik aipaturiko autoreekin: "*ha venido empleándose cada vez más para hacer referencia a toda construcción social relacionada con la distinción masculino/femenino, entre ellas las que separan el cuerpo «masculino» del cuerpo «femenino»*". Eta sexua, berriz: "*el término sexo (...) se emplea frecuentemente, con la intención de separar lo que es construcción social de lo que es un hecho biológico*". Beraz, amaitzen du adierazten generoa eta sexua kontzeptu desberdinak direla: "*género y sexo serían, pues, dos cosas distintas*" (Nicholson, 2003: 47-48 orr.).

---

<sup>2</sup> Autore desberdinek, patriarkatua ulertzen dute sistemaren antolamendua edo izaera unibertsal bat bezala, zeinetan gizonek emakumeak menperatzen duten edota gizonezkoek emakumearekiko gailentasuna duten.

Rubin autoreak ere, 1984. urtean, generoa kategoria soziala bezala sailkatu zuen:

*“El género es una división de los sexos socialmente impuesta. Es un producto de las relaciones sociales de sexualidad. Los sistemas de parentesco se basan en el matrimonio; por lo tanto, transforman a machos y hembras en hombres y mujeres, cada uno una mitad incompleta que sólo puede sentirse entera cuando se une con la otra”* (Rubin, 1986: 114 or.).

Autore honen aburuz, generoa erabat soziala izango litzateke, izan ere, gizarteak berak pertsona bat jaiotzetik bere sexua zein den ikusia, idefentifikazio-eredu bata zein bestea emango zaiolako.

Gaur egun, *“Real Academia Española”* hiztegiak horrela definitzen du *“sexu”* hitza:

1. *m. Condición orgánica, masculina o femenina, de los animales y las plantas.*
2. *m. Conjunto de seres pertenecientes a un mismo sexo. Sexo masculino, femenino.*
3. *m. Órganos sexuales.*
4. *m. Actividad sexual. Está obsesionado con el sexo”.*

Ondorioz, *“sexu”* hitzak, emakumeak eta gizonak desberdintzen dituzten ezaugarri biologikoari egiten dio erreferentzia eta *“genero”* hitzak, aldiz, gizarte bakoitzean emakume eta gizonezko bakoitzari esleitzen dizkion gaitasunak, portaerak, jarrerak, balioak eta rolak. Sexuaren araberako banaketa honetan gizonezkoei nahiz emakumezkoei esleitzen dizkiguten ezaugarri horiek genero izendapenaren barruan sartzen dira eta ez dira berdinak kultura guztietan.

Ikuspegi feministatik, generoaren kontzeptualizazioa oinarrizko puntu bat bezala kontsideratua izan da 70. hamarkadatik (Osborne, 2008: 147 or.), Silvia Tubertek adierazten duen moduan:

*“El concepto de género, introducido en la teorización feminista en los años setenta, ha tenido una especial relevancia en los países anglosajones, en la medida en que permitió subrayar, por un lado, la ocultación de la diferencia entre los sexos bajo la neutralidad de la lengua, y por otro, poner de manifiesto en carácter de construcción socio-cultural de esa diferencia”* (Tubert, 2003: 7 or.).

Dakigun moduan, feminismoa, gizonen eta emakumeen arteko eskubide berdintasunaren aldeko doktrina eta mugimendu soziala da. Baina baita ere, mugimendua sozial eta politikoa, ideologikoa eta teorikoa da (Facio & Fries, 2005: 263 or.). Beraz, feminisмотzat hartzen dugu emakumearen mendekotasunaren, desberdintasunaren eta zapalkuntzaren inguruko pentsaera eta jokaerak, emakumearen emantzipazioaren eta gizarte baten eraikuntzaren alde, sexu eta genero arrazoiengatik diskriminazioa ematen ez den (Castells, 1996: 10 or.).

Feminismoa prozesu historikotzat jo daiteke, hainbat etapa desberdinetan banatuz: feminismoa eta ilustrazioa (XVIII. mendearen bukaeran sortu zen, Ilustrazio garaian hain zuzen ere); feminismoaren lehen olatua (XIX. mendean Ingalaterran eta Estatu Batuetan sortzen da); feminismoaren bigarren olatua (1960-1990 urte bitartean ematen da); eta feminismoaren hirugarren olatua (1990. urtean hasi eta gaur egun arte). Prozesu guztietan, emakumeak dira protagonistak, eta bertan hiru elementu desberdinu daitezke: kontzientzia hartzea, diskurtso teorikoa eta mugimendua eta presio taldea (Gamba, 2008: 4-6 orr.).

Mugimendu feministek funtsezko aldaketak eragin dituzte gizateriaren historian, adibidez, emakumearen bozkatzeko eskubidean, hezkuntzarako eskubidean, lan egiteko eskubidea, antisorgailuak erabiltzeko eta abortatzeko eskubidean, sexu-askatasunean besteak beste.

Kontuan izan behar dugu feminismoa ez dela matxismoa. Izan ere, gure gizartean oso zabaldurik dagoen ideia da feminismoa matxismoarekin elkartzea. Matxismoa<sup>3</sup>, gizonek emakumeekin erabiltzen duten nagusitasun eta desbalarizazio jarrera da, bi sexuen arteko boterea eta asimetria modu desorekatuan banatzea ekartzen du. Beraz, feminismoaren aurkako kontzeptua ez da matxismoa, hembrismoa edo misandria baizik. Hau da, hembrismoa edo misandria, gizonaren duintasuna indargabetzen dituzten jarrera eta jokabideak dira, sexismo mota bat alegia, sexu maskulinoa erabat gorrotatuz, baztertuz edota gutxietsiz emakumearen aurrean, gizonak izate hutsagatik.

Gaur egun, *“Real Academia Española”* hiztegiak honela definitzen du feminismoa:

*“1. m. Ideología que defiende que las mujeres deben tener los mismos derechos que los hombres.*

*2. m. Movimiento que se apoya en el feminismo”.*

---

<sup>3</sup> *“Real Academia Española”* hiztegiak horrela azaltzen du matxismoaren definizioa: *“Actitud de prepotencia de los varones respecto de las mujeres”*



Hau da, gizon eta emakumeen artean dauden desberdintasunek gizarte antolaketa-ekin lotura dutela dioen ideia oso erroturik dago mendebaldeko pentsamoldean. Horregatik, teoria feministak sexua eta generoa bereizten dituzte.

1972. urtean, Ann Oakley-k idatzitako *“Sexo, género y sociedad”* liburuan, genero terminoa sartu zuen gizarte zientzien diskurtsoan. Ordutik aurrera, sexua eta generoa arteko banaketa ehunka feministen eskutik erabilia izan zen, emakumeen zapalkuntza gizonezkoen eskutik sozialki eraikia den zerbait bezala adierazteko eta ez biologian oinarritutako zerbait bezala (Facio Montejo, 2011: 269 or.). Beraz, 80ko hamarkadan, generoa hiztegi zientifikora moldatzen da.

Ondorioz, ikuspegi feministatik, sexua gorputzaren ezaugarri morfologikoei egiten die erreferentzia, hau da, genitalei, ugaltze aparatuen ezaugarri morfologikoak eta desberdintasun hormonal eta kromosomikoak. Generoa, berriz, femeninoaren eta maskulinoaren egite kulturala, atzemandako ezaugarri biofisiologikoen eraikuntza kulturala (Emakunde, Drogak eta generoa, 2009: 48 or).

## **2.2. Genero indarkeriaren definizioa**

1993ko ekainaren 25ean, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak, Vienan antolatutako Giza Eskubideen Munduko Konferentzian, Vienako Adierazpena onartu zuen, bertan, emakumeen eskubideak giza eskubideak zirela aitortuz. Honen ondorioz, emakumeen kontrako indarkeria, giza eskubideen urraketa bat zela aitortu zen 18. artikuluan:

*“Emakumearen eta neskaren giza eskubideak dira giza eskubide unibertsalen zati besterenduezina, osatzailea eta zatiezina. Emakumearen parte-hartze osoa, berdintasun baldintzetan, bizitza politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturean, nazio-, erregio- nahiz nazioarte-mailan, eta sexuan oinarritutako bereizkeria forma guztiak ezabatzea nazioarteko erkidegoaren helburuak dira”.*

Hori horrela, emakumearen kontrako indarkeriaren ezabapenak, bai bizitza publikoan edota pribatuan, demokraziarako eta giza bakerako ezinbesteko garrantzia zuela aitortzea lortu zen.

1993ko abenduaren 20an, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak *“Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena”*<sup>4</sup> aitortu zuen, nazioar-

---

<sup>4</sup> *“Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena”*, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiaren bidez onetsia izan zen 1993ko abenduaren 20ko 48/104 ebazpenaren bitartez.

teko giza eskubideen lehenengo baliabidea bilakatuz, emakumearen aurkako indarkeria modu eksklusiboan landu zuelako: “*Emakumeengan oinarritutako edozein indarkeria egintza, emaitza moduan, emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa duena edo izan dezakeena, eta baita, egintza horien mehatxuak, derrigor-tzea edo nahierara askatasunaz gabetzea, hori bizitza publikoan zein pribatuan gertatu*”.

Bi urte beranduago, 1995. urtean, Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzia ospatu zen Beijinen (Txinan)<sup>5</sup>. Konferentzia honen bitartez, giza eskubideen inguruan, eta batez ere, emakumeen eskubideen inguruan, defendatzeko eta zabalteko ikuspegi berriak irekitzeko sendotzeko aukera ekarri zuen (Facio Montejo, 2011: 10 or.). Izan ere, hitzaldi hartan, Beijingo Plataforma sortzeaz gain, genero-indarkeria adierazpena sustatu zen, genero indarkeriaren esamoldearen erabilera mundu osoaz zehar hedatuz (Barrenetxea Beaskoetxea, 2010: 11 or.).

Entziklopedia askok jasotzen duten moduan, indarkeria hitzak menderatzea, indarra edota beldurraraztea bezalako hizkeren inguruan mugitzen da, eta horiek dira azken batean indarkeriaren esanahia: “*zerbait indarrez lortu nahi duenaren gehiegikeria*” (Aranguren, y otros, 1998: 837 or.).

Beraz, genero indarkeria emakumeen aurkako indarkeria da, emakumeari emakume izateagatik egindako indarkeria alegia. Egun emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik, modu batera eta bestera erabiltzen den indarkeria mota hau izendatzeko kontzeptu asko erabiltzen dira: “indarkeria sexista”, “gizonezkoen indarkeria”, “genero indarkeria”, etab. (Emakunde, Emakumeen aurkako indarkeria, 2009: 2 or.).

Indarkeria mota honen ondorioz, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten die. Kasu okerrenetan, giza hilketara edo erailketara<sup>6</sup> iritsiz.

Honekin batera, Ortubayek adierazten duen moduan: “*la violencia es un abuso de la posición preponderante de los varones y, en esa medida, constituye al mismo tiempo una manifestación y un instrumento para mantener la discriminación de las mujeres*” (Fuentes, 2003: 259 or.). Hau da, genero indarkeria gizonezkoen nagusitasun

---

<sup>5</sup> 1975. urtetik emakumeari buruz deitutako mundu-mailako lau biltzarrek, emakumeen eta gizonen arteko aukeraberdintasunaren auzia nazioarteko agenda politikoaren erdian jartzen lagundu zuten. Hauek dira egin ziren goi bilera guztiak: Mexiko (1975), Kopenhage (1980), Nairobi (1985), Beijing (1995).

<sup>6</sup> Toledo Vázquezek, “*feminicidio*” kontzeptua proposatzen du genero arrazoiengatik emakume baten erailketa ematen denean (Toledo Velazquez, 2009; 2). Diana Russelek ere hobesten du “*feminicidio*” hitza eta berak horrela definitzen du bere liburua: “*The killing of females by males because they are females*”. Hau da, euskarara itzulia, emakumeen erailketak gizonezkoen eskutik emakumezkoak direlako (Russell & Harmes, 2001: 13 or.).

egoeraren ondorioz ematen den abusua da eta gainera, emakumearen kontrako diskriminazioaren adierazpena eta hori mantentzeko tresna da.

Genero-indarkeria betidanik eman den indarkeria mota bat izan da. Denbora luzean zehar ez zen arazo honi konponbiderik bilatu, izan ere, indarkeria honen inguruan pentsatzen zelako etxearen barruan gertatzen zen guztia pribatua zela, eta beraz estatuak ez zuen ezer egin behar arazo pribatua zelako. Hori dela eta, arazoa denboran zehar luzatu da eta emaitza latzak sorrarazi ditu. Gatazka honen oinarriak gizarte patriarkalean daude, non emakumea ez zuen inolako eskubiderik eta babesteko objektua baino ez zen eta gizonak botere osoa zuen (Vázquez Mezquita, 2006: 96 or.).

### **2.3. Genero berdintasunari buruzko legeak<sup>7</sup>**

Emakumeen mugimenduek bultzatutako dinamikak sustatu zuten emakumearen aurkako indarkeria nazioartean aurrea egitea. Izan ere, 1970. urtean, mugimendu feministei esker, emakumearen aurkako indarkeriaren arazoa agerian geratu zen. Hori horrela, 1979. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsi zuen emakumeen diskriminazio guztiak deuseztatzeari buruzko Konbentzioa sortuz, nahiz eta, 1980. urte arte ez sortu emakumearen aurkako indarkeriaren auzia Kopenhagen ospatu zen Emakumeari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (Jaurlaritza, Jaurlaritzaren jarduteko I. Plana, genero-indarkeriaren kontra, 2011: 3 or.).

Emakumearen aurkako indarkeriak denboran zehar gertatu izan den indarkeria mota bat izan da, baina orain dela gutxi arte ezkutatuta zegoen eta beraz ez zen gaur bezain alarma soziala piztu. Kode Zibilean nahiz Zigor Kodean, indarkeria mota hau beste motatakoetatik desberdintzen zuten eta agerian uzten zuten arlo pribatuan gertatzen zen indarkeria zenez, estatuak ezin zuela ezer egin, arazo pribatua zelako. Gainera, gizonak, familiaren patriarka izateagatik emakumearen gaineko eskubideak zituen (Márquez, 2008) beraz denbora luzean zehar ekintza hau ez zen zigortua izan, sozialki onartutako zerbait baitzen.

Egoera soziologiko horretan gauzak aldatzen hasi ziren, izan ere, XIX. mendeko bigarren erditik aurrera emakumeek izango dira diskriminazioari aurre egiten hasiko zirenak. Emakumeen eskubideak indarra jaso hasi ziren eta Europar inguruaba-

---

<sup>7</sup> Genero berdintasunari buruzko lege gehienak, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak 2006. urtean argitaratutako *“Emakumeen Kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida”*-tik atera dira. Gehiago ikusi nahi bada, joan web-orrialde honetara: <http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/informazioa/koordinazioa-lankidetz/>

rrean honen froga daukagu “*Olimpe de Gouges*” 1791. urtean idatzitako “*Emakumearen eta Hiritarraren Eskubideen Aldarrikapena*”<sup>8</sup>.

1848. urtean, New Yorken emakumearen eskubideei buruzko lehen biltzarra ospatu zen eta bertan “*Seneca Fallseko deklarazioa*”<sup>9</sup> idatzi zen. Hiru urte geroago, 1851. urtean, Ingalaterran Sheffielden Batzarra ospatu zen emakumeen eskubideen alde egiteko (Cuéllar, Breve Historia de la Violencia de Genero, 2017).

### 2.3.1. Nazioarte mailako legedia

Hauek dira urtez urtez nazioarte mailan aurreikusten diren lege nabarmenenak:

- Nazio Batuen Gutuna (1945).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948).
- Emakumearen aurkako bereizkeriari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1979).
- Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudelen aurkako Konbentzioa (1984).
- Emakumearen aurkako Bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (1989).
- Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak (1993).
- Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentziako Beijingo Adierazpen eta Ekintza Plataforma (1995).
- Europa Kontseiluko Hitzarmena emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta aurka egiteari buruzkoa (2011).
- etab.

Aipaturiko Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak, 1993ko abenduaren 20an emandako Ebazpenean, genero indarkeria ondorengo hitzetan zehaztu zuen:

*emakumezko genero-kidetzan oinarritutako indarkeria-egintza oro, horren ondorioz emakumeen osasun fisiko, sexual edo psikologikoari kalterik eta/edo sufrimendurik eragiten bazaio edo eragin ahal bazaio, baita egintza horien mehatxuak, gogorkeria edo askatasuna arbitrariotasunez*

---

<sup>8</sup> “*Declaración de los Derechos de la Mujer y de la Ciudadana*”.

<sup>9</sup> 1848. urtean, “*Seneca Falls*”-eko konbentzioa ospatu zen New Yorken, non “*Seneca Fallseko deklarazioa*” onartu zen, Estatu Batuetan emakumearen eskubideak aldarrikatu zuen lehenengo adierazpena, Estatu Batuetako independentzia aldarrikapenean oinarritu zen (Wikipedia, Convención de Seneca Falls, 2017).

*gabetzeko prozesua ere, bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen den kontuan hartu gabe".*

Definizio honetan, indarkeria mota bati buruz hitz egiten digu emakumearen aurka egiten dena, emakumea izateagatik.

### **2.3.2. Estatu mailako legedia**

Emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten legeak aurreikusten dira Estatu mailan:

- 1978. urteko Espainiako Konstituzioa<sup>10</sup>.
- 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen dena<sup>11</sup>.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko benetako berdintasunei eragingarrirakoa.
- 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, atzerritarren segurtasuna, etxeko indarkeria eta haien gizarteratzeari buruzko neurri zehatzak aipatzen dituena.
- 1917/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21eko, Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laneratze programa onartzen duena.
- etab.

70. hamarkadan, trantsizio politikotik demokraziarako bidean, Espainiako emakume taldeek dibortzioaren, abortuaren eta antisorgailuen legalizazioaren alde aldarrikatzen hasi ziren. 1978ko abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioa indarrean sartzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta arraza, sexu edo erlijio arrazoiengatik ez baztertzea legez aurreikusi zuten. 1983. urtean, demokraziako lehen gobernu sozialistak<sup>12</sup>, "Emakumearen Institutua"<sup>13</sup> sortu zuen, mugimendu feministarekin batera. Es-

---

<sup>10</sup> 1978. urteko Espainiako Konstituzioa 9.2. eta 14. artikuluetan aurreikusita etortzen da sexuen gizarte-berdintasuna bideratzeko aukera ematen duten baldintzak eta emakumeek bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea: 9.2. artikuluan: "2. Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko". Eta, 14. Artikuluan: "Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta".

<sup>11</sup> Gaur egun Espainian indarrean dagoen Zigor Kodean, ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoa hain zuzen, Zigor Kodeko azaroaren 23ko 10/1995eko Lege Organikoa aldatzen duena, bikotekideak edota bikotekide ohiak eragindako indarkeria arautua agertzen da berezko delitu bezala sailkatua, 153. artikuluan eta 173.2. artikuluan. Artikulu hauen arabera, emakumearen indarkeria eragiten duten jokabide guztiak zigortzeko helburuarekin aurreikusita daude. Aurre-rago, Zigor Kodeko 153. eta 173.2 artikulua aipatuko dira.

<sup>12</sup> 1982. urtean, PSOEk garaipen handia eskuratu zuen hauteskunde orokorretan, gehiengo absolutua lortuz. Horrela, Felipe Gonzalez Markezek (1942) izan zen Gobernuko Lehendakari (Wikipedia, 2016).

<sup>13</sup> Emakumearen Institutua, urriaren 24ko 16/1983 Legearen bidez sortu zen, Konstituzioak xedatutako berdintasun-printzipioa betetze eta garatze aldera. Emakumearen Institutua, organismo autonomoa da, non bere helburu nagusia

painiako gizar-tean, Institutu honen sorrerarekin, emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio handiagoa eskuratu zen, eztabaidarako agenda politikoan sartzen hasiz (Ramos de Mello, 2015: 202-203 orr.).

1995. urtean, Beijinen (Txinan) ospaturiko Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzia ez zuen espainiar komunikabideetan erabateko garrantzia eskuratu. Esan daiteke Espainian emakumearen aurkako indarkeria ez zuela albisteetan inongo balorerik jaso abenduaren 1997. urte arte, Ana Orantesen erailketa kasua gertatu zen arte, non honen eraginez, emakumearen aurkako indarkeria agenda mediatiakoetan sartu zen lehen aldiz eta horrela, arazoa eztabaida publikora nahiz politikarien agendetara salto egin zuen erabat (Ménendez Ménendez, 2014: 53 or.).

1998. urtean, Ana Orantesen erailketaren ostean, “*Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren aldeko III. plana (1997-2000)*”<sup>14</sup> izeneko ekintza-planaren bitartez, etxeko indarkeriaren inguruko eremu espezifiko bat txertatu zen, garapen handiagoa izanik “*Etxeko Indarkeriaren aurkako I. Ekintza Plana 1998-2000*”<sup>15</sup> martxan jarri zenean (Igualdad, 2015: 13-14 orr.).

Bi urte geroago, 2000. urteko hauteskundeetan, garai horretako Espainiako gobernuko presidentek, Jose Maria Aznarrek, genero indarkeriaren aurkako lege integral bat martxan jartzeko hitza eman zuen. Legen honen bidez urruntze agindua, fiskala ofizioz ekitea eta ohiko indarkeria psikikoa aurreikusten ziren. Lege hori martxan jartzeko 2001. urtean Zigor kodea aldatu zuten (Hoy, 2006).

PSOEk bere aldetik, 2001ean lege-proposamena egin zuen eta horrekin batera legez besteko proposamen bat aurkeztu zuen Gobernuko Delegazio bat sortzeko genero-indarkeriaren aurka. Kongresuan botatu zuten eta 165 pertsonak alde egon ziren Partido Popularreko kideak izan ezik, gainerako 151 diputatuak (Mujeres en Red, 2005).

---

sexuen arteko berdintasuna sustatzea eta bultzatzea den, emakumeek arlo politikoan, kulturean, ekonomikoan eta sozialean eraginkortasunez parte hartzeko baldintzak bultzatuz. Gaur egun, Emakumearen Institutua Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari atxikita dago. Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara: <http://www.inmujer.gob.es/eu/elinstituto/conocenos/home.htm>

<sup>14</sup> III. Plan honen bitartez, Gobernuko politikan berdintasun printzipioaren sarrera eta bizitza sozialaren esfera guztietan, emakumeen parte hartzearen promozioa ekarri zuen. Ekintza-plan honetan, 1995. urtean, Beijinen (Txinan) ospaturiko Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian ezarritako konpromisoak onartu ziren. Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara: <http://www.inmujer.gob.es/elinstituto/historia/home.htm>

<sup>15</sup> “*Etxeko Indarkeriaren aurkako I. Ekintza Plana 1998-2000*”, 1998ko apirilaren 30ean onartua izan zen ministro-kontseiluko bileran. Ekintza Planaren lanketa, Emakumearen Institutua eta ministerioaren hainbat sail eta autonomia-erkidego hartu zuten parte. Ekintza Planaren helburua ondorengo da: “*con este Plan, el Gobierno pretende dar respuesta a la situación de violencia que sufren muchas mujeres y a la demanda social provocada por esta violencia, recogiendo las medidas necesarias para erradicar la violencia doméstica y posibilitando recursos sociales suficientes*”. Hori horrela, Ekintza Planak 6 eremu desberdinetan jarduten zuen: sentsibilizazioan eta prebentzioan; hezkuntzan eta formakuntzan; errekurso sozialetan; osasun arloan; legedian eta praktika juridikoan; eta azkenik, ikerkuntzan.

Beraz, Espainiako legediari dagokienez, gaur egun 1/2004 Lege Organikoa dago indarrean, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integrale-rako Neurriei buruzkoak<sup>16</sup>, non genero indarkeriaren inguruko definizioa plazaratzen du, 1.1. artikuluan hain zuzen ere: *“indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa”*.

Lege honek adierazten du genero indarkeriaren arrazoia generoen arteko desberdintasun ondorioz sortzen dela. Beraz, 1/2004 Lege Organikoaren bitartez, genero indarkeriarekin bukatu nahi da emakumeen aurka burututako edozein motatako indarkeria burutzen dutenen aurrean zigorrak ezarriz. Baina baita ere, neurriak hartuko dira arlo desberdinetan, hala nola, heziketan, publizitatean, osasungintzan, etab. 1/2004 Lege Organikoan, epaitegien funtzioak azaltzen dira eta zertan datzan genero-indarkeria, lehen aipatu dugun moduan. Esan genezake, lege honek genero-indarkeriaren arazoa hainbat ikuspuntutik lantzen dituela, heziketa, prebentzioa, laguntza eta babesaren emanek eta jarrerak zigortuz (Legislación española sobre la violencia de género, s.f.).

Behin lege hau argitaratu ostean, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa, Estatuaren arazoa bihurtu zen, arazo pribatuaren ideia erabat desagertzen hasiz. Are gehiago, arazoa arlo desberdinetatik lantzeko aukera eman zuen eta indarkeria mota hau erakusten eta salatzen hasi zen. Beraz, tresna horrekin aurrerapauso handiak eman dira emakumearen babesaren alde.

Bestetik, 1/2004 Lege Organikoko 2.1. artikulua arabera, genero indarkeriaren biktima bezala kontsideratuko dira beren ezkontideen eskutik edota beraiekin antzeko afektibitate harremanak dituzten edo izan dituzten pertsonen eskutik (elkarbizitzarekin edo gabe), indarkeria jasaten duten emakumeak. Baina, 8/2015 Lege Organikoaren bitartez, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesaren emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikora, seme-alabak gehitzen ditu biktimaren kontzeptura eta ondorioz, 2.1. artikulua aldatzen du, honela idatzia geratuz: *“2. Lege honen bitartez, babes-neurri osoak ezartzen dira, zeinen helburua baita halako indarkeria*

---

<sup>16</sup> 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integrale-rako Neurriei buruzkoak, 2014ko abenduaren 28an Espainiar Parlamentuan onartu zen eta hurrengo egunean, Estatu Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratu zen. Lege hau, 2005eko urtarrilaren 28an indarrean sartu zen, IV (Babes Penal) eta V. Titulua (Babes Judizial) izan ezik, 2005eko ekainaren 29an indarrean sartu ziren.

*prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta haien tutoretzapean, zaintzapean edo jagoletzapean dauden adingabeei babesa ematea”.*

Honekin batera, 1/2004 Lege Organikoko 1.3. artikuluan zehazten dira zeintzuk diren legeak aurreikusten dituen indarkeria motak: “(...) *genero indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere*”.

Hori horrela, hauek dira 1/2004 Lege Organikoko 1.3. artikulua aipatzen dituen tratu txar moten inguruko aipamena:

- a) *Fisikoa*: pertsona baten aurkako edozein eraso fisiko, ezbeharrezkoa ez dena eta hainbat ekintza kontuan hartzen dituenak: zauriak, kolpeak, objektuak jaurtitzea, bultzakadak, etab. (Jaurlaritza, Jaurlaritzaren jarduteko I. Plana, genero-indarkeriaren kontra, 2011: 10 or.). Indarkeria mota hori hau hautematen errazena da, izan ere, pertsonaren gorpuan agerikoak diren kalteak edo ondorioak eragiten baititu, hala nola, hematoma, zauriak, kontusioak, hausturak eta kasu larrienetan, heriotza.
- b) *Psikologikoa*: Tratu txar psikologikoa ez da fisikoa bezain nabarmena eta ikusgarri izaten, izan ere, biktima bera e e ez da horretaz konturatzen eraso fisikoa jasaten duen arte (Murgibe, 2009: 9 or.). Tratu txar honetan burutzen diren ahozko zein bestelako ekintzak ondorengoak dira: kritikak, isekak, mehatxuak, behartzeak, apalkuntzak, axolagabetasuna, isiltasunak, isolamendu soziala (familiarik edota lagunengandik), xantaia, askatasun-gabetzea, kontrol ekonomikoa, gutxiespena eta abandonua (Sans & Sellarés, 2010: 106 or.). Beraz, denboran zehar luzatzen den indarkeria mota honetan, emakumea gutxiesteko, psikologikoki mintzeko, bere buruarengan duen konfiantza urritzeko eta bere auto-estimazioa suntsitzeko helburuarekin gauzatzen da, emakumearen osotasun psikologikoaren, emozionalaren eta duintasunaren aurka eginez.
- c) *Sexuala*: emakumearen borondatearen aurka edo baimenik gabe egindako edozein kontaktu sexual edo sexu-praktikei deritze, indarrez edo mehatxupean. Eraso sexualak, beste pertsona baten askatasun sexualaren aurka egiten diren ekintza guztiak hartuko lirateke kontuan, non horien artean, bikotearen barneko bortxaketak, sexualki gutxiestean edota sexu-objektu gisa



tratatzea. Indarkeria edo larderia tarteko direla gertatzen diren erasoak dira. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen. Sexu-indarkeria egiten den guztietan, tratu txar psikologikoa ere egiten da (Aldundia, 2014: 21 or.). Hiru motatako sexu-erasoak bereiztea proposatzen da:

- i. *Sexu-erasoak*: indarkeria edo larderia tarteko direla pertsona baten askatasun sexualaren kontra gertatzen diren erasoak dira. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak<sup>17</sup>, hain zuzen. Nahiz eta harreman fisikorik ez izan biktimaren eta erasotzailearen artean, eraso sexualtzat jotzen da, adibidez, masturbazera derrigor-tuz edota beste norbaitekin sexu-harremanak izatera behartuz, izan ere, horrelako ekintzak emakumearen askatasun sexualaren kontra egiten dute.
- ii. *Sexu-abusuak*: indarkeriarik edo larderiarik gabe pertsona baten askatasun sexualaren kontra gertatzen diren erasoak dira. Hemen sartuko lirateke nahimena edo adimena gutxiagotuta edukitzeagatik (adingabeak, zentzurik ez daukaten pertsonak edo ezgaitasun psikiko batzuk dauzkatenak, eta abar) baliozko adostasunik eman ezin dezaketen pertsonen aurka egindako abusuak (13 urte beheragoko pertsonen).
- iii. *Jazarpen sexista edo sexu-jazarpena*: sexu-izaerako erasoak dira, hitzezkoak, hitzik gabekoak edo fisikoa, laneko, eskolako edo antzeko harremanen barruan gertatzen direnak. Honakoak izaten dituz xede eta ondorio: pertsonaren duintasunari erasotzea edo pertsonaren inguruan aukako giro beldurgarria, laidogarria, umiliagarria eta iraingarria sortzea<sup>18</sup>.

---

<sup>17</sup> Zigor Kodeko, ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoa, 179. Artikuluan aurreikusten da bortxaketa kontsideratuko daitezkeen sexu-eraso forma guztiak: “*Sexu-erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, erantzuleari, bortxaketaren errudun gisa, sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio*”.

<sup>18</sup> “Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko” 43.1. artikuluan horrela definitzen du jazarpen sexista edo sexu-jazarpena: “*Delitu modura izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, lege honen ondoreetarako, jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, jazarpen sexista izango da*”.

Geroago, emakumearen aurkako indarkerian, tratu-txar mota bezala ondorengoak ere kontsideratu ziren (Ministerio de Sanidad Servicios Sociales e Igualdad, 2015: 12 or.):

- a) *Ekonomikoa*: tratu txar mota honen helburu nagusia, biktimaren diruari buruzko informazio eta haren erabilpena erabat galaraztea da, hau da, informazioa eskuratzea edo dirua nahiz beste ondasun ekonomiko batzuk erabiltzea eragoztean datza, adibidez, diru-sarrerak erabat kontrolatuta izatea, emakumeak ondasun komunetan parte hartzerik ez izatea edo parte hartze mugatua edukitzea, elikadura pentsioak ez ordaintzea, etab. (Osakidetza & Osasun eta Kontsumo Saila, 2011: 4). Beraz, biktimak bere bizitzako alderdietan egiten dituen ekintzak, portaerak edota jokaerak eta hartzen dituen erabakiak kontrolatzeko egintzak edo ez-egiteak, baliabide materialak eta ekonomikoak kontrolatuta kontsideratzen da tratu-txar ekonomikoa.
- b) *Soziala*: tratu-txar mota hau pairatzen duten emakumeek, gizartearekin kontaktua galduko luke erabat, adibidez lagunekin, familiarekin edota bizilagunekin hitz-egiteko edota beraiekin egoteko aukera hori mugatuz. Biktimari gizarte-harremanak ukatuz, isolatuta eta babesik gabe geratuko litzateke, laguntza eskatzeko aukerak murriztuaz.
- c) *Anbientala*: Emakumearen objektu pertsonalak apurtu, bota edo kolpatzen dituen edozein ekintza (Formas y tipos de violencia, s.f.).

Informazio honetaz gain, 1/2004ko Lege Organikoari honi esker, genero indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeei zenbait eskubide ematen eta bermatzen dizkie, adibidez, ondorengoak: informazioa jasotzeko eskubidea (18. artikulua), gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea (19. artikulua), berehalako laguntza juridikorako eta berezirako eskubidea (20. artikulua), lan eskubideak (21. artikulua), etab.

### **2.3.3. Euskal autonomia-erkidego mailako legedia**

Azkenik, euskal autonomia-erkidego mailan ondorengo legeak daude:

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuarena.
- 18/2005 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuneko.

- 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena.
- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena.
- 29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Genero Indarkeriaren Biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio mekanismoei buruzkoa.
- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa<sup>19</sup>.
- etab.

Ondorioz, adierazgarriak dira legeetan egindako aurrerapen handiak, izan ere, Estatuko, Nazioarteko eta Autonomia Erkidegoetako Erakundeek emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errefusatzeko dituztelako, eta ahaleginak eginez gizartea sensibilizatzeko eta indarkeria honekin ezabatzen laguntzeko.

#### **2.4. Genero indarkeriaren arrazoiak**

Aipatu dugun bezala, genero indarkeria edo emakumearen aurkako indarkeria, emakumeek emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeriari egiten dio erreferentzia. Ildo horretatik, indarkeria mota hau gizonezkoen hegemonian oinarritzen den gizartean burutzen da, eta horrek, botere-harreman erabat desorekatuak sortzen du emakumeen eta gizonezkoen artean (Emakunde, 2015: 7 or.). Harreman horiek desorekatuak izan dira historikoki, non talde feministen arabera, mendetasun horren sorrera, lanaren sexu-banaketaren ondorioz ematen da. Harreman desorekatu hauek, emakumeen erabateko diskriminazio dakarte eta honekin, gizonen nagusitasun osoa.

Genero indarkeriaren arrazoiaren inguruan, antzeko hitzetan aipatzen du Jaengo ospitaleko medikua den Juan Miguel Martinezek:

*“La violencia no se debe a rasgos singulares y patológicos de una serie de individuos, sino que tiene rasgos estructurales de una forma cultural de definir las identidades y las relaciones entre los hombres y las mujeres. La violencia contra las mujeres se produce en una sociedad que mantiene un sistema de rela-*

<sup>19</sup> 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa, genero indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria definitzeko ondorengo definizioa proposatzen du 3.1 artikuluan: “1. Foru lege honen ondorioetarako, emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. (...) Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da”.

*ciones de género que perpetúa la superioridad de los hombres sobre las mujeres y asigna diferentes atributos, roles y espacios en función del sexo”* (Martínez Galiano, 2010: 19 or.).

Hau da, aipatzen du, emakumearen aurkako indarkeria egiturazko indarkeria baten ondorioz ematen dela, gizartearen baitan kokatzen den egiturazko sisteman, nahiz eta, nahiz eta indarkeriazko jokabideak pertsona konkretuek egiten dituzten.

Baita ere, Acale Sanchezek enfasia jartzen du delinkuentzia mota honetan adieraz, emakumearen aurkako indarkeria ez dela ahultasun fisikoa ondorioetatik ematen, baizik eta, tradizionalki gizonezkoen eta emakumezkoen ezarritako rol sozialengatik:

*“(…) con la expresión “violencia de género” se quiere hacer referencia a aquella clase de violencia que reciben los distintos géneros por su pertenencia al mismo y por el papel que tradicionalmente cada uno de ellos viene desempeñando. En particular, la violencia contra la mujer por razón de género es una expresión con la que se hace referencia a aquella clase de violencia en la que la mujer es sometida a actos de violencia por su propia condición de mujer y por el papel que tradicionalmente se le ha otorgado socialmente (como esposa, madre, hija, trabajadora, etc.)”* (Acale Sánchez, 2005: 14 or.).

Zentzu honetan ere, horrela mintzatzen da Patricia Faraldo-Cabana autoreak: *“en la relación de pareja se proyectan de forma singular las representaciones sobre la propia identidad y las expectativas donde los roles de género, culturalmente transmitidos y aprendidos, juegan un papel decisivo”* (Faraldo-Cabana, 2006: 85 or.).

Honen ildora, 2009. urteko *“Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenak”*, zioen azalpenean bat egiten du aipaturiko gizonezkoen hegemoniaren ideiarekin, ondorengo adieraziz: *“emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko desberdintasun-egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri, gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu”*. Hori horrela, hitzarmen honen arabera ere, genero indarkeria edo emakumearen aurkako indarkeriaren jatorria egiturazko desberdintasun egoeran ditu erroak.

Beraz, indarkeria hau egiturazko indarkeria da, horrela, indarkeria honen arrazoietakoa bat gizonen nagusitasuna defendatzen duen genero-harremanen sistematik eratorriz. Gainera, nazioarte-mailan onartuta dago erabat emakumeen aurkako indar-

keriaren arrazoiak emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun historiko eta estrukturalengatik datorrela. Kontuan izan behar dugu, genero indarkeria edo emakumearen aurkako indarkeria ez dela bakarrik kultura, leku edo gizarte konkretu batzuetan ematen, izan ere, indarkeria hau, erabat orokorra den egoera baten baitan murgildurik agertzen da.

Hala eta guztiz ere, emakumeen eta gizonetzkoen arteko botere-harreman erabat desorekatuaren ideiatik aldenduz, psikologoek eta psikiatreek eskutik kontuan hartu beharreko genero indarkeriaren beste arrazoi oso garrantzitsua, erasotzaileek emakumeengan pairatzen duten “dependentzia emozionalean”<sup>20</sup> erator daiteke. Nahiz eta, beste kasu batzuetan, dependentzia hori ekonomikoa bakarrik izan (Carrasco Gómez & Maza Martín, 2010: 1867 or.).

Dependentzia emozional honetan, erasotzailea, kasu honetan gizonetza, emakumearengan papel dominantea izango luke, berarengan menderatuz eta bere bikotekidea umiliatuz. Egoera honen ondorioz, erasotzailearen autoestimua igo egiten da, horrela, bere bikotearenganako dependentzia duelaren sentsazioa izkutaraziz. Horrela, pertsona hauek edozer gauza egiteko gaia dira, mespreztatzen duten bikotekidearen eskutik erlazioa bertan behera ez uzteko, erabat inkotzientea eta patologikoa den behar afektiboa ezkutatu.

Baina honekin batera, genero indarkeria jasaten duten emakumeen ezaugarri pertsonal zehatz batzuk ere tratu txarrak jasotzearen arrazoi izan daitezkeela ere aipatu izan da, esate baterako, korrante batzuek, masokismoaren ezaugarriak, histeria bezalako gaixotasunak edota nortasunaren trastorno menpekotasunezkoa seinalatu izan dituzte. Horrelako egoerak pairatzeak, emakume batzuk tratu txarrak jasaten dituzten harremanean jarraitzeko edota harreman horretara bueltatzeko duten joera azaltzeko adierazi izan dute (López Samaniego, 2011: 62 or.).

Baina kontuan izan behar dugu, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek pairatzen dituzten arazo psikologikoak ez direla tratu txarren kausa bat, hauen ondorioa baizik<sup>21</sup>.

---

<sup>20</sup> Jorge Castello Blasco psikologoak ondorengo hitzetan definitzen du dependentzia emozionala: *“una necesidad afectiva extrema y continua, que obliga a las personas que la padecen a satisfacerla en el ámbito de las relaciones de pareja. Aunque este fenómeno puede aparecer puntualmente en la vida de un individuo (es decir, sólo en una de sus relaciones), lo más normal es que sea una constante en él; por lo tanto, la mayor parte de sus relaciones de pareja presentarán un patrón característico regido por la mencionada necesidad afectiva extrema”* (Castelló Blasco, 2005: 5 or.).

<sup>21</sup> Horrela mintzatu zen adibidez, Andaluziako Juntako Berdintasun eta Gizarte Ongizaterako Saila 2015. urtean argitaratutako *“Protocolo Andaluz para la Actuación Sanitaria ante la Violencia de Género”* protokoloan: *“en la actualidad existe suficiente conocimiento documentado que demuestra que no existen características psíquicas diferentes antes*

## 2.5. Genero indarkeriaren ondorioak

Jada, 1996ko maiatzaren 25ean, Munduko Osasun Erakundeko (gaztelaniaz “Organización Mundial de la Salud” (OMS)) goreneko organo erabakitzailea den Osasunaren Munduko 49. Batzarrak, “WHA-49.25” ebazpenaren bitartez adierazi zuen osasun publikoarentzat emakumearen aurkako indarkeria lehentasunezko arazoa zela, gero eta eragin gehiago izateagatik. Osasunaren Munduko 49. Batzarrak, indarkeriak epe motzera nahiz luzera, pertsonentzat, familientzat, komunitateentzat nahiz herrialdeentzat eragiten zituen ondorio larriak nabarmendu zituen.

Hori horrela, emakumearen aurkako indarkeriak bere ongizatean eragiten du nagusiki, lesio edota efektu desberdinak sortuz. Honen eraginez, emakumeen aurkako indarkeriak, emakumeen giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aurka eragiten dute erabat, bizitzarako eskubidea edota bere ongizate pertsonalaz modu aske batean gozatzeko aukera murriztuz (García Muñecas & Rasero Romero, 2007: 272 or.)

Ondorioz, azpian txertaturiko taulan (ikus 1. Taula), emakumearen aurkako indarkeriak emakumearengan eragiten dituen ondorio aipatzen dira.

### 1. Taula. Genero indarkeriaren ondorioak<sup>22</sup>

Ondorioak osasun fisikoan	Ondorioak osasun sexual eta ugalkorretan	Ondorioak osasun psikikoan	Ondorio hilgarriak	Ondorio sozialak
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ubeldurak</li> <li>-Zauriak.</li> <li>-Zain-urraketak</li> <li>-Bihurdurak</li> <li>-Luxazioak</li> <li>-Hausturak</li> <li>-Ikusmenaren edo entzumenaren galerak</li> <li>-Urdail-hesteetako sintomak (adibidez, heste-lodi suminkorra, digestioaren trastornoak)</li> <li>-Infekzioak</li> <li>-Gorputz atal desberdinetan min kronikoak</li> <li>-etab.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG) edo infekzioak (STI)</li> <li>-Nahi gabeko haurduntza</li> <li>-Bat-bateko abortua</li> <li>-Haurdunaldian arazoak (garaiz aurreko erditzea)</li> <li>-Lesio edo infekzio baginalak edo/eta analak</li> <li>-Sexuarekin zerikusia duten trastornoak</li> <li>-etab.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Sintoma psikologikoak (depresioa, antsietatea, autoestimu baxua, erru sentimendua, lotsa sentimendua, etab.)</li> <li>-Trastorno psikiatrikoak ( trastorno depresioak, lotarako arazoak, elikadura jokabidearen trastornoak, substantzien abusua (tabakoa, alkohola, medikamentuak), bere buruaz beste egiteko ideiak, etab).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-HIESArekin loturiko hilketak</li> <li>-Kontsumatutako bere buruaz besteak</li> <li>-Emakumeen erailketak</li> <li>-Emakumeek burututako erailketak</li> <li>-etab.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Isolamendu familiarra edo soziala</li> <li>-Lanaren gabeziaren ondorioz sortutako zailtasun ekonomikoak</li> <li>-Absentismo laborala</li> <li>-Etxebizitza edo/eta hiriaz aldatzeko beharra babesteko beharren ondorioz.</li> </ul>

*del inicio del maltrato entre las mujeres que lo sufren y las que no, sino que los trastornos y problemas psicológicos de las mujeres maltratadas son una consecuencia del maltrato y no la causa”.*

<sup>22</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da eta informazioaren iturria ondorengo da: San Martín García, 2012: 42 or.

Beraz, aurretik aipaturiko indarkeria motak egunero pairatzeak, emakumeengan gaixotasunen aurrean ahultasun handiagoko egoerak izatera pairatzen dute, Paloma de Andresek aipatzen duen moduan:

*“El vivir cotidianamente en situaciones de violencia disminuye la propia valoración, la autoestima, lo que conlleva a una falta de cuidado personal y favorece la entrada en conducta perjudiciales para la salud (abuso de alcohol u otras drogas, tranquilizantes, tabaco, abandono en relación con la alimentación, ejercicio, etc.)”* (de Andrés, 2006: 11 or.).

Aurrerago, Paloma de Andresek jarraitzen du esaten: *“la mujer maltratada tiene más problemas de salud general, su funcionamiento físico está reducido, tiene sensación de mala salud y pasa más días en la cama que otras mujeres. Asimismo empeoran aquellos problemas de salud o enfermedades que tenía anteriormente”* (de Andrés, 2006: 11 or.).

Ondorioz, tratu txar mota guztiek eragiten dute emakumearen autoestimuan, eta hori dela eta, pixkanaka-pixkanaka bere bizitzaren inguruko kontrola galtzen doa, bere erasotzailearengandik onarpena lortzearen ordezkio jokoerak probatuz. Beraz, emakumeen aurka eragiten diren indarkeria mota orok, giza eskubideak urratzen dituzte erabat. Haien jatorria egiturazkoa denez, indarkeria horietako asko normalizatuta daude, ezkutatuta eta oso errotuta eta sistema batean zeinean, ezabatu beharrean, ikasi eta mantentzen baitira.


## **2.6. Genero indarkeriari buruzko datuak**

2014. urtean Espainian, 54 emakume eraildunak izan ziren. 2015. urtean, 123.725 emakume izan ziren biktimak genero indarkeriagatik, non horietatik, 60 emakume eraildunak izan ziren. 2016. urtean, berriz, 134.462 emakume izan ziren genero indarkeriaren biktimak, baina emakume eraildunen kopurua ez zen igo, izan ere, urte horretan 44 emakume izan ziren eraildunak (ikus 2. Grafikoa)<sup>23</sup>. 2017. urteko datuak aztertzen baditugu, maiatzaren 3 arte, 21 biktima eraildunak izan dira genero indarkeriagatik.

---

<sup>23</sup> Datu hau eta orain aipatuko diren beste datuak ondorengo iturritik atera dira:  
[www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/pdf/VMortales\\_2017\\_04\\_26.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/pdf/VMortales_2017_04_26.pdf)

## 2. Grafikoa. Biktima eraildunak genero indarkeriatik urtero<sup>24</sup>



Eraildunak izan ziren biktima gehienak genero indarkeria kasuengatik, 2008. urtean izan zen (76 biktima). 2012. urte bukaeran, berriz, orain arte lortu den genero indarkeriaren biktima gutxien eman zen, 52 erailketekin. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago 2016. urtea nahiko "positiboa" izan ari dela, izan ere, urte honetako azaroaren 25 arte, inoiz eman ez den emakume biktima kopuru baxuena eman zelako, 40 biktimekin hain zuzen ere, nahiz eta genero indarkeria kasuak 2016. urtean 44koa izan.

Espania Gobernuak Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2016. urtean, Espainian 44 emakume eraildunak izan ziren gizonezkoen eskutik eta hauek izan dira, hildakoen horien fitxa (ikus 3. Taula):

## 3. Taula. 2016. urteko genero indarkeriaren biktimak<sup>25</sup>

Babes instituzionala		Kasuen kopurua	Portzentajea (%tan)
	<b>BIKTIMA osoak</b>	<b>44</b>	<b>%100,0</b>
<b>SALAKETAK</b>	Salaketa zegoen:	16	%36,4
	-Biktimak ezarrita	13	%29,5
	-Beste pertsona batek ezarria	3	%6,8
	Ez zen prozesua jarraitu	5	%11,4
<b>BABES NEURRIAK</b>	Babes neurriak eskatu zituzten	11	%25,0
	Babes neurriak jaso zituzten	11	%25,0
	Babes neurriak ukatu zituzten	1	%2,3
	Gelditutako babes neurriak	6	%13,6
	Indarrean zeuden babes neurriak zituzten	6	%13,6
	Biktimaren ONARPENAREKIN	3	%6,8

<sup>24</sup> Grafikoa lanerako berariaz sortua izan da eta datuen iturria ondorengoa da: <http://estadisticasviolenciagenero.msssi.gob.es/>

<sup>25</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da eta datuen iturria ondorengoa da: [www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasmortales/fichamujeres/pdf/Mortales\\_2016\\_12\\_31\\_V1.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasmortales/fichamujeres/pdf/Mortales_2016_12_31_V1.pdf)



<b>NEURRIEN URRATZEA</b>	Biktimaren ONARPENIK GABE	3	%6,8
------------------------------	---------------------------	---	------

Espainiako zona geografikoa aztertzen badugu, 2016. urtean egon ziren genero indarkeria kasu gehienak Balearretan, Gaztela eta Leonen eta Valentzia Erkidegoan eman ziren. 2015. urtean aldiz, Andaluzian eman ziren genero indarkeriaren eraildako biktima gehienak, non 60 kasuetatik, 14 erailketa Andaluzian gertatuz (%23,3a).

Erasotzaileen nazionalitateari dagokionez, 2016. urtean gertatutako 44 kasuetatik, gizonezkoen %65ak espainiarrak ziren eta %35ak, aldiz, beste herrialdeetakoak. Erasotzaileen adinaren kasuan, 24 kasuetan erasotzailearen bitarteko adina 31-50 urtetakoa zen (%55,6a). Biktimaren nazionalitateari dagokionez, 44 kasuetatik, %56,8an espainiarrak ziren eta %43,2an, berriz, atzerritarrak. Biktimaren adinaren kasuan, erasotzaileekin geratzen den moduan, adin-tarte ohikoena 30-50 urte bitarteko gizonezkoak izan ziren (%55,6an).

Azpian txeraturiko taulan (ikus 4. Taula), 2016. urtean Emakumearen Aurkako Auzitegietan zigortutako pertsonen kopurua azaltzen da. Bertan ikusi daiteke, epaitutako 19.306 pertsonetatik, kopuru handi batean espainiarrak izan ziren (11.826) eta kopuru txikiago batean atzerritarrak (3.996). Baita ere, ikusi daiteke epaitutako 19.306 pertsonetatik, 2.957 espainiarrek eta 527 atzerritarrek ez zutela zigorrik jaso.


**4. Taula.** 2016. urtean Emakumearen Aurkako Auzitegietan zigortutako pertsonen kopurua<sup>26</sup>

	Epaitutako pertsonak	Zigortutako pertsonen kopurua		Zigorra jaso ez duten pertsonen kopurua	
	Kopurua	Espainiarrak	Atzerritarrak	Espainiarrak	Atzerritarrak
<b>Gizonezkoak</b>	19.306	11.826	3.996	2.957	527

Erasotzailearen eta biktimaren arteko erlazioa aztertzen badugu, hiru erlazio-mota eman daitezke: lehenengoa, erasotzailea eta biktima bikotekideak dira; bigarren-goa, erasotzailea eta biktima banantze prozesuan daude; hirugarren-goa, erasotzailea eta biktima bananduak daude (ikus 5. Grafikoa).


<sup>26</sup> Taula lanerako berriaz sortu izan da eta datuen iturria ondorengoa da: <http://www.poderjudicial.es/cgpi/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Actividad-del-Observatorio/Datos-estadisticos/La-violencia-sobre-la-mujer-en-la-estadistica-judicial--Anual-2016>

## 5. Grafikoa. Biktima eta erasotzailearen erlazio-mota<sup>27</sup>



Ondorioztatu daiteke, 2003. urtetik 2016. urte arte, emakume erailak izan ziren kasu gehienak bikotekide erlazioetan ematen zirela. Kasu txikiagoarekin, erasotzailea eta biktima bananduta zeudenean ematen zen. Aipatzen ari gareen erlazio egoera hori, 2003. urtetik 2010. urte arte.

## 6. Grafikoa. Salaketa kopurua genero indarkeriatik<sup>28</sup>



2009. urtean, 135.539 salaketa jarri ziren emakumearen aurkako indarkeriatik. 2010. urtean, salaketa kopurua pixka bat gutxitu egin zen (134.105) eta hurrengo urtean ere, behera egin zuen (134.002). 2012. urtean, salaketen kopurua beherakada nabarmen bat eman zuten (128.477) eta 2013. urtean, azken zortzi urteetan eman diren salaketa kopurua baxuena eman zen (124.893). 2014. urtean emakumearen aurkako indarkeriatik 126.742 emakumek jarri zuten salaketa (aurreko urtean baino pixka bat gehiago). 2015. urtean salaketa-kopurua handitu egin zen (129.193) eta 2016. urtean, azken zortzi urteetan eman diren salaketa-kopuru handiena eman zen (143.535).

<sup>27</sup> Grafikoa lanerako berariaz sortua izan da eta datuen iturria ondorengoa da: <http://estadisticasviolenciagenero.msssi.gob.es/>

<sup>28</sup> Grafikoa lanerako berariaz sortua izan da eta datuen iturria ondorengoa da: <http://estadisticasviolenciagenero.msssi.gob.es/>

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak 2016. urtean kaleratutako datuen arabera, autonomia erkidegoetako datuei erreparatuz gero, 2016. urtean, Andaluzia, Katalunia, Valentzia eta Madril izan ziren salaketa-kopuru gehien jarri ziren autonomia-erkidegoak (ikus 7. Grafikoa).

### 7. Grafikoa. Salaketa kopurua autonomia-erkidegotan<sup>29</sup>

Autonomia- Erkidegoa	Salaketa kopurua	Biktimen jarritako salaketa	Familiarrek jarritako salaketa	Poliziaren esku- hartzea
<b>Andaluzia</b>	29.997	19.922	217	3.586
<b>Katalunia</b>	19.546	13.220	470	3.439
<b>Valentzia</b>	19.431	10.790	179	4.821
<b>Madril</b>	21.535	14.410	155	4.463

Ikusi daitekeen moduan, kasu gehienetan, biktima bera izan zen salaketa jartzen zuena. Bigarrenik, polizia berak hartzen zuen esku eta eta kopuru baxuago batean, biktimaren familia izaten zen salaketa jartzen zuena, aldiz, 2016. urtean, Estatuan salaketa gutxien jaso zuten autonomia erkidegoak ondorengoak izan ziren: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) (4.764), Nafarroa (1.502), Kantabria (1.504) eta Errioxa (690).

### 3. Indarkeria aipatzeko bestelako kontzeptuak

Emakumeen aurkako indarkeria ikusezin mantentzen da gaur egun ere eta, aldi berean, indarkeria gauzatzeko orduan eragina duten alderdi pertsonalei gehiegizko garrantzia ematen zaie. Honen ondorioz, indarkeriazko egintzen arrazoiak, bereziki, pertsonalak izan direla ulertua izan da eta ez arrazoi sozialengatik.

Egoera honengatik, emakumeen aurka burututako indarkeria ikusezin bilakatzeara eragin du, alde batetik, emakumeei berriaz zuzendutako indarkeriari buruzko hizkera urria eta pobretua izatea, eztabaida txikia eta garrantzirik gabea delakoan eta bestetik, terminologia honen ondorioz, legearen esparruan, komunikabideen esparruan, laguntza esparruan edota esparru psikosozialetan besteak beste, indarkeria honen esku hartzeko ikuspegi eta estrategia desberdinen garapena ekartzea (Aldundia, 2014: 6-7 orr.).

<sup>29</sup>Taula lanerako berriaz sortua izan da eta datuen iturria ondorengo da: [www.poderjudicial.es/stfls/CGPJ/ESTAD%C3%8DSTICA/INFORMES%20ESTAD%C3%8DSTICOS/FICHERO/Evoluciones%20Violencia%20de%20Genero%20-%20A%C3%B1o%202016.xls](http://www.poderjudicial.es/stfls/CGPJ/ESTAD%C3%8DSTICA/INFORMES%20ESTAD%C3%8DSTICOS/FICHERO/Evoluciones%20Violencia%20de%20Genero%20-%20A%C3%B1o%202016.xls)

Azken urteetan erabat aldakorra eta eztabaidatua izan den gaia, aipatzen ari garen indarkeriaren izendapena izan da, non 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa, onartu zenetik inflexio-puntu eman zen.

Egun, komunikabideetan emakumearen aurka burututako indarkeria aipatzeko hainbat kontzeptu desberdin erabiltzen dira genero indarkeria kontzeptuarekin batera: indarkeria sexista, indarkeria matxista edota emakumearen aurkako indarkeria. Aipatu beharra dago, genero indarkeriaren materialian komunikabideetan aurreikusten diren autorregulazio kodeek ere hobesten dituztela horrelako kontzeptuak erabiltzea, eta ez, adibidez, etxeko indarkeria, bikote barruko indarkeria, familia barneko indarkeria edota parrizidio<sup>30</sup> terminoak besteak beste (Romero Fernández, 2008: 302-303 orr.).

Hori horrela, emakumeek sexu-genero harreman desberdinetan duten mendeko lekua dela eta, pairatzen duten norabide bakarreko indarkeriari hori aipatzeko dauden bestelako kontzeptuak aipatuko dira atal honetan. Beraz, indarkeria honi hainbat izen eman zaizkio, hala nola, indarkeria sexista, indarkeria matxista, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria.

### **3.1. Indarkeria sexista**

Beste motatako indarkeriak bezala (adibidez, arrazista, klasista, etab.), indarkeria sexistaren jatorria nagusitasun sentimenduan datza eta kontzeptu honen erabilera, tradiziozko arauen, ohituren, egituren eta balioen ondorioa da (Aldundia, 2014: 14 or.). Bikote harremanetan edo haien ondoren emakumeen aurka eragindako indarkeriatik kanpo, gizonek emakumeen aurka eragiten duten indarkeria fisikoa edo psikologikoa da; bortxaketa, emakumeen tratu txarrak, sexu-jazarpena, intzestua eta pederastia.

Sexuan oinarritutako banaketa honetan, emakumeak gizonezkoekin konparatzen badugu, gutxiengoa edo osagarria diren sexua bezala kontsideratuak izan dira historikoki. Beraz, sexu edo genero eskema tradizionalan emakumearen sinbolo diren gorputz guztiek, indarkeria sexista pairatzen dute, ez egiten dutenagatik, direnagatik eta irudikatzen dutenagatik baizik (Aldundia, 2014: 6-7 orr.).

Damian Moreno Benitezek ondorengo hitzetan definitzen du indarkeria sexista:

---

<sup>30</sup> Parrizidio hitza ondorengo hitzetan agertzen da *“Real Academia Española”*-n zehaztuta: *“muerte dada a un pariente próximo, especialmente al padre o la madre”*.

*“Violencia sexista es un hiperónimo de violencia machista que diluye la relación desigual entre el hombre y la mujer, mientras que para los detractores de la discriminación positiva a favor de la mujer tampoco resulta adecuado el término, puesto que incide sobre la distinción de sexo como causa de una violencia que, sin embargo, se quiere ubicar en las relaciones intrafamiliares. Por ello, como mucho, violencia sexista se utiliza en algunos textos como producto de la cohesión léxica textual”* (Moreno Benítez, 2010: 907 or.).

Sexu-erasotzat jotzen dira, beste pertsonaren adostasunik gabe gauzatzen diren izaera sexualeko jokabide guztiak. Honelako jokabideak hartzen ditu: exhibizionismoa, hitz lizunak, zirriak, laztanak, bortxaketak, etab. Horrela, Lucia Martínez Odriozolak adierazten du (ikus *“2. Eranskina. Elkarrizketak”* ataleko *“4. Elkarrizketa”*): *“La violencia sexista sería por ejemplo, la información que se dan entre hombres a mujeres por la calle: “guapa”, “vaya polvo que te echaba”, etc.”*.

### **3.2. Indarkeria matxista**

Pertsonak jaiotzen direnean etiketatuak izaten dira *“arra”* edo *“gizona”* eta *“emea”* edo *“emakumea”* bezala, arau genital batean oinarrituta. Horrek eragiten du, *“arra”* edo *“gizona”* eta *“emea”* edo *“emakumea”* jaiotzen den pertsona hori jokaera maskulino edo femeninoa esleitzea (Aldundia, 2014: 12 or.). Beraz, indarkeria matxista kontzeptuak, emakumeen genero-identitatea eta/edo sexualitatea duten pertsonen duintasunari eta osotasun fisiko eta psikologikoari eragiten duten ekintzak hartzen du bere baitan.

Esleipen hori, dikotomiko eta hierarkikoa bezala kontsideratuak izan dira: alde batetik, dikotomikoak dira, aurkakoak diren identitateetan oinarrituta daudelako, hots, gizona edo maskulinoa dena ez da emakumea edo femeninoa eta alderantziz; bestetik, hierarkikoak dira, izan ere, gizartean maskulino izendatzen dena femenino izendatzen dena baino hobetzat hartzen delako (Aldundia, 2014: 9 or.). Izan ere, maskulinoa dena femeninoa denaren gainetik dagoela kontsideratzen da, baita ere, bi kategoria horietan sartuta ez dauden bestelako genero-identitate guztien gainetik.

Beraz, esan genezake indarkeria matxista sortu egiten dela sistema patriarkalak edo sistema matxistak ezartzen duen gizonaren edo maskulinoaren eta emakumearen edo femeninoaren arteko desberdintasun horren ondorioz. Adibidez, horrela

mintzatzen da Gipuzkoako Diputazio Forala<sup>31</sup> indarkeria matxista kontzeptuaren erabilera arrazoitzeko:

*“(...) explicita la relación de poder desigual implícita en el machismo, al mismo tiempo que permite tener en cuenta que, aunque la violencia machista la sufren de forma aplastante las mujeres, también puede afectar a otras personas que, como ellas, rompen los modelos hegemónicos que el sistema heteropatriarcal impone a hombres y mujeres. Dicha violencia castiga a todas aquellas personas que no responden a los imperativos que éste modelo marca. En este sentido, lesbianas, gays, transexuales y bisexuales también se pueden convertir en “objeto” de violencia machista en tanto en cuanto salen del modelo heteronormativo actual”* (Aldundia, II Plan Foral para igualdad de mujeres y hombres. 2012-2020, 2012: 97 or.).

### 3.3. Emakumearen aurkako indarkeria

Emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptuak, legeetan aipatua izan da, adibidez, 4/2005eko Legean, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa<sup>32</sup> edo Europar Batasuneko Istanbulerako Hitzarmena<sup>33</sup>.

Kontzeptu honek, indarkeria pairatzen emakumeen fenomenoaren ulertzen laguntzen du, izan ere, indarkeria hau noren kontra erabiltzen den ikusaraztea laguntzen duelako. Gaur egun, horixe da adostasun sozial eta politiko handiena duen adierazpidea. Emakumeen aurkako indarkeria, adibidez, kontzeptu deskribatzailea da, eta oso erabilia, adostasuna sortzen duena eta ulergarria dena, indarra jartzen baitu indarkeria pairatzen duen subjektuarengan: *“Tienen la ventaja de la motivación semántica evidente y una mayor fuerza argumentativa que violencia de género o doméstica, ya que instalan la denominación en el ámbito de la discriminación femenina y la lucha por la igualdad”* (Moreno Benítez, 2010: 907 or.).

Hala ere, indarkeria horren kausak izenaren barruan sartzen ez direnez gero, zalantzazkoa gertatzen da, eta baita nahasgarria ere, emakumeek era askotako egoeretatik eratorritako hainbat indarkeria molderi aurre egin diezaieketelako. Nolanahi ere, kontzeptu hori hastapeneko hausnarketa feministen emaitza da, orduko helburua bai-

<sup>31</sup> Gipuzkoa Diputazio Foralak idatzitako “II Plan Foral para igualdad de mujeres y hombres. 2012-2020” dokumentua eskuragarri dago iturri honetan: <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/140964/II+Plan+Foral+Igualdad+2012-2020+cast/a8f3fb24-5999-44fb-8d54-e706eb3c3144>

<sup>32</sup> Dokumentua eskuragarri dago iturri honetan: <https://www.euskadi.eus/bopy2/>

<sup>33</sup> Dokumentua eskuragarri dago iturri honetan: <https://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>

tzen emakumeek aurre egin behar dioten indarkeria molde berariazko bat ikusgarri egitea baitzen, hau da: generoa dela kausa egindako indarkeria (Aldundia, 2014: 8 or.).

### 3.4. Etxeko indarkeria

Aurreko atalean aipatu den moduan, emakumearen aurkako indarkeria zehazterako orduan, zenbait kasutan terminologia modu desberdinetan erabiltzen. Kasu honetan ere komunikabideetan edota gizartean oso ohikoa izaten da emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria gauza berdinak direla. Izan ere, orain dela oso gutxi arte etxeko indarkeria edo familiarteko indarkeria, gure gizartean gehien erabili diren kontzeptuak izan dira, baina ez dute emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptuarekin bat egiten (Osborne, 2009: 26 or.).

Hori horrela, atal honetan, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeriaren arteko desberdintasun nagusiaz mintzatzea komenigarria da, berain arteko desberdintasun nagusiak aipatuz. Beraz, ondorengo taulan (ikus 8. Taula), emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeriaren arteko desberdintasun nagusiak plazaratzen dira, biktimaren arabera, erasotzailearen arabera, iraupenaren arabera, zigor kodeko artikuluen arabera eta aurreikusten diren arautegiaren:

### 8. Taula. Genero indarkeria eta etxeko indarkeriaren desberdintasunak<sup>34</sup>

Desberdintasunak	Genero indarkeria	Etxeko indarkeria
<b>Biktima</b>	Indarkeriazko ekintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, edozein emakumeren aurka ezkontide edo ezkontide ohiaren eskutik. Ez da beharrezko elkarbizitza bat mantendu izana.	Indarkeria pairatzen duen biktima izan daiteke: alde batetik, edozein gizon bere ezkontidearen eskutik, ezkontide ohiaren eskutik, bere gurasoen eskutik edota bere seme-alaben eskutik; edo bestetik, edozein emakume, non indarkeria erator daitekeen bere gurasoen eskutik edota bere semeen eskutik.
<b>Erasotzailea</b>	Gizonezkoa izan behar du beti.	Erasotzailearen etxeko nukleo familiarra osatzen duen edozein pertsona.
<b>Iraupena</b>	Ekintza bakarra nahikoa da genero indarkeria delitu bat izateko (ez da ohikotasunez eman behar).	Ohikotasunez burutzea beharrezkoa da.
<b>Eragiten dio</b>	Emakumearen funtsezko eskubideei: bizitza, osotasun fisikoa nahiz psikologikoa, etab.	Biktimaren osotasun moralari eta familiarriako bizikidetzak baketsuari.
<b>Zigor Kodea</b>	153.1. <sup>35</sup> eta 148.4. <sup>36</sup> artikulua.	153.2. <sup>37</sup> eta 173.2. <sup>38</sup> eta artikulua.

<sup>34</sup> Taula hau lanerako berariaz sortua izan da.

<sup>35</sup> 153.1. artikulua: "El que por cualquier medio o procedimiento causare a otro menoscabo psíquico o una lesión de menor gravedad de las previstas en el apartado 2 del artículo 147, o golpear o maltratarle de obra a otro sin causarle lesión, cuando la ofendida sea o haya sido esposa, o mujer que esté o haya estado ligada a él por una análoga relación de afectividad aun sin convivencia, o persona especialmente vulnerable que conviva con el autor, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año o de trabajos en beneficios de la comunidad de treinta y uno a ochenta días y,

<b>Arautegia</b>	1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrii buruzkoa.	27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena.
------------------	---	--

Erakunde arteko II. Akordioaren<sup>39</sup> arabera, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egitekoak, etxeko tratu txarren inguruan ondorengo definizioa ematen du:

*“Emakumearen aurkako etxeko tratu txartzat hartuko da oraingo edo lehengo familia-harreman eta/edo harreman afektibo batean emakume nerabe edo heldu baten aurkako indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo beste mota baten indarkeria erabiltzea, emakumea menderatzeko, azpiratzeko eta erasotzailerak harremanean agintea eta boterea izateko. Tratu txartzat hartuko da horrek guztiak emakumearengan sufrimendua edo kalte fisiko edo psikikoa sortzen badu” (Jaurilaritza, 2009: 5 or.).*

Ondorioz, etxeko indarkeria familian edozein pertsonaren kontra sortzen den indarkeria da. Tratu txar motak, fisikoak, psikologikoak edo emozionalak, ekonomikoak, sexuari loturikoak eta giza harremanei loturikoak izan daitezke, emakumearen aurkako indarkeria bezala. Kolpeak, kontusioak, bultzadak, belarrondokoak, harramazkak, irainak, mehatxuak, laidoak, dirua erabiltzea debekatzea, sexu harremanak izatera

---

*en todo caso, privación del derecho a la tenencia y porte de armas de un año y un día a tres años, así como, cuando el juez o tribunal lo estime adecuado al interés del menor o persona con discapacidad necesitada de especial protección, inhabilitación para el ejercicio de la patria potestad, tutela, curatela, guarda o acogimiento hasta cinco años.”*

<sup>36</sup> 148.4. artikulua: *“Si la víctima fuere o hubiere sido esposa, o mujer que estuviere o hubiere estado ligada al autor por una análoga relación de afectividad, aun sin convivencia.”*

<sup>37</sup> 153.2. artikulua: *“2. Si la víctima del delito previsto en el apartado anterior fuere alguna de las personas a que se refiere el artículo 173.2, exceptuadas las personas contempladas en el apartado anterior de este artículo, el autor será castigado con la pena de prisión de tres meses a un año o de trabajos en beneficio de la comunidad de treinta y uno a ochenta días y, en todo caso, privación del derecho a la tenencia y porte de armas de un año y un día a tres años, así como, cuando el Juez o Tribunal lo estime adecuado al interés del menor o persona con discapacidad necesitada de especial protección, inhabilitación para el ejercicio de la patria potestad, tutela, curatela, guarda o acogimiento de seis meses a tres años.”*

<sup>38</sup> 173.2. artikulua: *“El que habitualmente ejerza violencia física o psíquica sobre quien sea o haya sido su cónyuge o sobre persona que esté o haya estado ligada a él por una análoga relación de afectividad aun sin convivencia, o sobre los descendientes, ascendientes o hermanos por naturaleza, adopción o afinidad, propios o del cónyuge o conviviente, o sobre los menores o personas con discapacidad necesitadas de especial protección que con él convivan o que se hallen sujetos a la potestad, tutela, curatela, acogimiento o guarda de hecho del cónyuge o conviviente, o sobre persona amparada en cualquier otra relación por la que se encuentre integrada en el núcleo de su convivencia familiar, así como sobre las personas que por su especial vulnerabilidad se encuentran sometidas a custodia o guarda en centros públicos o privados, será castigado con la pena de prisión de seis meses a tres años, privación del derecho a la tenencia y porte de armas de tres a cinco años y, en su caso, cuando el juez o tribunal lo estime adecuado al interés del menor o persona con discapacidad necesitada de especial protección, inhabilitación especial para el ejercicio de la patria potestad, tutela, curatela, guarda o acogimiento por tiempo de uno a cinco años, sin perjuicio de las penas que pudieran corresponder a los delitos en que se hubieran concretado los actos de violencia física o psíquica. Se impondrán las penas en su mitad superior cuando alguno o algunos de los actos de violencia se perpetren en presencia de menores, o utilizando armas, o tengan lugar en el domicilio común o en el domicilio de la víctima, o se realicen quebrantando una pena de las contempladas en el artículo 48 o una medida cautelar o de seguridad o prohibición de la misma naturaleza. En los supuestos a que se refiere este apartado, podrá además imponerse una medida de libertad vigilada.”*

<sup>39</sup> *“Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II.*

*Akordioa”* eskuragarri dago ondorengo iturrian:

[http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II\\_interinstitucional\\_e.pdf](http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II_interinstitucional_e.pdf)



behartzea eta antzeko beste eraso psikikoak edo psikologikoak eta emozionalak ere bai, txartu txartzat hartzen dira. Etxeko indarkeriak ez du emakumeen aurkako indarkeria definitzen, etxeko eremuan gertatzen dena baizik, emakumeen diskriminazioa eta mendekotasuna, indarkeria honen sorburu eta kausa ikusezin bihurtuz.

Raquel Osbornek adierazten duen moduan, emakumearen aurkako indarkeria etxeko indarkeriarekin edota familiarterko indarkeriarekin bezalako kontzeptuekin nahastea oker egongo litzateke, izan ere, genero perspektibatik, kontzeptu hauek informazio asko ezkututzen baitute, adibidez indarkeriaren objektua, subjektua edota indarkeriaren azken helburua zein den ez dute zehazten. Gainera, etxeko indarkeria edo familiarterko indarkeriaren subjektu pasiboa ez da emakumea, baizik eta, familia (Osborne, 2009: 26 or.). Ondorioz, kontzeptu hauek etxe barruan gertatzen den indarkeria guztia aurreikusten du eta etxetik kanpo bikote artean sortu daitezkeen genero indarkeria ez du kontuan hartzen.

Emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptuak xehetasun gehiago aurkezten ditu etxeko indarkeriarekin edota familiarterko indarkeriarekin konparatzen badugu, izan ere, aipatu dugun moduan, generoaren kontzeptuak gizon eta emakumeen arteko harremanak hartzen ditu kontuan eta ez familiaren, beste bi kontzeptuak bezala. Horrela, etxea edo lekua (etxean, lantokian, ikastetxean, etab.) zein den inporta gabe, edozein emakume. biktima denean emakume izateagatik, genero indarkeriaz hitz egin beharko dugu eta ez etxeko indarkeriaz (López, 2005: 2 or.).

## II. KAPITULUA – KOMUNIKABIDEEN INPAKTUA GIZARTEAN

### 1. Sarrera

Komunikabideak gure gizartearen parte diren heinean, ez da harritzekoa aipatzea, komunikabideak oso garrantzitsuak direla errealitateari forma emateko eta errealitate hori interpretatzeari eta eraikitzeari dagokionez. Beraz, duten boterea era egokian erabiliz guztiz informatuta dauden gizarteak sortuko lirateke.

Hasteko, komunikabideen inpaktua gizartean dagokion hirugarren atal honetan, gure gaur egungo gizartean aurki ditzakegun komunikabideei modu batean edo bestean, erreferentzia egingo diegu.

Bestetik, emakumearen aurkako indarkeriak komunikabideetan gizartean duen inpaktua azalduko dugu eta honekin batera, komunikabideen eremua, genero indarkeriarekin zerikusiarekin, aurreikusten diren estatuko legeen aipamena azalduko dugu.

### 2. Komunikabideen eragina gizartean

Ez dago zalantzarik, gaur egun komunikabideek errealitatearen informazioa eskuratzeko iturri nagusi bilakatu direla (Curran, 2007: 168 or.). Izan ere, ezaguna baita komunikabideek gizartean duten eraginaren ondorioz, *“laugarren boterea”*<sup>40</sup> bezala definitzea (Vegas Aguilar, 2009: 64 or.).

Komunikabideen parte-hartzea gizartean ez da bakarrik mugatzen komunikabide sare desberdinetatik informazioa helarazteaz, hala nola, telebistatik, irratitik, internetetik, prentsa edo egunkarietatik. Baizik eta, komunikabideek gizartea behatzen duten heinean, gizarte prozesuetan ere parte-hartzen dute (Espinari Ruiz & Hernández Sánchez, 2012: 175 or.):

*“Cualquier óptica científico-social que se acerca a una explicación de la sociedad moderna no puede eludir el considerar la influencia de los medios de comunicación, si bien se va evidenciando que éstos se transforman y van incorporando estilos, usos, expresiones y formas nuevas”* (Radl Philipp, 2011: 157 or.).

Komunikabideek zenbait metodo erabiltzen dituzte guregan eragiteko, adibidez, pertsuasio eta manipulazioaren bitartez.

---

<sup>40</sup> *“Laugarren boterearen”* kontzeptua, Edmund Burke (1729-1797) politikari eta hizlari irlandarrak erabili zuen lehen aldiz garai horretan prentsak zuen influentzia zela eta.

Pertsuasioaren prozesuaren bitartez, gizarteko pertsoneri jarrera, portaera, ideia edo akzioen bat barneratzera eragiten dute. Honen ildora, Vicenç Fisasek adierazten du komunikabideek *“jarrera agresiboak, ekintza belikoen justifikazioa, estereotipoak eta etsaiaren irudiak sortu”* dezaketela. Hau da, garrantzia ematen dio komunikabideek gizarte jarreretan izan dezaketen eraginean. Izan ere, komunikabideek herritarren informazioa, pentsaera eta ikusmoldea baldintzatzen dute. Baina Vicenc Fiasenek jarraitzen du adierazten, komunikabideek ere *“errukitasun sentimendua, jokabide nahiak eta politika aldaketak”* estimulatu dezaketela (Fisas, 1998: 71-72 orr.). Azken ideia honekin elkartu genezake manipulazioaren ideia. Izan ere, manipulazioaren metodoaren bitartez, komunikabideek gizarteari errealitatea den bezala islatu beharrean, birsortu egiten dute. Askotan, jokabide nahiak eta politika aldaketak sustatuz.

Egia da gizarte aldaketak gauza motelak direla, eta honetan ere, komunikabideek eragin oso handia dute, azken finean, eurentzat interesgarriak edo garrantzitsuak diren errealitateko gaiak hautatzen, aipatzen edo azpimarratzen dituztelako eta ondorioz, komunikabideak modu inkontziente batean, gizartean nahiz pertsonengan, gure egitekoan, pentsatzeko dugun moduan edota sentitzeko dugun moduan eragiten dute (Vidal Beltrán, 2009: 114 or.).

Hori jakinda, komunikabideek gizakien gizarteratzean ezinbestekoak diren faktoreak kontsideratu ditzakegu, bada zenbait autoreek gizartearen eta komunikabideen arteko harremana oso estua dutela adierazten dute: *“existen interdependencias entre la transformación de la comunicación pública y el cambio de la sociedad”* (Martín Serrano, 2004: 1 or.). Ideia honetan ere mintzatzen da Robert Ezra Parkek: *“la sociedad es efecto de la comunicación, es experiencia compartida y pública”* (Berganza Conde, 2000: 91).

Ondorioz, ezingo genuke gizartea ulertu komunikazioa gabe eta ezta ere, komunikabideak gabe. Izan ere, Parkek adierazten duen moduan:

*“(...) aquella posibilita el surgimiento de una experiencia común y publica a todos los miembros que componen una sociedad. Esta experiencia común se convierte, para él, gracias a la comunicación, en una existencia compartida, en la cual cada individuo de la sociedad, de la que es él mismo una parte, participa en mayor o menor grado. Además, gracias a esta vida en común y experiencia compartida, nace las costumbres, las convenciones, las tradiciones, los cere-*

*moniales, nacen las costumbres, el ritual social (...) la opinión pública (...) y las leyes” (Berganza Conde, 2000: 100 or.).*

Beste autore batzuek, hala nola, Jhon Dewey<sup>41</sup>, 1916. urtean adierazi zuen:

*“(...) la sociedad no solo continua existiendo por medio de la trasmisión y de la comunicación, sino que debe decirse justamente que existe en la transmisión, en la comunicación. Existe algo más que un vínculo verbal entre las palabras común, comunidad y comunicación” (Berganza Conde, 2000: 89 or.).*

## **2.1. Genero indarkeria komunikabideetan**

Atal honi hasiera emateko, erabat komenigarria eta aproposa da komunikabideen inguruan Felicidad Loscertalesen hitzak kontuan hartzea:

*“En la sociedad contemporánea hay un espejo importante, el de los medios de comunicación social que dan el reflejo de lo que la realidad es, e incluso, de lo que quiere ser. Ellos certifican, son una especie de notario de lo que hay y de lo que sucede” (Loscertales, 2003: 96 or.).*

2016. urtean, 44 emakume erailak izan ziren gizonezkoen eskutik, beraiekin sentimendu erlazio bat edo ez zutenak. Nahiz eta legeen bitartez, neurri judizialak, osasunezkoak edota asistentzialak martxan jarriz, emakumeak hiltzen jarraitzen dute. Arazo honi aurre egiteko, ondorengo galderak sortzen dira: komunikabideek zein paper jokatu dezakete emakumearen aurkako indarkerian? Eta beraz, benetan zerbait egin dezakete emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean?

Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak 1998. urtean argitaratutako *“Generoa eta komunikabideak. Gomendioak”* izeneko liburuan aipatzen zuen jada, komunikabideek eta publizitateek indarberritu egiten dutela gaur egungo kulturaren ikuspuntu androzentrikoa. Beraz, ez litzateke oker egongo esango bagenu komunikabideek kontziente direla gizartean duten eragin sozialaz, batez ere, emakumearen aurkako indarkeria kasuen salaketetan edota dibulgazioan.

80. hamarkadan, emakumeen erakundeei eta bereziki, mugimendu feministei esker, erabat isilpean ematen ziren kasuak gizartean ikusgarri egiten hasi ziren. Erakunde hauek, komunikabideei “behartu” zieten modu batera edo bestera, emakumeen

---

<sup>41</sup> John Dewey (1859-1952), estatubatuar pedagogoa eta filosofo pragmatiko bat izan zen, XX. mende erdialdeko estatubatuar filosofo garrantzitsuenetarikoa alegia (Wikipedia, John Dewey, 2017).

pairatzen zituzten jipoiak, isekak, gutxiespenak, etab, kontatzera. Hasieran komunikabideak kasu hauek kontatzen hasi ziren, baina Teresa Laguna Paradas, Valentzia Komunitatearen Justizia Auzitegi Goreneko Komunikazio Zuzendariak, adierazi zuen moduan, komunikabideek ez zituzten kasu asko kontatzen:

*“Los medios de comunicación acogieron, al principio con timidez y a la expectativa, noticias y artículos de opinión sobre el problema, pero desde una posición de falsa neutralidad, con desapego. De hecho, durante años siguieron esca-seando las noticias sobre casos concreto que no fuesen mortales (...). Hasta que a mediados de los años 90 la televisión, y sobretudo el formato de magazine femenino, introdujo el maltrato contra la mujer en su menú informativo casi diario”* (Laguna Paradas, 2009: 288 or.).

Idea honen inguruan ere mintzatzen da Pilar Lopez Diezek, non adierazten duen 80. hamarkada arte, emakumearen aurkako indarkeriak ez zuela lortu Espainiako prentsan benetako garrantzia lortzea, izan ere, egunkari oso gutxitan agertzen baitzen honen inguruko kasuak:

*“En la prensa de nuestro país la tematización violencia masculina contra las mujeres pasó de puntillas y disfrazada por las páginas de los periódicos hasta comienzos de los años ochenta; hasta esa época, los periódicos recogían, en muchos casos en los breves de las páginas de Sucesos, la violencia contra las mujeres sólo en el caso en que se produjera la muerte o las lesiones fuesen graves, y se referían al problema como “riña o disputa matrimonial”; hasta fechas posteriores no se encuentra la expresión “malos tratos””* (López Díez, La violencia contra las mujeres en los medios de comunicación, 2002: 12 or.).

Hala eta guztiz ere, Teresa Lagunas Paradasek jarraitzen du adierazten:

*“No obstante en esta fase de incorporación de los medios de comunicación al proceso de sensibilización social las víctimas fueron expuestas de forma innecesaria, forzando el sensacionalismo; se sacaban imágenes de mujeres con el rostro destrozado, llenas de cardenales, en la cama de un hospital con el cuerpo vendado...”* (Laguna Paradas, 2009: 288 or.).

Ondoren, Ana Orantesen kasua gertatu zen, emakumearen aurkako indarkeria-  
ren historian Espainian inflexio puntu bat bezala kontsideratu zen kasua. 1997. urteko abenduaren 4an, Ana Orantes Ruizek, 60 urteko emakumea, arratsaldetan ematen

zen “Canal Sur”-eko “De tardes en tarde” telebista saiora joan zen. Bertan, garai horretan bere senarra zen Jose Parejo Avivar-en eskutik tratatu txarrak jasaten zituela telebistan kontatu zuen. Handik egun batzuetara, abenduaren 17an, bere senar ohiak Ana Orantes hartu eta Cullar Vega (Granada) herrian zuten etxebizitzako patioan aulki batean lotu eta su eman zion konorterik gabe zegoela.

Ana Orastenesen kasua ez zen emakumearen aurkako indarkeriaren lehen kasua izan, baina zenbait ezaugarri izan zituen erabat berezia bilakatu zuena: alde batek, publikoki salatzea ausartu zen, beste emakume askok beldurrerengatik edo lotsarengatik egiten ez zutena; bestetik, komunikabide oso boteretsua bat erabili zuen salaketa hori burutzeko, telebistaren bitartez hain zuzen ere; hirugarrenik, bere erailketak gizartean erabateko erreakzio sortu zuen, emakumeek pairatzen zuten indarkeriaren arazoari ikusgarri eginez.

Kasu honen ondorioz, Gobernuak 1998ko apirilaren 30ean “*Etxeko Indarkeriaren aurkako I. Ekintza Plana 1998-2000*” izeneko ekintza-plana onartu zuen, Zigor Kodeko eta Prozedura Kriminalaren Legean aldaketak ekarriz, batez ere, indarkeriaren biktimei babesa neurriak handituz eta erasotzaileen zigorra gogortzeko (Laguna Paradas, 2009: 289 or.).

Espainiako Soziologia Ikerketa Zentroak (gaztelera, “*Centro de Investigación Sociológica*” (CIS)), 2001. urteko martxoaren 1ean argitaratutako barometroaren<sup>42</sup> txostenean (2411 Ikerketa<sup>43</sup>), etxeko indarkeriaren inguruko zenbat galdera egin zieten 2500 pertsoneri. Bertako datuak aztertzen baditugu, elkarriketatuen %92ek (asko= %37ak; nahikoak= %55ak), azkeneko 6 hilabeteetan, emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko albisteak irakurri, entzun edo ikusi zituztela adierazi zuten.

Urte desberdinetan burutu diren ikerketa anitzetan, %90eko kasuetan, gizarteak aitortzen du komunikabideei esker entzun edo ikusi izan dituztela genero indarkeriako kasuak. Eta komunikabideen barnean, telebista da komunikabide sare oinarrizkoa genero indarkeria kasuen berri izateko (Lorente Acosta, 2009: 57).

Ikerketa desberdinek ondorioztatzen dute, horien artean adibidez, Maria Isabel Menendezek egindakoa, emakumearen aurkako indarkeria kasuak ohikotasunez tra-

---

<sup>42</sup> Espainiako Soziologia Ikerketa Zentroko barometroaren helburua, Espainiako hileroko (abuztuan izan ezik) iritzi publikoa neurtzea da. Horretarako, zoriz aukeratutako 2.500 espainiar inguru elkarriketatzen dira, eta, haien iritziaz gain, analisisirako informazio sozial eta demografiko zabala biltzen da. Gehiago ikusi nahi bada, joan iturri honetara: [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11\\_barometros/index.jsp](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11_barometros/index.jsp)

<sup>43</sup> Gehiago ikusi nahi bada, joan iturri honetara: [http://www.cis.es/cis/opencms/-Archivos/Boletines/27/BDO\\_27\\_Violencia.html](http://www.cis.es/cis/opencms/-Archivos/Boletines/27/BDO_27_Violencia.html)

tatu ahal izateko, albisteak direla genero erabilgarriena kazetaritzan (Menéndez Menéndez, 2010: 70 or.). Gainera, autore batzuentzat, genero indarkeria kasuak, erasoak nahiz erasotzaileen atxiloketak, ohikotasunez egunkariko albisteen bitartez indarka sartzen dira (Sanz, 2006: 152 or.).

Gizartearen pertzepzioa ideia honen ingurutik doa, izan ere, Espainiako Soziologia Ikerketa Zentroak (gaztelaraz, “*Centro de Investigación Sociológica*” (CIS)), 2012. urteko azaroaren 19an argitaratutako barometroaren<sup>44</sup> txostenean (2968 Ikerketa<sup>45</sup>), “*genero indarkeriaren pertzepzioa gizartean*” izenburupean, elkarrizketatuak izan ziren 2580 pertsonetatik, %66,3ek adierazi zuten gaur egun emakumearen aurkako indarkeria kasuak gehiago entzuten zirela, honen inguruko albiste gehiago argitaratzen zirelako. Aldiz, %28,1ak pentsatzen zuten emakumearen aurkako indarkeria kasuen kopurua handitu egin zirela.

Ondorioztatu daiteke, azkeneko 16 urteetan, komunikabideetan genero indarkeria kasuen inguruko albisteak hazkunde nabari bat egon dela, gizartearen sentsibilizazio-maila handituz.

Hala eta guztiz ere, lan asko egiteko geratzen da oraindik, izan ere, Espainiako Soziologia Ikerketa Zentroak argitaratutako 2016. urteko azaroaren 1eko azken txostenean (3159. Ikerketa<sup>46</sup>), gaur egun Espainian dauden arazoan artean, emakumearen aurkako indarkeriak 12. lekuan dago, %1,1arekin. Honen arrazoia, 2005. urtean, “*Reina Sofía Arte zentro Museo Nazionalak*” eginiko ikerketako datuetan oinarrituz, inkesta pasa zuten %98,5eko pertsonak, emakumearen aurkako indarkeria kasuen berri zutela adierazi zuten, baina heren batek bakarrik aipatzen zuten ez zuela ezer, “gai pribatuzat” kontsideratzen zutelako (Bandrés Goldaraz, 2011: 121 or.). Beraz, komunikabideek paper garrantzitsu bat jokatu dezakete gizarteak indarkeriaren inguruan duten pentsamoldea aldatzeko, hau da, bikotekidearen barne-arazoa ez dela eta ondorioz, bikotekidea ez dela arazoa konpondu behar duten bakarrik.

Elena Bandrés Goldarazek bere artikuluan adierazten duen hitzekin bat etorriko litzateke ideia hau: “*El mal uso de estos mecanismos convierte el drama en ficción,*

---

<sup>44</sup> Espainiako Soziologia Ikerketa Zentroko barometroaren helburua, Espainiako hileroko (abuztuan izan ezik) iritzi publikoa neurtzea da. Horretarako, zoriz aukeratutako 2.500 espainiar inguru elkarrizketatzen dira, eta, haien iritziaz gain, analisisirako informazio sozial eta demografiko zabala biltzen da. Gehiago ikusi nahi bada, joan iturri honetara: [http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11\\_barometros/index.jsp](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11_barometros/index.jsp)

<sup>45</sup>Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara:

[http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14086](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14086)

<sup>46</sup>Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara:

[http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14312](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14312)

con la consiguiente desaparición de todos los mecanismos de condena y de censura social” (Bandrés Goldáraz, 2011: 132 or.).

## 2.2. Komunikabideen kontsumoaren inguruko datuak

Azken urteetan, herritarrek komunikabide sare desberdinen inguruan egiten duten erabilpena aldatzen joan da. Garai batean, eguneroko albisteak egunkariaren<sup>47</sup> bitartez ezagutzen ziren. Denborarekin, egunkariak irratia eta telebistaren konpentziarekin topatu zen.

1965. urtean, George Gallupek inkesta bat pasa zuen ipar-ameriketako herritarrei eta ondorioztatu zuen, ipar-ameriketako herritarren %71ak, egunkari bat irakurri zuela egun bat lehenago, %58ak, berriz, irratia entzun zuela egun bat lehenago eta %55ak, aldiz, telebista ikusi zuela egun bat lehenago. 25 urte beranduago, inkesta berdina pasa zen eta lortu ziren datuak erabat desberdinak izan ziren: egun bat lehenago, pertsonen %53ak irratia entzun zuen, %53ak telebista ikusi zuen eta %43ak, berriz, egunkaria irakurri zuen (Parrat Fernández, 2010: 135 or.).

Espainiako Soziologia Ikerketa Zentroak, 2000. urteko uztailaren 13an argitaratutako barometroaren txostenean (2396. Ikerketa<sup>48</sup>), egunerokotasunean espainiarrek telebista ikusteko ohituren inguruko galderak egin zituzten. Elkarrizketatutako 2493 pertsonetatik, %79ak telebista egunero edo ia egunero ikusten zuen, ordu bat edo bi ordu bitartean (%35,5ak) eta gehienbat, albistegiak ikusten zituzten (%66,9). Elkarrizketatutako pertsona guztien %2,8ak bakarrik ez zuen telebista ikusten.

Ikerketa berdinean, irratia inguruko galderak egin ziren, eta 2493 pertsonetatik, %45,5ak (1641 pertsona) irratia entzuten zuen egunero edo ia egunero. Horietatik, %48,1ak albisteak entzuteko erabiltzen zuen irratia eta %34,2ak, berriz, ez zuen irratia entzuten.

---

<sup>47</sup> Historikoki informazioa helarazteaz arduratzen den komunikabide oso garrantzitsua prentsa edo egunkaria izan da, irratiarekin batera. Parkentzat, egunkariak dimentsio anitzak dituen, perspektiba desberdinetatik definitu daiteke: "a) Egunkaria ezagutzaren dibulgatzailea da: "Lo que los maestros populares hicieron por Atenas en el periodo de Sócrates y Platón, lo hace la presan en los tiempo modernos por el hombre común; b) Egunkari moderno, komertziala den prentsa bat da eta saltzen duen ongia, albisteak dira: "El redactor es el filósofo convertido en comerciante"; c) Egunkariak, "Gizarte Handia" (Gran Sociedad) buruzera eragiten du; d) Egunkaria, "balore publizitarioak" sortzeko baliabidea izan daiteke (Berganza Conde, 2000: 233 or.).

<sup>48</sup> Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara:

[http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=1381](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=1381)




Egunkariaren inguruan ere galderak egin ziren eta 2490 pertsonetatik, %26,3ak (655 pertsona) egunero edo ia egunero egunkaria irakurtzen zuen. %38,8ak, aldiz, ez zuen egunkaria inoiz irakurtzen.

2001. urteko irailaren 23ean argitaratutako barometroaren txostenean (2429. Ikerketa<sup>49</sup>), espainiarrak Internetaren inguruan zuten jakintzaren inguruko galderak egin ziren, non 2488 pertsonetatik, %24ak, Interneta zer zen bazekien eta erabiltzen zuen, %58ak, berriz, Interneta zer zen bazekien, baina ez zuen erabiltzen, eta %18ak, aldiz, ez zekien zer zen Interneta.

2003. urteko irailaren 23ean argitaratutako barometroaren txostenean (2537. Ikerketa<sup>50</sup>), espainiarrak paperezko prentsa eta prentsa digitala irakurtzeko ohituaren inguruan galdetu zieten. Paperezko prentsari dagokionez, prentsa irakurtzeko ohituen inguruko galderak egin ziren, non elkarrizketatu ziren 2489 pertsonetatik, %33ak irakurtzen zuen egunero eta orokorrean, prentsa irakurtzeko ohitura zuten 2096 pertsonetatik, %39ak egunero irakurtzen zuen. Prentsa digitalaren kasuan, 1852 pertsonetatik %4ak bakarrik irakurtzen zuen egunero eta %86ak, aldiz, ez zuen inoiz egin.

Komunikabideen Ikerketa Elkarteak (gaztelaniaz, “Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación” (AIMC)), komunikabide mota desberdinen 2008-2016. urte bitarteko eboluzioa aztertu zuen<sup>51</sup> (ikus 9. Grafikoa).

### 9. Grafikoa. Komunikabideen eboluzioa 2008-2016<sup>52</sup>



<sup>49</sup> Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara:

[http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=1429](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=1429)

<sup>50</sup> Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara:

[http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1\\_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=3310](http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=3310)

<sup>51</sup> Gehiago irakurri nahi bada, joan iturri honetara: <http://www.aimc.es/-Datos-EGM-Resumen-General-.html>

<sup>52</sup> Grafikoa lanerako berriaz sortua izan da eta datuen iturria ondorengoa da: <http://www.aimc.es/Nuevo-articulo.1881.html>

Bertan, ikusi daiteke egunero egunkaria edo prentsa irakurtzen duten pertsonen portzentajea beherakada bat eman duela nabarmenki. Telebista ikusten duten pertsonen inguruan esan daiteke, beherakada txiki bat eman dela, 2008. urtean %89ko puntuazioarekin eta 2016. urtean, berriz, %87,5eko puntuazioa lortuz. Aldiz, erabat adierazgarria den komunikabide mota, Internetaren gorakada izan daiteke. Antzeman daitekeen moduan, egunero Interneta egunkaria edo bestelako aldizkariak irakurtzera sartzen diren pertsonen kopurua %71,9ra iritsi da gaur egun (2008. urtean, bakarrik %29,9koa izan zen).

Datuen arabera, hartzailen adin-tartea aztertzen badugu, pertsona nagusiek, 55-64 urte bitarteko adinduak, %31,7ak, nahiago izaten dute egunkaria edo prentsa irakurtzea. Gainera, 55-64 urte bitarteko pertsonak dira gaur egun, telebista gehien kontsumitzen dutenak (%91k) eta Interneta da gutxien erabiltzen dutenak (%65,1ak). 65 urte edo gehiagoko pertsonen ondoren (%31,8ak), 20-24 urte bitarteko gazteek daude, non %19,4ko puntuazioarekin, nahiago dute egunkaria edo prentsa irakurtzea<sup>53</sup>. %83,3ak, telebista ikusten dute eta Interneta erabilerari dagokionez, 20-24 urte bitarteko gazteak dira, 25-34 urte bitarteko adin tartearekin aldentuz, Interneta gehien erabiltzen dutenak.

Ondorioztatu daiteke, alde batetik, garai batean gehien kontsumitutako komunikabide sareak, adibidez, egunkaria edota prentsa zirela, eta ohitura hori gaur egun erabat aldatzen ari dela. Ildo horretatik, esan daiteke informazio eskuratzeko telebista gaur egun gehien erabiltzen den komunikabide sarea dela, haien erabiltzaile kopurua konstante mantentzen delako. Adierazi daiteke beraz, telebistan ikusten dena erabateko inpaktua izaten duela gizartean.

Bestetik, komunikabideei buruz hitz egiterakoan Interneta aipatzea ezinbestekoa da. Izan ere, lehen adierazi dugun moduan, Interneta komunikabide sare garrantzitsuenetariko bilakatzen ari da gure gizartean, izugarrizko aldaketak sortuz. Adibidez, Internetaren erabileraren gorakada eman zenean, tendentzia berri bat jaio zen egunkariko albisteak modu digital batean ikustekoarena, paperezko bertsioa erabili beharrean. Hori horrela, 2011. urtean, Komunikabideen Ikerketa Elkarteak, *“La Prensa: Digital vs Papel. 2011”* izendupean argitaratutako txostenean ondorioztatu zuen, %32ak egunero

---

<sup>53</sup> 2008. urtean, Complutense Unibertsitateko 400 ikasleri egindako inkestetan oinarrituta, unibertsitateko gazteek gaur egun egunkariko edo prentsako albisteak irakurtzen pasatzen zuten denboraren inguruan, ondorioztatu zen egunkaria egunero irakurtzen zuten gazteek, batez beste 30 minutu pasatzen zituztela. Gainera, ikusi zen, adinarekin, batez besteko denbora ere handitzen zela: 21 urterekin, batez besteko 34 minutu pasatzen zituzten; 22 urterekin, batez beste 36 minutu; 23 urterekin, batez beste 39 minutu; eta 24 urterekin, batez beste 40 minutu (Parrat Fernández, 2010: 141).

paperezko nahiz bertsio digitala irakurtzen zuela. Zifra hori, %59ra handitzen zen, baldin eta, azkeneko 30 egunak kontuan hartuz gero.

Aipatu daiteke gazteak direla teknologia berriak erabiltzen dituztenak, ohitura berriak hartzea eta barneratzea ez zaielako asko kostatzen. Beraz, egun indarrean dagoena Interneta dela baieztatu dezakegu, argi eta garbi. Izan ere, gehien eboluzionatu edo aurreratu den komunikabidea sarea delako. Hamarkada bakar batean baino ez, ospetsua da mundu osoan zehar eta modu konstante eta abailgarri batean haziz jarraitzen doa pixkanaka-pixkanaka. Laburbilduz, esan daiteke ezinbestekotzat jotzen dugula gure egunerokotasunean.

### **2.3. Komunikabideen araudia genero indarkeriaren trataeran**

Komunikabideek, aipatu dugun bezala, botere eta eragin handia dute gizartean, iritziak eta pentsaerak moldatzeko nahiz sortzeko gaitasuna dute eta. Hori dela eta, komunikabideek gizartearen lekuko diren aldetik, legeetan aurreikusiak daude komunikabideek burutu behar dituzten praktika egokiak, emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko albisteetan.

Pertsonen oinarrizko eskubideak eta komunikabideen ekintzak arautzeko, lege asko aurreikusten dira, bakoitzak maila eta izaera desberdina edukiz (Vidal Beltrán, 2009: 96). Hori horrela, atal honetan, estatu mailan aurreikusten diren araudiari buruz mintzatuko gara, komunikabideek genero indarkeriarekin zerikusia duten edozein kasu tratatzerako orduan bete behar dituzten eginkizun eta printzipioetan zentratuz.

Hasteko, Estatuaren titulartasuneko irratiaren eta telebistaren zerbitzu publikoa arautzen duen 17/2006 Legea, ekainaren 5ekoa, Estatuaren Titulartasuneko Irrati eta Telebistarenak arautzen duen aipatu behar dugu. Bertan, telebistak eta irratiak zerbitzu publiko modura, 3.2.a). eta 3.2. k). artikuluetan aipatzen diren funtzioak bete behar dituzte:

*“2. En el ejercicio de su función de servicio público, la Corporación RTVE deberá: a) Promover el conocimiento y difusión de los principios constitucionales y los valores cívicos...; k) Fomentar la protección y salvaguarda de la igualdad entre hombre y mujer, evitando toda discriminación entre ellos”.*

Ondorioz, 1/2004 Lege Organikoan, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa aipatu beharra dago. Aurreko orrialdeetan adierazi dugun moduan, lege hau handinahi handiko legea da, izan ere, gizartean

ren alderdi askori erreferentzia egiten die genero indarkeriari aurre eginez. Hori horrela, 1/2004 Lege Organikoaren bitartez, komunikabideei atala bat eskaini egiten dio, genero indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko ideiarekin neurri desberdinak ezarriz, lege honen 2. artikuluan aipatzen den moduan: *“Prebentzioaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko neurriak indartzea; horretarako botere publikoak tresna eragingarriekin hornituko dira, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen, osasunaren, publizitatearen eta komunikabideen esparruan”*. Hori horrela, artikulua honetan adierazten den modura, komunikabideak tresna ezinbestekoak dira genero indarkeria gizartetik errotik kentzeko.

Beraz, 1/2004 Lege Organikoaren 13. eta 14. artikulua aipatu behar dira, non komunikabideen arloan, Administrazio Publikoari zenbait eginkizun betearaztea behar izan zaie, horrela idatzia geratuz:

**-13. Artikulua. Komunikabideak:** *“1. Administrazio publikoek zainduko dute legeria oso-osoan betetzea, oinarrizko eskubideak babes daitezen, eta arreta berezia jarriko dute, indarreko legeriarekin bat etorriz, gizarte-komunikabide guztietan ezabatzeko emakumeen desberdintasun-egoerak sorraraz ditzaketen jokabidea”*. Artikulu honen bigarren zatian, Administrazio publikoak, autorregulazio kodeen inguruko aipamena egiten da: *“2. Administrazio publikoak autoarauketa-akordioak sustatuko ditu; halako akordioek, prebentzio kontroleko eta eztabaidak epaiketarik kanpo konpontzeko mekanismo eragingarriak badituzte, publizitate legeria betetzen lagunduko dute”*.

**-14. Artikulua:** *“Komunikabideek sustatuko dute gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna babestea eta zaintzea, euren arteko edozein bereizkeria saihestuz. Emakumearen aurkako indarkeriaren gaineko informazioak hedatzean bermatuko da, kasuan kasuko informazio objektiboaren bidez, indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme-alaben giza eskubideak, askatasuna eta duintasuna defendatzea. Berreziki, kontu handiz jardungo da informazioaren tratamendu grafikoari dagokionez”*.

Komunikabide guztiei egindako erreferentzia hauek, 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, zehazten dira, III. Tituluan hain zuzen ere, *“Berdintasuna eta komunikabideak”* izeneko atalean. Bertan, informazioz helarazteaz arduratzen diren titulartasun publikoko nahiz pribatuko gizarte-komunikabideek (RTVE korporazioa eta EFE agentzia) bete behar dituzten beharrak aurreikusten dira. Ondorioz, komenigarria da artikulua hauek aipatzea:

**-36. artikulua. Berdintasuna titulartasun publikoko gizarte-komunikabideetan:** *“Titulartasun publikoko gizarte-komunikabideek zainduko dute emakumeen eta gizonen*

*inguruan gizartera helarazten den irudia berdintasunezkoa, anitza eta estereotipatu ga-bea izatea, eta sustatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren ezagutza eta zabalkundea”.*

**-37. artikulua. RTVE korporazioa:**

*“1. RTVE korporazioak, zerbitzu publiko gisa bete behar duen eginkizunean, hurrengo helburuak izango ditu bere programazioan:*

*a) Modu egokian islatzea emakumeen presentzia gizarte-bizitzako esparru desberdinetan.*

*b) Hizkera sexistarik ez erabiltzea.*

*c) Autoarauketaren bidez berdintasun-printzipioaren edukia helarazteko jokabide-kodeak egitea.*

*d) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta genero-indarkeria ezabatzeko instituzio-kanpainekin elkarlanean aritzea.*

*2. RTVE korporazioak sustatuko du emakumeak sartzeari zuzendaritza- eta lanbide-ardurako postuetan. Era berean, emakumeen elkarte eta taldeekin harremanak sustatuko ditu, horiek komunikabideen esparruan dituzten beharrianak eta interesak identifikatzeko”.*

**-38. artikulua. EFE agentzia:**

*“1. EFE agentziak, bere jarduerak gauzatzean, zainduko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa errespetatzea eta, bereziki, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta bere jardunean hurrengoak izango ditu helburu:*

*a) Modu egokian islatzea emakumeen presentzia gizarte-bizitzako esparru desberdinetan.*

*b) Hizkera sexistarik ez erabiltzea.*

*c) Autoarauketaren bidez berdintasun-printzipioaren edukia helarazteko jokabide-kodeak egitea.*

*d) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta genero-indarkeria ezabatzeko instituzio-kanpainekin elkarlanean aritzea.*

*2. RTVE korporazioak sustatuko du emakumeak sartzeari zuzendaritza- eta lanbide-ardurako postuetan. Era berean, emakumeen elkarte eta taldeekin harremanak sustatuko ditu, horiek komunikabideen esparruan dituzten beharrianak eta interesak identifikatzeko”.*

**-39. artikulua. Berdintasuna titulartasun pribatuko gizarte-komunikabideetan:**

*“1. Komunikabide guztiek errespetatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, edozein bereizkeria-mota saihestuz.*

*2. Administrazio publikoek sustatuko dute komunikabideek autoarauketa-akordioak egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloko legeria betetzen laguntzeko;*

*akordio horietara bilduko dira komunikabideetan gauzatzen diren salmenta- eta publizitate-jarduerak ere”.*

**-40. artikulua. Ikus-entzunezkoen agintariak:** *“Ikus-entzunezko komunikabideek euren betebeharrak gauzatzen dituztela zaintzen duten agintariak bidezko neurriak hartuko dituzte, euren arauketarekin bat etorriz, emakumearen tratamendua bat etor dadin konstituzio-printzipio eta –balioekin”.*

*Eitbren* kasuan, Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorra hartu behar dugu kontuan, non lege honen 4.2. artikuluan ondorengoa aurreikusiz:

*“La comunicación audiovisual nunca podrá incitar al odio o a la discriminación por razón de género o cualquier circunstancia personal o social y debe ser respetuosa con la dignidad humana y los valores constitucionales, con especial atención a la erradicación de conductas favorecedoras de situaciones de desigualdad de las mujeres”.*

## ATAL ENPIRIKOA

### III. KAPITULUA – HELBURUAK, METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

#### 1. Helburuak

Lehen aipatu dugun moduan, lan honetan komunikabideek emakumearen aurkako indarkeria nola tratatzen duten aztertzea izango da ideia nagusia. Zergatik? Gaur egun emakumearen aurkako indarkeriak gure gizartearen nahiz mundu osoko gizartee-tan, arazo larria baita. Hori horrela, komunikabideek gai honen inguruan egiten duten tratamendua aztertu nahi da. Beraz, ideia hori kontuan harturik, lan honen helburuari begira, hiru helburu orokor planteatu dira:

1. Komunikabideetako kode deontologikoen eta autoerregulazio-kodeek diotena aztertzea.
2. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan lanean jarduten duten aditu, profesional eta aktibistek duten pertzepzioa jasotzea.
3. Albisteen corpus txiki bat oinarri hartuta, Gipuzkoan gehien saltzen diren egunkariak epe jakin batean gaiari ematen dioten trataeraren analisi konparatiboa egitea.

Jarrain azaltzen da helburu bakoitza lortzeko erabilitako metodologia eta baliabideak.

#### 2. Metodologia eta baliabideak

##### 2.1. Lehenengo helburua

Komunikabideetako kode deontologikoen eta autoerregulazio-kodeek aztertzeko, ondorengo bost autoerregulazio-kodeak aukeratu ziren:

- Irrati eta Telebista Institutu Ofizialak (RTVE) eta Emakumearen Institutuak 2002. urtean sortutako manuala: *“Manual de Urgencia sobre el tratamiento informativo de la violencia contra las mujeres, 2002”*<sup>54</sup>.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2016. urtean sortutako kodea: *“Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa”*<sup>55</sup>.

<sup>54</sup> Iturria: [http://www.rtve.es/files/1013-184-FICHERO/DossierMUJER\\_VIOLENCIA06.pdf?download=1](http://www.rtve.es/files/1013-184-FICHERO/DossierMUJER_VIOLENCIA06.pdf?download=1)

<sup>55</sup> Iturria: [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas\\_medios\\_intro/eu\\_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf)

- *Público* egunkariak 2008. urtean sortutako manuala: “*Decálogo para informar sobre violencia de género*” autoerregulazio kodea<sup>56</sup>.
- Bartzelonako Udaletxeko Emakumeen Sailak (Regidoria de Dones de l’Ajuntament) eta Kataluniako Kazetarien Elkartek (Col·legi de Periodistes de Catalunya) 2009. urtean sortutako manuala: “*Recomendaciones sobre el tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación*” autoerregulazioa<sup>57</sup>.
- Arrasateko Berdintasun Sailak eta Goiena Komunikazio Taldeak 2015. Urtean sortutako manuala: “*Komunikazio Parekiderantz. Kazetarientzako eskuliburua*”<sup>58</sup>.

Lehenbizi, kode hauek aukeratzearen arrazoi nagusia izan da, alde batetik, gure testuinguruan dauden kodeei garrantzi gehiago eman nahi izatea eta horregatik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak argitaratuko autoerregulazio-kodea aukeratu da. Bestetik, kontuan izan dugu tokiko komunikabideek ere emakumearen aurkako indarkeriaren tratamenduaren inguruan ere atxikitzen direla eta horregatik, Goiena Komunikabide Taldeak sorturiko kodea aipatzea erabaki da, izan ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Begira batzordearen bidez, sorturiko kode deontologikoan oinarritzen baita.

Honetaz gain, gure testuinguruan indarrean dauden kodeaz gain, ezagutu nahi izan genuen ea beste kode gehiago aurreikusten ziren. Eta Internetaren bitartez ikusi genuen moduan, Espainian komunikabide arloan emakumearen aurkako indarkeriari buruzko nahiko kode aurreikusten zirela, eta guzti horien artean aukeraketa egiterako orduan, kontuan izan dugu autoerregulazio-kode hauek indarrean sartu zirenetik, gure ikuspuntutik, entzunenak eta osatuenak izan zirenak. Horregatik, *Público* egunkariko kodea, Irrati eta Telebista Institutu Ofizialak eta Emakumearen Institutuko kodea eta Bartzelonako Udaletxeko Emakumeen Sailak eta Kataluniako Kazetarien Elkarteko kodea aukeratu dira.

Helburua hau lortzeko, erabilitako metodologia ondorengoa izan da: kodeen analisia egiterako orduan, hauen irakurketa orokor bat egin zen, norik eta noiz sortua eta antzeko informazioa emanez eta kodeetan emakumearen aurkako indarkeriari buruzko trataera egokia egiteko aurreikusten diren puntu nagusienak aipatuz. Hauen arteko konparaketa egiteko, taula konparatibo bat erabili da, “6. *Autoerregulazio kodeen*

<sup>56</sup> Iturria: <http://www.publico.es/sociedad/prensa-autocritica-tratamiento-violencia-machista.html>

<sup>57</sup> Iturria: [http://www.cac.cat/pfw\\_files/cma/actuacions/Autorregulacio/Recomanacions\\_violencia\\_masclista\\_es.pdf](http://www.cac.cat/pfw_files/cma/actuacions/Autorregulacio/Recomanacions_violencia_masclista_es.pdf)

<sup>58</sup> Iturria: [http://www.arrasate.eus/es/files/emakume-txokoa/2015/Genero%20trataera%20eskuliburua\\_ok.pdf](http://www.arrasate.eus/es/files/emakume-txokoa/2015/Genero%20trataera%20eskuliburua_ok.pdf)



*arteko konparaketa eta ondorioak*” atalean aurkitzen dena, ondorengo puntuez osatua dagoena:

- Emakumearen duintasunaren errespetua.
- Biktimaren eta erasotzailearen tratamendua.
- Erasotzailearen errugabetasun-printzipioa.
- Irudien tratamendua albisteetan.
- Erasotzailearen nahiz biktimaren zigorren eta prozesu judizialen aipamena.
- Datuen, estatistikaren erabilpena.
- Estereotipoen eta topikoen erabilera informazioan.
- Testigantzen eta informazio iturrien hautaketa.
- Komunikazioko profesionalen prestakuntza sustatu.
- Hobesten dituzten terminologia desberdinak.

Beraz, ezaugarri horiek kontuan izanda, bost kodeak aztertu dira beraien puntu nagusienetan horien inguruko aipamena egiten zuten ala ez ikusteko.

Egia da, lan honetan badagoela subjektibitateko aukera bat, azken batean, esparru hori sakonki ezagutzen ez dugunez eta lan hau, esparru horretan sartzeko lehen ahalegina denez, geratu daiteke gida edo kode esangarrienen bat ahaztu izatea edota azterketarako garrantzitsua den ezaugarriren bat kontuan hartu ez izatea. Gainera, kontuan izan behar dugu, lanak muga batzuk dituela eta ondorioz, ez dira atzerriko kodeak aukeratu (agian, kontuan hartzekoak izan daitezkeenak).

## **2.2. Bigarren helburua**

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan lanean jarduten duten aditu, profesional eta aktibistek duten pertzepzioa jasotzeko, ondorengo lau elkarrizketa egin ziren:

- Irene Ormazabal, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailean berdintasun teknikaria eta Donostiako Emakumeen Etxeko bazkidea.
- Raquel Raposo Acebedo, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Formakuntza eta Programa saileko arduraduna.
- Gorka Álvarez eta Alazne Corral, AntzerkiZ-eko partaideak.

- Lucia Martinez Odriozola, Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio irakaslea, BEGIRA batzordeko<sup>59</sup> kidea eta komunikabideek emakumeari ematen dioten trataera ikertzen duen aditua.

Elkarrizketa hauen aukeraketa, batez ere, erabilgarritasunaren eta gertutasunaren arabera egin dira. Beti ere, helburua izanik, gaian adituak eta ez hain adituak ziren pertsonekin kontaktuan jarri. Horrek aukera eman digu pertsona bakoitzaren ikuspuntu jasotzea. Beraz, erakunde eta elkarteak aukeratzea erabaki zen, bakoitzak bere esparrutik emakumearen aurkako indarkeriaren inguruan nola lan egiten zuten jakiteko, izan dezaketen mugak ezagutzeko, eta beraien iritzia jasotzeko. Baina honetaz gain, aktibista baten ikuspuntua ere jakitea oso interesgarria iruditzen zitzaigun, izan ere, aktibisten bitartez emakumearen aurkako indarkeriaren arloan buila asko egin daiteke, baina agian, gero hori ezin da instituzionalizatu.

Helburu hau egiteko, metodologia eta baliabide hauek erabili ziren: lehenik eta behin, erabilitako baliabidea elkarrizketarako gidoi bat izan zen, aldezturik tutorearekin adostutakoa (beti ere, kontrastea eginda kontuan izan da zein ziren gure helburuak). Metodologiari dagokionez, elkarrizketa hiru ataletan banatu ziren: sarrera, genero indarkeria eta komunikabideak eta komunikabideak eta kriminologia.

“Sarrera” izeneko atalean, elkarrizketatuen inguruko informazio eskuratzea zen helburua, ondorengo galderen bitartez:

- Nor zara? Zertan egiten duzu lan? Noiz hasi zinen lanean? Zergatik?
- Zertan egiten du lan? Nola egiten duzue lan?
- Ze kezka dituzue emakumeen aurkako indarkeria inguruan? Ze politika dituzue honen inguruan?
- Badago zuen elkartearen ikerketa espezifikoren bat emakumeen aurkako indarkeria eta komunikabideei dagokionez?

Bigarren atalari dagokionez, “*genero indarkeria eta komunikabideak*”, gure laneko helburuarekin bat etortzen ziren galderak egin ziren, adibidez ondorengoak:

---

<sup>59</sup> BEGIRA, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordea da. Bere zereginen artean aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea dago, publizitate eta komunikazioaren eremuetan sexuaren ziozko bereizkeria mota oro desagerrarazteko. Oro har, komunikabide publikoek zabalduko edukiek kode etikoak izan eta aplikatu dituzaten sustatzen du, eta komunikabide pribatuekin akordioak egitea bultzatzen du. BEGIRA batzordearen inguruan gehiago irakurri [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas\\_medios\\_intro/eu\\_def/adjuntos/begira.zer\\_da.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.zer_da.pdf)

- Zure ustez, zein maiztasunekin heldu diote komunikabideek emakumeen aurkako indarkeriari? Gaur egun gehiago edo gutxiago egiten dutela uste duzu? Eboluzioaren bat ikusi da honetan?
- Nola tratatzen dutela uste duzu komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria?
- Zein iritzi duzu komunikabideek dituzten emakumeen aurkako indarkeria tratatzeko autoerregulazio kodeen inguruan?
- Komunikabideek, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan benetako kezka dutela uste duzu? Edota bakarrik kasuak ematen direnean?

Azkeneko atalean, “komunikabideak eta kriminologia” deiturikoa, ondorengo galderak egin ziren:

- Uste duzu beharrezkoa dela komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria albisteak ikustea horrelako kasuak ematen direla sinesteko?
- Komunikabideek genero indarkeriari buruzko albisteak etengabe helarazten badituzte, arriskua dagoela uste duzu gizarteak informazio hauetara erabat egokitzeko eta ondorioz, erabat arriskutsua ez den arazo batean aurrean gaudenaren pertzepzioa gizartean bilakatzeko?
- Komunikabideek genero indarkeriaren inguruko albisteak, imitazio efektu bat eragiten dutela uste duzu?
- Albiste positiboak (neurrien inguruan hitz egiteak, indarkeria pairatu duten emakumeen inguruan hitz egitean, etab.) hilketen gutxiagotze bat ekarri litzatekeela uste duzu?

Azkenik, elkarrizketa guztiak transkribatu egin ziren, “2. Eranskina. Elkarrizketak” izeneko atalean ikusi daitekeen moduan. Transkribapena ez da hitzez hitzezkoa izan, hau da, transkripzio egokitu bat egin da, irakurleak arazorik gabe diskurtsoa jarraitu dezan.

### **2.3. Hirugarren helburua**

Albisteen corpus txiki bat egiteko helburuarekin, ondorengo lau egunkari hauek hartzea erabaki genuen: *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Berría* eta *Gara*.

Dakigunez komunikabideek gizarte iritzian inpaktua dute baina, betiere, bakoitzaren indarraren arabera. Hori dela eta, lan honetan erabaki da Gipuzkoan difusio handiena duten komunikabideak aztertzea. Ondorioz, hauen aukeraketa egiterako ga-

raian, Gipuzkoan mailan gehien saltzen ziren egunkariak aztertu ziren eta dauden datuen arabera, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Berria* eta *Gara* dira gehien saltzen diren egunkariak, EGMko ikerketak adierazten duen moduan<sup>60</sup>.

Metodologiari dagokionez, genero indarkeriaren gaiari lau egunkariak ematen dioten trataeraren analisi konparatiboa egiteko epealdia, otsailaren 14tik apirilak 13ra bitartean egin da.

Hustuketa egiteko, egunero lau egunkarien paperezko nahiz interneteko web-orrialdeko bertsioak arakatu dira: *Diario Vasco* (<http://www.diariovasco.com/>), *Noticias de Gipuzkoa* (<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/>), *Berria* (<http://www.berria.eus/>) eta *Gara* (<http://www.naiz.eus/hemeroteca/gara>).

Bildutako albiste guztien kopia oso bat *Word* dokumentu batean gorde zen eta horrez gain, *Excel* dokumentu bat sortu zen, “3. *Eranskina. Corpusaren osaera eta xehetasunak*” atalean ikusi daitekeen moduan, ondorengo zutabeak dituen:

- Egunkaria
- Data
- Kodea
- Hitz-kopurua
- Saila
- Testu-mota
- Gai orokorrak
- Gai zehatzak
- Goiburu nagusiak
- Hitz-gakoak

Bestetik, hirugarren helburua erdiesteko, beste lan bat burutu zen: gure corpusaren analisia egitea ondorengo hiru atalak aztertuz *WordSmith*<sup>61</sup> (testu corpusen analisia egiten duen programa) eta *CopyCatch Gold 2*<sup>62</sup> (testuen alderaketa egiteko programa) izeneko baliabideen laguntzarekin eta baita ere, Auzitegiko Hizkuntzalaritzaren (Linguistika Forentsea<sup>63</sup>) teknikak erabiliz, hain zuzen ere, Hizkuntzalaritza Konputazi-

---

<sup>60</sup> Iturria: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2015/04/16/sociedad/el-egm-nos-da-una-subida-del-2963-respecto-a-la-misma-ola-de-2014>

<sup>61</sup> Programa hau, “*LEXICAL ANALYSIS SOFTWARE LTD.*” izeneko enpresarena da eta tutoreak honen lizentzia dauka. Iturria: <http://www.lexically.net/wordsmith/>

<sup>62</sup> Programa hau, “*CFL Software Development*” izeneko enpresaren softwarea da eta tutoreak honen lizentzia bat dauka. Iturria: <http://www.cflsoftware.com/>

<sup>63</sup> Linguistika Forentsearen inguruan gehiago irakurri nahi bada, joan Gironako Unibertsitateak Linguistika Forentsearen inguruan duen masterraren informazioa ikustera ondorengo iturriaren bitartez: <http://www.fundacioudg.org/master-en-ling%C3%BCistica-forense-y-peritaje-ling%C3%BCistico-on-line.html>

onalaren tresnak eta metodologiak baliatzen dituztenak. Tresna hauei esker, hitz horien agerpenen esangarritasunaren analisi estatistiko bat egiten da. Hori kontuan izanik, ondorengo analisiak egin ziren:

1. Corpus horretako testuetan dauden hitzen zerrenda osoa lortzea.
2. Egunkari bakoitzari dagokion azpi-corpusean agertzen diren hitz ga-koak eta hitz eskusiboak identifikatzea.
3. Hitzen konkordantziak bilatzea.

Hiru analisi hauek egiteko erabilitako tresnak eta pausuak ondorengoak izan ziren:

1. *WordSmith* programaren bitartez, corpus osoaren eta azpi corpus bakoitzaren hitz-zerrendak eta hitz horien esangarritasun estatistikoaren indizeak atera ziren. Hau da adibidez, *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitz-zerrenda eta hitz horien datu estatistikoaren *Excel* dokumentuaren ikuspegi bat:

#### 10. Irudia: *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitz-zerrenda<sup>64</sup>

WordSmith Tools -- 1/5/2017									
Basic Statistics									
1	Total	19422	50	7978	88644				
2	Max	1335	3	9	100				
3	Min	1	1	1	11				
4	Mean	3.53	0.31	1.48	16.50				
5	Std	25.26	0.95	1.00	11.14				
6	1st	58.91%	58.91%	26.94%	26.94%				
10	2nd	13.40%	13.40%	16.07%	16.07%				
11	3rd	7.86%	7.86%	12.42%	12.42%				
12	4th	6.00%	6.00%	10.90%	10.90%				
13	5th	3.46%	3.46%	8.42%	8.42%				
14	6th	3.45%	3.45%	8.42%	8.42%				
15	7th	3.45%	3.45%	8.42%	8.42%				
16	8th	3.45%	3.45%	8.42%	8.42%				
17	9th	3.45%	3.45%	8.42%	8.42%				
18	10th	3.45%	3.45%	8.42%	8.42%				
N	Word	Freq.	RC. Exps.	RC. %	Logprob	P	Logprob	Logprob	Set
1	VIOLENCIA	1335	3.204309511	9	100				
2	MUJER	369	0.915466011	9	77.7777363				
3	GENERO	203	0.517659068	7	100				
4	MUJERES	183	0.466581175	8	88.8888855				
5	FUJOS	148	0.377406597	7	77.7777363				
6	MACHISTIA	101	0.25756551	5	55.5555725				
7	PARERIA	94	0.239704192	4	44.4444275				
8	HOMBRER	83	0.211653709	6	66.6666612				

2. Konparatu azpi corpus bakoitzaren zerrenda beste bi egunkariekin eta hortik, "KeyWords" edo hitz-ga-koak atera. Hau da adibidez, *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitz-ga-koen zerrendaren *Excel* dokumentuaren ikuspegi bat:

#### 11. Irudia: *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitz-ga-koak<sup>65</sup>

Keyword Analysis									
1	Total	2087	1913	9	319	0			
2	Max	1335	3	1026	4	66	0		
3	Min	1	0	0	1	3.94	0.00		
4	Mean	38.11	0.30	23.62	0.10	13.35	0.00		
5	Std	149.38	0.38	115.40	0.49	13.35	0.00		
6	1st	14.97%	14.97%	2.82%	2.82%	78.10%	0.57%		
10	2nd	11.02%	11.02%	4.60%	4.60%	30.37%	2.47%		
11	3rd	3.34%	3.34%	0.05%	0.05%	28.48%	10.21%		
12	4th	4.62%	4.62%	0.05%	0.05%	24.88%	10.02%		
13	5th	3.73%	3.73%	0.42%	0.42%	23.39%	23.84%		
14	6th	4.84%	4.84%	1.70%	1.70%	4.87%	10.50%		
15	7th	6.29%	6.29%	13.37%	13.37%	27.48%	12.32%		
16	8th	51.54%	51.54%	72.71%	72.71%	59.82%	1.90%		
N	Key word	Freq.	RC. Exps.	RC. %	Logprob	P	Logprob	Logprob	Set
1	FASS	71	0.18105182	0	69.41691589	2.338426-14			
2	TEMAS	59	0.150452629	0	46.98139191	3.65701E-13			
3	SEBASTIAN	20	0.051000933	0	15.05205643	1.5312E-05			
4	HOMBRES	88	0.22443933	1	18.1827004	1.9918E-05			
5	VIDEO	18	0.045990803	20	18.82899664	4.0906E-05			
6	BIH	23	0.05881025	1	15.1665837	9.8715E-05			
7	AGRESION	34	0.08701152	4	0.017119824	14.09734344	0.00017586		
8	PARERIA	34	0.08701152	26	0.017119824	13.66599897	0.00018056		
9	PAMPLONA	21	0.053540936	1	13.46827221	0.000242629			
10	SUCESO	21	0.053540936	1	13.46827221	0.000242629			

<sup>64</sup> Irudia *Excel* dokumentutik atera da.

<sup>65</sup> Irudia *Excel* dokumentutik atera da.

3. *CopyCatch Gold 2* programa erabili zen konparatzeko azpi corpus bakoitza beste guztiekin, detektatzeko zein diren corpus bakoitzean eskusiboki erabiltzen diren hitzak. Hau da adibidez, *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitz eskusiboaren zerrendaren *Excel* dokumentuaren ikuspegi bat:

**12. Irudia:** *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitz eskusiboak<sup>66</sup>

	A	B	C	D	E
3109	1 sociedad/sucesos				
3110	1 socorrer				
3111	1 solange				
3112	1 solapará				
3113	1 solapas				
3114	1 solicita				
3115	1 solicitantes				
3116	1 solicitar				
3117	1 solicitarla				
3118	1 soltera				
3119	1 solucionar				
3120	1 sometido				
3121	1 sometimiento				
3122	1 sonadas				
3123	1 sopa				
3124	1 soportan				
3125	1 sorpresiva				
3126	1 sorpresivo				
3127	1 sostiene				
3128	1 subdelegación				
3129	1 subestimen				
3130	1 subido				
3131	1 subrayan				
3132	1 subvencionar				
3133	1 subvención				

4. *WordSmith* programaren bitartez, ondorengo konkordantziak bilatu ziren (singularrean eta pluralean): "hombre", "mujer" "hombres" eta "mujeres". Honen helburua izan zen, ikusteko ze erabilera zituzten hitz horiek bere testuinguruan eta ze konbinaziotan agertzen ziren. Hau da adibidez, *Diario Vasco* egunkariari dagokion zerrendaren *Excel* dokumentuaren ikuspegi bat:

**13. Irudia:** *Diario Vasco* egunkariari dagokion hitzen konkordantziak<sup>67</sup>

N	Concordance	Set	Tag	Word #	Sent. #	Sent. Pos.	Para. #	Para
19	1 ce muy difícil también para el hombre: tal y como está plant			699	42	27.27%		0
20	2 e la mujer como exaltación del hombre, como luz que le ilumí			1227	69	90.20%		0
21	3 guardería en su empresa. 4:El hombre se pregunta ahora qué			1433	80	18.75%		0
22	4 o tenemos más capacidad que un hombre para estar en la cocin			1697	90	80.77%		0
23	5 seguir lo mismo o menos que el hombre... ¿Hay luz a final d			2338	123	100.00%		0
24	6 s continuados a su pareja " El hombre, de nacionalidad egipc			9540	328	29.91%		0
25	7 a que, durante este tiempo, el hombre, de nacionalidad egipc			9679	330	22.00%		0
26	8 precisa que frecuentemente, el hombre "realizaba actos de vi			9745	332	39.39%		0
27	9 vivienda de San Sebastián y el hombre "cogió un cuchillo y l			9855	336	58.33%		0
28	10 inició una discusión porque el hombre "deseaba mantener rela			9891	337	9.52%		0

<sup>66</sup> Irudia *Excel* dokumentutik atera da.

<sup>67</sup> Irudia *Excel* dokumentutik atera da.

5. Euskarazko testuen kasuan, *WordSmith* eta *CopyCatch Gold 2* tresnak euskararako berariaz egokituta ez daudenez, *HIZLAN*<sup>68</sup> plataforma erabili zen (gure kasuan, “*HIZLAN-2: Hizkera juridiko-administratiboaren ezagutza-bankua*” izeneko aukera hain zuzen ere), euskarazko testuak aztertzeko prestatua dagoena. Testuak prozesatu ondoren, “lexiko bereizlea” izeneko funtzioa erabili zen hitz gakoak ateratzeko. Testuinguruak ateratzeko, berriz, “corpus-arakatzaila” izeneko tresna erabili zen. Kasu honetan, gako hitzak ez ziren atera *Berria* egunkariaren albisteak beste testuekin alderatuz (gaztelaniaz baitzeuden), baizik eta *EREDUZKO PROSA GAUR* corpusean dauden komunikabideetako testuekin alderatu zen. Hau da adibidez, *Berriaren* egunkariari dagokion zerrendaren *Excel* dokumentuaren ikuspegi bat:

### 13. Irudia: *Berria* egunkariari dagokion hitz gakoak<sup>69</sup>

	A	B	C	D	E
49	igoera	0.1011			
50	aurkako	0.0988			
51	kontu	0.0978			
52	horren	0.0974			
53	gizon	0.0963			
54	hegoalde	0.0947			
55	egoera	0.0913			
56	kopuru	0.0890			
57	hala	0.0881			
58	udal	0.0878			
59	bortxaketa	0.0875			
60	bortxa	0.0869			
61	artatu	0.0864			
62	adierazi	0.0839			
63	eraginkor	0.0839			
64	egotzi	0.0783			
65	lege	0.0782			
66	eskatu	0.0771			
67	eurak	0.0751			
68	halaber	0.0729			
69	ondorio	0.0706			
70	maskulinitat	0.0706			
71	irakasle	0.0704			
72	feminismo	0.0703			
73	net	0.0701			

Gainera, *WordSmith* programari esker, beste jarduera bat burutzeko aukera izan genuen: emakumearen indarkeriaren zerikusia daukaten testuek zein elementu lexiko erabiltzen dituzten aztertzea, normalean beste albisteetan agertzen ez direnak. Aurrez, lan honetarako, Bartzelona Unibertsitatetik albisteen corpus baten erabilera eskatu zen, “Corpus AnCora”<sup>70</sup> izenekoa, komunikabide desberdinetako albisteez osaturiko corpusa. Albiste corpus hori lortu ostean, *WordSmith* programari eskatu zitzaion lanerako sortu genuen corpusa (gaztelaniaz idatziko albisteak bakarrik hartu ziren kontuan, hau da, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara*), AnCorarekin konparaketa egiteko.

<sup>68</sup> Tutoreak plataforma honen lizentzia dauka. Iturria: [www.hizlan.org](http://www.hizlan.org)

<sup>69</sup> Irudia *Excel* dokumentutik atera da.

<sup>70</sup> Taulé, M., M.A. Martí, M. Recasens (2009). “AnCora: Multilevel Annotated Corpora for Catalan and Spanish”, Proceedings of 6th International Conference on language Resources and Evaluation. [http://www.lrec-conf.org/proceedings/lrec2008/pdf/35\\_paper.pdf](http://www.lrec-conf.org/proceedings/lrec2008/pdf/35_paper.pdf)

Ondorioz, alderaketa honen bitartez, “*KeyWords*” izeneko atala sortu zen hitz zerrendarekin. Egin genuen hurrengo pausua izan zen analisi txiki bat egitea, gure irizpidearen arabera, zerrendako lehenengo ehun hitzetatik, eta gure irizpidearen arabera, analisi txiki bat egitea.

Egia da aipaturiko helburu honetan asko sakondu daitekeela, baina gure asmoa analisi txiki bat egitea izan da. Lortutako emaitzak ezin dira orokortu, izan ere, alde batetik, epe labur bati horri dagozkion emaitzak direlako eta bestetik, gutxienez, corpus fidagarri bat izateko, 100.000 hitz izan beharko genituzkeelako egunkari bakoitzetik eta gure kasuan, guztira 75.000 hitz inguru ditugu. Beraz, ikerketa hau denboran luzatuko bagenu, lortutako albiste kopuruari albiste gehiago eransteko aukera egongo litzateke eta ondorioz, hitz-kopuru minimo horretara iristeko aukera izango genuke, eta gerta liteke emaitzak ezberdinak izatea kasu horretan.

Amaitzeko, adierazi behar da baita ere, lanaren atal teorikoa azaroan abiatu zela, eta atal enpirikora iritsi ginenerako urtarrilean aurkitzen ginela. Beraz, lanaren epealdiaren barruan sartzearen, erabaki zen lehenengo deialdira aurkezteko moduko data bat aztertzea. Egia da, agian denboraldi luzeago batean aztertzea izan zitekeela egokiena, baina lan honek duen egutegia dela eta, ezin izan da zabalagoa egin.



## IV. KAPITULUA – EMAITZAK

### 1. Komunikabideetako kodeen azterketa

#### 1.1. Sarrera

1995. urtean, Beijinen antolatu zen Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian onartutako ekintza-planeko estrategia objektua D.1 ataleko (*“Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko eta prebenitzeko neurriak hartu”* izendupean), 125 j). artikuluan, ondorengo aurreikusi zen:

*“Despertar la conciencia acerca de la responsabilidad de los medios de comunicación de promover imágenes no estereotipadas de mujeres y hombres y de eliminar los patrones de conducta generadores de violencia que en ellos se presentan, así como alentar a los responsables del contenido del material que se difunde a que establezcan directrices y códigos de conducta profesionales; y despertar también la conciencia sobre la importante función de los medios de información en lo tocante a informar y educar a la población acerca de las causas y los efectos de la violencia contra la mujer y a estimular el debate público sobre el tema”.*

Honen ildora, aurreko atalean aipatu dugun 1/2004 Lege Organikoaren 14. artikuluari men eginez: (...) *Emakumearen aurkako indarkeriaren gaineko informazioak hedatzean bermatuko da, kasuan kasuko informazio objektiboaren bidez, indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme-alaben giza eskubideak, askatasuna eta duintasuna defendatzea. Bereziki, kontu handiz jardungo da informazioaren tratamendu grafikoari dagokionez”.*

Komunikabideek, emakumearen aurkako indarkeriari arazoa sozial eta kulturari ikusgarri egiten laguntzen dute. Gaia oso zaila denez, komunikabideek baldintza etiko eta deontologiko zehatzen barnean beren helburua bete behar dute. Hori horrela, nazioarteko nahiz estatu eremuan aurreikusten diren legeen bitartez, herritarrek informatuta egoteko duten eskubideari uko egin gabe, emakumearen aurkako indarkeria delitu bat gertatzen denean, komunikabideen lehentasuna izan behar du emakumearen eta haren inguruko en edukiak kontrolatzea.

Hori kontuan izanik, Espainian, XX. mende bukaeran, komunikabideen eskutik autoerregulazio kodeak eta manualak sortzen hasi ziren emakumearen aurkako indarkeria kasuen aurrean tratamendu ona eta egokia aurrera eramateko. Ondorioz, komu-

nikabideetako profesionalak, duten konpromiso etikoa betez, kontu handiz arituko dira emakumearen aurkako indarkeria kasuetan, honelako albisteetan mina ez areagotuz, biktimari nahiz bere senideei.

Ondorioz, atal honetan, bost autoerregulazio kode aukeratu dira, hiru gaztelaniaz idatzia daudenak eta bi euskaraz:

- (RTVE/EI) *“Manual de Urgencia sobre el tratamiento informativo de la violencia contra las mujeres, 2002”*.
- (Emakunde) Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa.
- (Público) *“Decálogo para informar sobre violencia de género”* autoerregulazio kodea.
- (KKE) *“Recomendaciones sobre el tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación”* autoerregulazioa.
- (GKT) *“Komunikazio Parekiderantz. Kazetarietzako eskuliburua”*

Espanian komunikabide arloan emakumearen aurkako indarkeriari buruzko nahiko kode aurreikusten direnez, horien artean aukeraketa egiterako orduan, entzunenak, hizkuntza desberdinetan (euskaraz nahiz gaztelaniaz) eta osatuenak diren kodeak aukeratzeko saiatu naiz. Bestetik, kontuan izan behar dugu tokiko komunikabideek ere emakumearen aurkako indarkeriaren tratamenduaren inguruan badaukate nolabaiteko sentiberatasuna eta arazo honetan ere atxikitzen dira. Beraz, erabat egokia da kasu honetan, adibidez “Goiena Komunikabide Taldeak” (baina beste batzuk ere bai) sorturiko kodea aipatzea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Begira batzordearen bidez, sorturiko kode deontologikoan oinarrituz. Hori horrela, hurrengo atalean, kode hauen inguruan aurreikusten diren puntu nagusien inguruan mintzatuko gara, ondorengo atalean, hauen arteko konparaketa bat eginez.

## **1.2. Komunikabideen autoerregulazio-kodeak<sup>71</sup>**

### **1.2.1. RTVE eta Emakumearen Institutuaren kodea**

*“Manual de Urgencia sobre el tratamiento informativo de la violencia contra las mujeres, 2002”* Irrati eta Telebista Institutu Ofizialak (RTVE) eta Emakumearen Institutuak 2002. urtean sortutako manuala da. Irrati eta Telebista Institutu Ofizialak gida hau

---

<sup>71</sup> Autoerregulazio kodeen inguruko informazio gehiago irakurri nahi bada ikus “1. Eranskina. Genero indarkeriaren tratamendurako komunikabideen autoerregulazio-kodeak” izeneko atala.

onartu eta gero, *Antena 3*, *Telecinco* eta erkidegoetako telebistek onartu zuten. Hori horrela, hauek dira gida honetan agertzen diren 10 puntuak ikus-entzunezko albisteak bete behar dituztenak:

1. Emakumeen duintasuna urratzen dituzten ereduak saihestu behar dira.
2. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen kontrakoak dira.
3. Ez nahastu morboa interes sozialarekin.
4. Emakumeen aurkako indarkeria ez da gertakari bat, ez ohiko albiste bat, ez urgentea ere.
5. Informazio-iturri guztiak ez dira fidagarriak.
6. Informazio erabilgarria eman behar da, aldez aurretik aholkua eskatuz.
7. Erasotzailearen irudia identifikatu egin behar da eta biktimaren duintasuna errespetatu.
8. Irudia ez da dena, ez erori sentsazionalismoan..
9. Zenbakiak hainbat egoera adierazi ditzakete.
10. Topikoek eta estereotipoek arinkerian eta hutsalakerian jaustea eragiten dute.

### **1.2.2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen kodea**

2016ko uztailan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak *“Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autorregulaziokoa”* izeneko kode deontologikoa argitaratu zuen, Begira batzordearen bidez. Autoerregulazio kode hau sortzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak urte eta erdi baino gehiagor, Euskadiko publizitate-agentzia eta komunikabideekin batera (horien artean, *Berria*, *Gara*, *Diario Vasco*, *Eitb*, etab.) lan egin zuen erabat osatu den kode hau sortzeko, publizitaterako, kazetaritzarako eta emakumeen kontrako indarkeriaren tratamendurako dekalogoak edukiz.

Hori horrela, dekalogo honetan, eta Lucia Martinezek elkarrizketan adierazi zuen moduan (ikus *“2. Eranskina. Elkarrizketak”*), egokia da hiru dokumentu hauen aipamena egitea: alde batetik, *“1. Eranskina. Publizitate ez sexistarako dekalogo”* dago eta bestetik, *“2. Eranskina. Komunikazio ez sexistarako dekalogo”* izeneko dokumentua. Hauen helburua, publizitateko eta kazetaritzako mezuak lantzean, emakumezkoen eta gizonezkoen estereotipo eta genero-rolak ez azaltzea da; azkenik, emakumearen aurkako indarkeria kasuak tratatzeko *“3. Eranskina. Publizitate eta*

*komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa*<sup>72</sup> dago, aurre-  
rago aztertuko dugun moduan.

Baita ere, komenigarria da atal honetan aipatzea Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak 2008. urtean argitaratu zuen liburuxka, *“Euskeraren Erabilera Ez Sexista”* izendupean. Liburuxka honen helburua, euskararen erabilpenaren inguruko hausnarketa egitea da generoari dagokionez, eta honekin batera, zenbait proposa-  
mena egitea konturatzeko, euskarazko testuetan, sexismoa ez dela bakarrik genero gramatikala, baizik eta, badaudela sexismoa egiteko beste modu batzuk, genero gra-  
matikala eduki edo ez eduki. Liburuxka honen bitartez, ondorioztatu daiteke euskaran ere erabat presente dagoela genero kontzeptua, joera dagoelako hitz maskulinoak modu generikoan erabiltzeko<sup>73</sup>.

Beraz, emakumearen aurkako indarkeriaren tratamendu egokiari dagokionez, kode honetan aurreikusita dagoen *“3. Eranskina. Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako dekalogoia”*-ren 10 puntuak aipatuko dira:

1. Terminologia egokia erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren berri emateko.
2. Emakumeen kontrako indarkeria testuinguruan jartzea, eta zer den azal-  
tzea.
3. Emakumeari buruzko informazioa, eta indarkeria jasaten duten beste batzu-  
ena
4. Erasotzaileari buruzko informazioa.
5. Kasu bakoitzaren inguruabarrei buruzko informazioak.
6. Kasuen jarraipen informatiboa egitea, denboran zehar: epaiketak eta  
epaiak.
7. Informazio osagarriak ematea, emakumeen aurkako indarkeria ezagutaraz-  
ten laguntzeko. Informazioak ondo azalduta emango dira.
8. Informazio erabilgarria ematea, indarkeria jasaten duten emakumeentzat  
eta haien ingurukoentzat.
9. Informazio-iturri adituak erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gai-  
neko ezagupena dutenak.

---

<sup>72</sup> *“Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa”* deskargatu nahi bada, joan iturri honetara:  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas\\_medios\\_intro/eu\\_def/adjuntos/begira.kode.deontologi  
koa.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologi<br/>koa.pdf)

<sup>73</sup> Honen inguruan gehiago ikusi nahi bada, ondorengo iturria atxikitzen da liburuxka deskargatu ahal izateko:  
[www.ehu.es/e-makumeak/docs/eusk\\_gida\\_eu.pdf](http://www.ehu.es/e-makumeak/docs/eusk_gida_eu.pdf)

10. Baliabide grafikoak eta ikus-entzunezkoak, emakumeen aurkako indarkeria ikusarazten eta salatzen laguntzeko.

### 1.2.3. **Público** egunkariaren kodea

2008. urteko urtarrilean, genero indarkeriari buruzko albisteak idazteko, *Público* egunkariak, “Decálogo para informar sobre violencia de género” autoerregulazio kodea sortu zuen. Hori horrela, kode honen bitartez, egunkari horretarako kazetariak genero indarkeriako albisteak jorratu behar dituztenean bete behar dituzten 10 puntuak azalduko dira, *Público* egunkariaren idazketa eskuliburuan puntu bakoitzean informazio gehiago adieraziz:

1. Indarkeria mota hau izendatzeko, *Público* egunkariako erredaktoreen esamolde hauek erabiliko ditugu, ordena honetan.
2. Ez da gertakari bat.
3. “Efektu narkotizantea” saihesten ahaleginduko gara.
4. Zurrumurruek saihestuko ditugu.
5. Ez dugu espekulatuko ustezko arrazoen inguruan.
6. Zigorrek zehaztuko ditugu.
7. Identifikatzea (biktima nahiz erasotzailea).
8. Tratu txarren biktimen testigantzak.
9. Arazoa gainditu duten emakumeei buruz eta hasieratik tratu txarrei aurre egin eta bikoteen aldetik erasorik edo mendekotasunezko harremanik onartu ez zuten emakumeei buruz ere ariko gara.
10. 016 Telefonoa.

### 1.2.4. **Bartzelonako Udaletxeko Emakumeen Sailak eta Kataluniako Elkarteko kodea**

2009. urteko azaroan, Bartzelonako Udaletxeko Emakumeen Sailak (Regidoria de Dones de l’Ajuntament) eta Kataluniako Kazetarien Elkarteak (Col·legi de Periodistes de Catalunya), beste erakunde, komunikabide eta segurtasun indarreko zenbait ordezkariekin batera, “*Recomendaciones sobre el tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación*” kodea argitaratu zuen. Lanaren lehen edizioa, 2004. urtean egin zen, baina bai Katalunian eta bai Espainian legedi berria onartu ondoren, edukiak berrikusteko eta eguneratzeko beharrak ikusi zuten (adibidez, indarkeria marxista kontzeptua erabiltzen da genero indarkeriaren ordeztu). Hori horrela, lana eguneratzea eta bigarren edizioa argitaratzea ekarriz zuen, 15 puntu nagusienetan banatuz:

1. Indarkeria matxista giza eskubideen urraketatzat eta pertsonen askatasunaren eta duintasunaren aurkako erasotzat jotzea.
2. Informazio-iturriak hautatu eta iturri bat baino gehiagotara jo.
3. Emakumezkoen ekarpenak ageriko egitea eta nagusitasun osoz aurkeztu: informazioaren tratamenduan gomendatzen da emakumezkoak errespetuz eta nagusitasun osoz aurkeztea eta gizarteko arlo guztietan emakumezkoen ekarpenak agerikoa egitea.
4. Erasoa jasan duten pertsonen intimitaterako eskubidea eta ustezko erasotzaileen errugabetasun-presuntzioa errespetatu.
5. Erasoa jasan duten pertsonen eta haien familiako edo auzoko pertsonen duintasuna errespetatu eta haiek aurrez baimenik eman gabe hedabideetan ez atera.
6. Gertaerak zehatz azalduko dituzten kontzeptuak eta terminoak erabili.
7. Ezkutuko eta antzematen zailagoa den indarkeria matxista azaleratu.
8. Indarkeria matxistari buruzko albisteetan (forma eta eduki aldetik) sentsazionalismoa eta dramatikotasuna saihestu.
9. Hedabidea edozein dela ere, informazioa ematen duten irudiak hautatu eta erasoa jasan duten pertsonengan edo haien ingurukoengan arreta osoa ez jarri.
10. Gertaeren eta nahasita dauden pertsonen jatorriaren, egoera soziokulturalaren edota gorabehera pertsonalen arteko zergati-ondorio harreman oro saihestu.
11. Informazioa testuinguruan jarri.
12. Kasuen jarraipen informatiboa bermatu behar da. Ebazpenaren edo konponbidearen inguruan jakinarazi behar da eta, komeni bada, erasoa jasan duten pertsonak nola osatu diren.
13. Erasoa eta indarkeriak erasotzaileentzat ondorio txarrak dituela informatu eta, era berean, gizartean sortutako gaitzespen-adierazpenak azaleratu.
14. Kasu jakin bati buruz zabalduko okerreko edozein informazio berehala zuzendu.
15. Komunikazioko profesionalen prestakuntza sustatu.

### **1.2.5. Arrasateko Berdintasun Sailak eta Goiena Komunikazio Taldearen kodea**

2015. urtean, Arrasateko Berdintasun Sailak eta Goiena Komunikazio Taldeak, *“Komunikazio Parekiderantz. Kazetarietzako eskuliburua”* sortu zuen, Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak, Begira batzordearen bidez, argitaratutako kode deontologikoan oinarrituz. Horrela, kode honetan, komunikazioari buruzko trataera egokia egiteko gomendioak aipatzen dira, ondorengo ataletan: informazioaren bilaketa, eraikuntza eta hedapena, irudia eta boterea eta komunikazio parekiderako neurri zehatzak eta indarkeria matxistaren trataera. Gure gaiari dagokionez, emakumearen aurkako indarkeriaren trataeran zentratuko gara, bertan aurreikusten diren 23 puntuak aipatuz:

1. Emakumeen kontrako indarkeria egiturazkoa den heinean, hedabideek horrelaxe islatu eta irudikatu behar dute.
2. Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazioak ez dira gertakari isolatuak.
3. Ez dago erasotzaile ezta biktimaren profilik.
4. Estereotipo eta eginkizun (rol) sexistaren erabilpena ekidin behar da.
5. “Sentsazionalismoa” saihestuko da.
6. Jarraipen egokia landuko da.
7. Elementu positiboak irudikatuko dira.
8. Informazioaren helburua laguntzea, jendarteratzea eta aurre hartzea da.
9. Salaketa soziala.
10. Ikuspuntu integrala indarkeria deuseztatzeko.
11. Erabiliko diren terminoa.
12. Zer den emakumeen kontrako indarkeria.
13. Nork eta non. Erasotzailearen eta biktimaren identifikazioa.
14. Nola. Kontu handiz ibili behar da eraso zein modutan eman zen azaltzerakoan.
15. Tratu txarrak eta erailketak giza eskubideen kontrako krimenak dira.
16. Emakumeek gizonengan eragindako indarkeria-kasu bakanetan ez da genero indarkeriaren terminoa erabiliko.
17. Ezein formatutan ez da tratu txarren gaineko irakurketa positiborik eginen, ez eta aipamen ironiko edo sarkastikorik onartuko.
18. Biktimak jasaten duen indarkeria egoeraren errudun moduan utzi lezaketan testigantza edo aipamenak saihestu behar dira.
19. Informazioa non kokatu kontuan hartuko da.

20. Erasotzailearen eta biktimaren inguruko testigantzak.
21. Arituak agertu behar dira.
22. Tratu txarren egoeratik ateratzeko dauden baliabideen berri eman behar du.
23. Indarkeria mota hau deuseztatzeko bestelako generoak sustatu behar ditu hedabideak.

### 1.3. Autoerregulazio-kodeen arteko konparaketa eta ondorioak

Konparaketa egiteko, autoerregulazio kodeek genero indarkeria kasuetarako aurreikusita duten informazioaren tratamenduan zentratuko gara. Lehenik eta behin, komenigarria da aipatzea kodeen artean komuneko zenbait puntu orokor daude, ondorengoak adibidez:

- Komunikabideek emakumearen duintasuna errespetatu behar dute.
- Emakumearen aurkako indarkeria ez da gertakari isolatu bat
- Autoerregulazio-kodeek terminologia desberdina hobesten dituzte.
- Testiguen trataera egokia egitea.

Hori esanda, autoerregulazio-kodeen arteko konparaketa egiteko ondorengo puntuak aztertu dira:

- Emakumearen duintasunaren errespetua.
- Biktimaren eta erasotzailearen tratamendua.
- Erasotzailearen errugabetasun-printzipioa.
- Irudien tratamendua albisteetan.
- Erasotzailearen nahiz biktimaren zigorren eta prozesu judizialen aipamena.
- Datuen, estatistikaren erabilpena.
- Estereotipoen eta topikoen erabilera informazioan.
- Testigantzen eta informazio iturrien hautaketa.
- Komunikazioko profesionalen prestakuntza sustatu.
- Hobesten dituzten terminologia desberdinak.

Ondorengo taulan, kodeen arteko konparaketa ikus daiteke (ikus. 14. Taula):



#### 14. Taula. Komunikabideen kodeak genero indarkeriaren trataeran<sup>74</sup>

Autoerregulazio-kodeen edukia	Autoerregulazio-kodeak				
	<i>RTVE/EI</i>	<i>Emakunde</i>	<i>Público</i>	<i>KKE</i>	<i>GKT</i>
Emakumearen aurkako indarkeria zer den azaltzea	x	x		x	x
Emakumearen duintasunaren errespetua	x	x		x	x
Biktimaren eta erasotzailearen tratamendua	x	x	x		x
Erasotzailearen errugabetasun-printzipioa		x	x	x	
Irudien tratamendua albisteetan	x	x	x	x	x
Erasotzailearen nahiz biktimaren zigorren eta prozesu judizialen aipamena	x	x	x	x	x
Datuen, estatistikaren erabilpena	x	x		x	
Estereotipoen eta topikoen erabileraren zainketa informazioan	x	x		x	x
Testigantzen eta informazio iturrien hautaketa	x	x	x	x	x
Komunikazioko profesionalen prestakuntza sustatu				x	
Hobesten dituzten terminologia desberdinak	Emakumearen aurkako indarkeria	Emakumeen aurkako indarkeria; Indarkeria matxista; Gizonek emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria.	Genero indarkeria; Indarkeria matxista; Indarkeria sexista; Gizonezkoen indarkeria emakumeen aurka.	Indarkeria matxista	Genero indarkeria; Emakumeen kontrako indarkeria matxista; Indarkeria sexista; Emakumeen kontrako indarkeria.

Hauk dira autoerregulazio-kodeen konparaketatik ateratako ondorioak:

- Hasteko, kodeek aurreikusten dituzten puntuen artean, emakumeren aurkako indarkeriaren fenomeno zer den azaltzea komenigarria da, gizartean islatuta geratzeko. Beharrezkoa da Emakundek aurreikusten duen kodean adierazten duen moduan, nabarmentzea zein den emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria eta bere forma guztiak, Beraz, esan daiteke puntu hau lau kodeetan aurreikusia agertzen dela, *Público* egunkariaren kodean izan ezin.
- Bestetik, biktimaren duintasunaren errespetuari dagokionez, ondorioztatu daiteke *Público* egunkariko autorregulazio kodea izan ezik, beste kodeek

<sup>74</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

bai aurreikusten dutela emakumeren aurkako indarkeriaren aurrean, biktimaren duintasunaren errespetua. Puntu hori da, izan ere, garrantzitsuena.

- Biktimaren eta erasotzailearen tratamenduaren kasuan, Kataluniako Kazetarien Elkarteak *“Recomendaciones sobre el tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación”* da kode bakarri honen inguruan hitz egiten ez duena. Beste hirurek, aldiz, bai egiten dute honen inguruko aipamena. Biktimaren eta erasotzailearen tratamenduari buruz hitz egiten duten hiru kodeen artean, aipatzeko da Emakundek honi buruz hitz egiten duena. Izan ere, nahiz eta beste kodeek aipatu, bera da kode bakarri bi atal eskaintzen dituen alde batetik, biktimaren inguruko tratamendu egiteko eta bestetik, erasotzailearen inguruko tratamendua egiteko.
- Irrati eta Telebista Institutu Ofizialak (RTVE) eta Emakumearen Institutuak (EI) eginiko *“Manual de Urgencia sobre el tratamiento informativo de la violencia contra las mujeres, 2002”* manulean eta Goiena Komunikazio Taldearen *“Komunikazio Parekiderantz. Kazetarientzako eskuliburua”-n* izan ezik, besteek bai aipatzen dute erasotzaileen errugabetasun-printzipioa. Puntu oso garrantzitsua da, izan ere, erasotzailearen aurkako epairik ez dagoen bitartean, komunikabideek ezin dute ustezko erasotzailea kriminalizatu.
- Irudien tratamenduaren kasuan, bost kodeek aurreikusten dute irudien tratamendua modu egoki egitea, beti ere, biktimaren eta bere senideen identitatea, duintasuna eta segurtasuna errespetatuz eta babestuz. Adingabeen irudiak zabaltzearen inguruan, Emakundek eta Kataluniako Kazetarien Elkarteak honen inguruko aipamena egiten dute, aditzera emanez, adingabeen irudiak aztertu egin beharko direla beraien identifikazioan edo onertzean kontuan hartuz.
- Erasotzailearen nahiz biktimaren zigorren eta prozesu judizialen aipamenari dagokionez, bost kodeak ere honen inguruan mintzatzen dira. Azken batean, informazio honen berri ematearen arrazoi nagusia da, indarkeria jasaten duten emakumeek eta haien ingurukoek agertzen dituzten jarrera desberdinen berri ematen laguntzea. Honela, emakumearen aurkako indarkeria kontzeptuaren barruan kokatu gaitzke.

- Datuen eta estatistikaren erabilpenaren kasuan, *Público* egunkariko kodea eta Goiena Komunikazio Taldeko kodeak dira honen inguruan hitz egiten ez dutenak. Besteek ordea, garrantzitsua ikusten dute emakumearen aurkako indarkeriari buruzko estatistikak, datuak, etab. erakustea, arazoa testuinguruan jartzeko eta gogoetara bultzatzeko.
- Estereotipoen eta topikoen erabilera informazioan, kasu honetan ere *Público* egunkariak ez du honen inguruan inongo aipamenik egiten. Beste lau kodeek aldiz, argi eta garbi uzten dute, emakumearen aurkako indarkeria kasuak aztertzen direnean, emakumeak eta gizonak estereotipo eta generorolik gabe azaldu behar direla.
- Testigantzen eta informazio iturrien hautaketaren kasuan, bost kodeek aipatzen dute beharrezkoa dela informazio adituengana jotzea, kasuaren inguruko informazio zehatza lortzeko edota emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko datuak ahalik eta zehatzenak izateko. Bestetik, lau kodeek aipatzen dute, beharrezkoa dela testigu zuzenak izan ez diren bizilagunen edota familien testigantzak ez jasotzea. Beraz, puntu honetan, irizpidearekin aukeratu behar dela ohartarazten dute. Ideia honetan, Emakundek bere dekalogoan aurreikusten du, kasu batzuetan komunikabideek duten denbora ezintasunagatik, ulergarria dela zenbaitetan informazio-iturri ez-adituengana jotzea.
- Komunikazioko profesionalen prestakuntza sustatzearen inguruan, Kataluniako Kazetarien Elkarteak *“Recomendaciones sobre el tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación”* da kode bakarri honen inguruan hitz egiten duena. Bertan adierazten da komunikabideek, indarkeria matxistarekin zerikusia duten edukiak lantzeko, pertsonen formakuntza sustatu behar dutela, profesionalen kode etikoak nahiz deontologikoak errespetatuz.
- Azkenik, kodeek hobesten dituzten terminologia desberdinen artean, aipatu behar da dauden iritzi-desberdintasunak indarkeria mota hau izendatzerako orduan. Hala ere, kodeek hobesten dituzten terminologiaren artean, “indarkeria matxista” eta “emakumearen aurkako indarkeria” dira gehien errepikatzen direnak. Hala eta guztiz ere, erabiliko ez diren terminoei dagokienez, bost kodeek bat etortzen dira ondorengoetan: “etxeko indarkeria”, “bikote indarkeria”, “familia-indarkeria”, “familia barruko indarkeria”.

Laburbilduz, kode hauek aztertu eta gero, ondorioztatu daiteke autoerregulazio kodeek aurreikusten duten kezken artean, emakumearen aurkako indarkeria dagoela, izan ere, indarkeri mota hau egoki tratatzeko ahaleginak egiten ari direlako. Beraz, esan daiteke lehen pausua egin dutela, hau da, autoerregulazio kode hauek sortzea eta beraien komunikabideetan indarrean sartzea emakumearen aurkako inguruko tratu-egokia burutzeko helburuarekin.

## **2. Aditu, profesional eta aktibisten pertzepzioa**

Aurreko kapituluan aipatu dugu moduan, emakumearen aurkako indarkeriaren trataeran zenbait legedi aurreikusten dira komunikabideentzako, non horietan, neurri desberdinak ezartzen dira emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzekeo ideiarekin. Lege horietaz gain, zenbait komunikabideek, autoerregulazio-kode batzuk aurreikusten dituzte emakumearen aurkako indarkeria kasuen aurrean tratamendu ona eta egokia aurrera eramateko.

Hori horrela, lan honetarako, lau elkarrizketa egin ziren adituei emakumearen aurkako indarkeriaren nahiz komunikabideek indarkeria mota hau tratatzeko duten moduaren inguruan. Elkarrizketaren ordenari dagokionez, lan honetan aditutasun gutxienetik handienara duten pertsonen arabera ordenatu dira.

Oro har, hauek izan dira elkarrizketatutako guztiek nabarmendu dituzten ideia komun batzuk:

- Komunikabideak hobekuntzak bidean daude emakumearen aurkako indarkeriaren trataerari dagokionez, baina oraindik ez da tratamendu egokia egiten (normalean oso morbosoa izaten da).
- Autoerregulazio-kodeak ezinbestekoak dira, baina formazioa behar da.
- Terminologia desberdina ez dago gizartean ondo pedagogizatuta.
- Komunikabideek dituzten kezken inguruan ez dago emakumearen aurkako indarkeria, bakarrik kasuak ematen direnean hitz egiten da.

Elkarrizketa osoa "2. Eranskina. Elkarrizketak" izeneko atalean dago, bertan irakurri daiteke xehe galdetutakoa eta erantzundakoa. Orain ikus ditzagun elkarrizketaz-elkarrizketaz zein izan daitezkeen bereizgarriak.

## 2.1. Lehenengo elkarrizketa

- **Izen-abizenak:** Alazne Corral eta Gorka Alvarez.
- **Kargua:** AntzerkiZ-eko partaideak.
- **Elkarrizketa-data:** 21/04/17.
- **Ikasketak:** Alazne Corralek Gizarte Langintza, Arte Dramatikoa eta Parte-hartze eta Komunitate Garapenerako masterra ikasi zuen eta Gorka Alvarezek, berriz, Ingeniaritza Informatikoa, Antropologia masterra eta Arte Dramatikoa.

Gorka Alvarez eta Alazne Corralen elkarrizketan egindako ekarpenetatik hauek nabarmendu daitezke:

- Komunikabideek ez dituzte emakumearen aurkako indarkeriari buruzko kasuak sakontzen. Beraz, trataera ez da ona izaten.
- Biktima eta erasotzailea ez dira berdin tratatuak: biktima, aukerarik gabe dagoenaren sententzia zabaltzen dute komunikabideek.
- Autoerregulazio-kodeak egotea garrantzitsua da, baina praktikan zentratu behar da ea ondo betetzen duten ikusteko.
- Komunikabideek ez dituzte beraien kezken artean emakumearen aurkako indarkeria, bakarrik kasuak ematen direnean.
- Terminologia desberdina ez dago gizartean ondo pedagogizatuta, baina aurrerapausoak ematen ari dira.
- Komunikabideek eman behar duten hurrengo urratsa, emakumearen aurkako indarkeria genero sistematik apurtzea da.

## 2.2. Bigarren elkarrizketa

- **Izen-abizenak:** Irene Ormazabal.
- **Kargua:** Donostiako Udaleko Berdintasun Saileko teknikaria.
- **Elkarrizketa-data:** 17/03/17.
- **Ikasketak:** Kazetaritza eta Berdintasun masterra.

Irene Ormazabalek elkarrizketan egindako ekarpenetatik hauek nabarmendu daitezke:

- Komunikabideek emakumearen aurkako indarkeriari egiten dioten trataera normalean oso morbosoa izaten da.
- Biktima eta erasotzailea dira berdin tratatuak: komunikabideek biktima epaitzen dute.

- Komunikabideek ez dituzte pertsona adituen testigantzak lortzen edota ez dituzte indarkeria sufritu duten emakumeen esperientziak kontaktzen.
- Komunikabideek aurreikusita dituzten autoerregulazio-kodeak ezinbestekoak dira, baina kazetariei formakuntza ematea kodeak modu egokia bete dezaten beharrezkoa dela pentsatzen du.
- Gizartean ez dago terminologia ondo pedagogizatuta.
- Komunikabideek dituzten kezken inguruan, ez dago emakumearen aurkako indarkeria.
- Etorkizunari dagokionez, egokia izango litzateke komunikabide guztiek ados jarriko balira emakumearen aurkako indarkeria kasuak egoki tratatu ahal izateko.

### 2.3. Hirugarren elkarrizketa

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Izen-abizenak:</b> Raquel Raposo Acevedo.</li> <li>- <b>Kargua:</b> Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Programa eta Formakuntza saileko arduradura.</li> <li>- <b>Elkarrizketa-data:</b> 23/03/17.</li> <li>- <b>Ikasketak:</b> Psikologia eta Soziologia.</li> </ul> |
|---|

Raquel Raposok elkarrizketan egindako ekarpenetatik hauek nabarmendu daitezke:

- Komunikabideek emakumearen aurkako indarkeriari egiten dioten trataera eboluzio bidean daude, izan ere, gaur egun egiten duten trataera ona ez baita.
- Biktima eta erasotzailea ez dira berdin tratatuak: normalean, erasotzailearen tratamenduarekin kontu handiagoa dago biktimaren tratamenduari baino.
- Autoerregulazio kodeak beharrezkoak dira, baina ez direla nahikoak. Gutxieneko formazioa ematea ezinbestekoa da kode bat indarrean sartu ahal izateko.
- Komunikabideek modu prekario batean daude eta saldu nahi dute, eta horren eraginez, askotan gai morbosoetan zentratzen dira irakurriak izateko (ez dituzte gomendioak ematen indarkeriatik ateratzeko).
- Emakumearen aurkako indarkeria ez dago komunikabideen kezken artean.
- Komunikabideek ez dute terminologia desberdina ondo erabiltzen.

## 2.4. Laugarren elkarrizketa

- **Izen-abizenak:** Lucia Martinez Odriozola.
- **Kargua:** EHU-ko Komunikazio irakaslea, BEGIRA batzordeko<sup>75</sup> kidea eta komunikabideek emakumeari ematen dioten trataera ikertzen duen aditua. Baita ere, "*Pikara Magazine*" aldizkariaren sortzaileetako bat eta Euskal Kazetarien Elkarteko burua izan zen 6-7 urtez.
- **Elkarrizketa-data:** 27/04/17.
- **Ikasketak:** Kazetaritza.

Lucia Martinezekin elkarrizketan egindako ekarpenetatik hauek nabarmendu daitezke:

- Komunikabideek emakumearen aurkako indarkeria kasuak hobeto tratatzen dituzte, baina oraindik ez modu egoki batean.
- Erasotzailea eta biktima ez dira berdin tratatuak izaten: erasotzailean gehiago zentratu behar dute eta ez hainbeste biktiman.
- Kodeek lagundu dute emakumearen aurkako indarkeria kasuak ongi tratatzeko. Baita ere, terminologia egokia erabiltzerako orduan.
- Emakumearen aurkako indarkeria ez dago komunikabideen kezken artean.
- Terminologia ez dago gizartean ondo pedagogizatua.
- Etorkizunari begira, gizarte kontsentsu bat gauzatu behar da sexuan oinarritutako edozein indarkeria gaitzesteko.

Hauek dira, lau elkarrizketatik ateratzen diren ondorioak:

- Orokorrean eszeptikoak dira autorregulazio-kodeekin nahiz komunikabideek duten rolaekin. Hau da, autoerregulazio-kodeak eta komunikabideak ezinbestekoak direla pentsatzen dute eta honekin batera, lagundu dezaketela emakumearen aurkako indarkeriaren tratamenduan. Hala eta guztiz ere, aipatzen dute komunikabideak eboluzio-bide batean daudela, izan ere, nahiz eta hobekuntza bidean egon emakumearen aurkako indarkeriaren trataeran,

---

<sup>75</sup> BEGIRA, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordea da. Bere zereginen artean aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea dago, publizitate eta komunikazioaren eremuetan sexuaren ziozko bereizkeria mota oro desagerrarazteko. Oro har, komunikabide publikoek zabalduko edukiek kode etikoak izan eta aplikatu ditzaten sustatzen du, eta komunikabide pribatuekin akordioak egitea bultzatzen du. BEGIRA batzordearen inguruan gehiago irakurri [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas\\_medios\\_intro/eu\\_def/adjuntos/begira.zer\\_da.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.zer_da.pdf)

oraindik ez dute komunikabideek trataera modu egoki batean egiten, adibidez, erasotzailean biktiman baino gutxiago zentratzen direlako, albisteak morbosoa izaten direlako, etab.

- Denek aipatzen dute komunikabideek dituzten kezken inguruan emakumearen aurkako indarkeria ez dagoela. Gainera, pentsatzen dute komunikabideek kasuak ematen direnean edo Emakumeen aurkako Indarkeria desagerarazteko Nazioarteko Eguna ospatzen denean bakarrik hitz egiten dutela. Honen ildora, adierazten dute egokiago izango litzatekeela albiste positibo gehiagoren inguruan hitz egingo balute.
- Terminologiaren kasuan, denek bat egiten dute adierazten dutenean gizartean eta komunikabideetan ez dagoela ondo pedagogizatuta. Gaur egun ere, nahiz eta noiz behinkako kasuak izan, komunikabideek emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten terminologia nahastu edo sinonimo modura erabiltzen dutela pentsatzen dute.
- Orokorrean, komunikabideetan emakumearen aurkako indarkeriak kasuak tratatzerako orduan espezialistak ez daudela pentsatzen dute. Beraien iritziz, kazetariak formazio gehiago behar dute emakumearen aurkako indarkeria kasuak aztertzerako orduan.

### **3. Komunikabideetako testuen analisi konparatiboa**

Atal honetan, egunkari desberdinek emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko albisteen trataera konparatiboaz mintzatuko gara. Horretarako, bi atal nagusitan banatu da aurretik aipatu ditugun helburuak kontuan izanda: albisteen corpus txikien analisi konparatiboa eta hitzen agerpenen esangarritasunaren analisi estatistikoa.


#### **3.1. Prentsako testuen corpus txiki baten analisi konparatiboa**

Lehen aipatu dugun moduan, albisteen corpus txiki bat egitea izan da helburu nagusia eta horretarako, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Berria* eta *Gara* egunkariak aztertu ditugu otsailaren 14tik apirilak 13ra bitartean. Analisi konparatiboa egiteko, *Excel* dokumentu bat sortu da zutabeetan banatua (ikus “3. Eranskina. Corpusaren osaera eta xehetasunak”), lau egunkarietako testuak modu errazago batean aztertu ahal izateko.



Hasteko, otsailaren 14tik apirilak 13ra bitartean, guztira emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia izan zuten 145 testu egon ziren. Bestetik, ondorengo grafikoan ikusten den moduan (ikus 15. Grafikoa), otsailak 14tik 28ra bitartera, lau egunkarietan 22 testu egon ziren.


**15. Grafikoa.** Testu kopurua dataren arabera<sup>76</sup>



Grafikoan ikus daiteke, testu kopurua erabat handitu egin zela martxoak 1etik 30era, non honen arrazoa martxoaren 8a izan daiteke, mundu mailan ospatzen den emakumeen nazioarteko eguna. Azkenik, apirilak 1etik 13ra bitartean, guztira 25 testu egon ziren lau egunkarietan.

Hirugarrenik, egunkari desberdinen kopurua aztertzen badugu dataren arabera, baita ere, ikus daiteke testu kopurua aldatu egiten dela (ikus 16. Grafikoa):

**16. Grafikoa.** Testu kopurua egunkarietan epearen arabera<sup>77</sup>



Grafikoan ikusten den moduan, *Diario Vasco* egunkariak hiru epealdietan, beste hiru egunkariet baino testu kopuru handiagoa izan zuen. Nabarmena da halaber, lehen aipatu dugun moduan, martxoaren 1etik 30era bitartera, lau egunkarien testu kopurua

<sup>76</sup> Grafikoa lanerako berariaz sortua izan da.

<sup>77</sup> Grafikoa lanerako berariaz sortua izan da.

handitu egin zela, honen arrazoa, lehen aipatu dugun moduan, martxoaren 8an mundu mailan ospatzen den emakumeen nazioarteko eguna izan liteke.

Laugarrenik, ondorengo taulan, egunkari bakoitzean egon diren testu kopuruen inguruko datuak aurkezten dira. Nabarmendu daiteke, lehen begirada batean, testu kopurua erabat desberdina izan dela (ikus 17. Taula).

#### 17. Taula. Testu kopuru osoa egunkariz egunkari<sup>78</sup>

	<i>Diario Vasco</i>	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	<i>Berria</i>	<i>Gara</i>	Guztira
<b>Testu kopurua</b>	77	39	12	17	145
<b>Portzentajea</b>	%53,10	%26,89	%8,27	%11,72	%100

Taulan ikus daitekeen moduan, emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten testu gehienak *Diario Vasco* egunkarian argitaratu dira, guztira 77 testu (%53,10a). Bigarrenik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian 39 testu egon dira guztira (%26,89a) eta hirugarrenik, *Gara* egunkarian 17 testu (%11,72a). Azkenik, *Berria* izan da epealdi honetan testu kopuru txikiena izan duen egunkaria, guztira 12 testu (%8,27a). Esan daiteke beraz, testu kopuruaren kasuan epealdi honetan aztertutako lau egunkarien arteko diferentzia oso handia izan dela.

Bosgarrenik, testuen hitz kopurua osoa egunkariz egunkariz aztertzen badugu (ikus 18. Taula), epealdi honetan guztira 64.350 hitz egon dira. Kasu honetan ere, aurretik aipaturiko taularen ordena berbera jarraituko litzateke; lehen lekuan, *Diario Vasco* egunkaria 35.010 hitzekin (%54,40a); bigarren lekuan, *Noticias de Gipuzkoa*, guztira 17.972 hitzekin (%27,92a); hirugarren lekuan, *Gara* guztira 7.058 hitzekin (%10,96); eta azkenik, *Berria* egunkaria, guztira 4.310 hitzekin (%6,69).

#### 18. Taula. Hitz kopuru osoa egunkariz egunkari<sup>79</sup>

	<i>Diario Vasco</i>	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	<i>Berria</i>	<i>Gara</i>	Guztira
<b>Hitz-kopurua</b>	35.010	17.972	4.310	7.058	64.350
<b>Portzentajea</b>	%54,40	%27,92	%6,69	%10,96	%100

Esan dezakegu, aurreko taularekin konparatzen badugu, erabateko korrelazioa dagoela testu kopurua osoa eta testuen hitz kopuru osoa egunkari desberdinetan, izan ere, testu kopurua bat egiten baitu hitz-kopuruarekin.

<sup>78</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

<sup>79</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

Seigarrenik, testu-motak bereizten baditugu (ikus 19. Taula), ondorengo datuak agertzen dira:

### 19. Taula. Testu-motak: kopuruak eta portzentajeak<sup>80</sup>

Testu-mota	Kopurua	Portzentajea (%tan)
<b>Albistea</b>	112	%77,24
<b>Albiste laburra</b>	17	%11,72
<b>Elkarrizketa</b>	9	%6,24
<b>Erreportajea</b>	4	%2,75
<b>Iritzia</b>	3	%2,06
<b>Guztira</b>	145	%100

Ikertutako 145 testuetatik, gehienak albistek izan dira, guztira 113 (%77,93a). Bigarrenik, eta kopuru askoz ere baxuagoarekin, albiste laburrak daude, guztira 17 (%11,72a). Hirugarrenik, emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten 8 elkarrizketa bakarrik egin dira (%5,51). Laugarrenik, erreportaje formatua izan duten 4 testu egon dira guztira (%52,75a) eta azken tokian, indarkeria matxistaren inguruko 3 iritzizko albiste egon dira guztira (%2,06a). Beraz, honek pentsatzera eramaten gaitu, behintzat epealdi honetan, egunkariak ez dutela erabateko funtzio hezitzailea egiten, izan ere, nagusitzen diren testu-mota gehienak kasuen albistek direlako, eta elkarrizketena edo iritzi-testuena kopuruz txikiagoa delako eta elkarrizketena edo iritzi-testuena kopuruz txikiagoa delako.

Zazpigarrenik, aztertzen badugu zer gai jorratzen diren testuetan, jarrian jasota dagoen banaketa azaleratzen da (ikus 20. Taula):

### 20. Taula. Gaien pisu erlatiboa<sup>81</sup>

Gaia	Kopurua	Portzentajea
<b>Indarkeria matxistari buruzko kasuak</b>	60	%41,37
<b>Indarkeria matxistari buruzko datuak</b>	25	%17,24
<b>Indarkeria matxista orokorrean</b>	24	%16,55
<b>Indarkeria matxista eta legea</b>	12	%8,27
<b>Indarkeria matxistari buruzko elkarrizketak</b>	9	%6,24
<b>Indarkeria matxistari buruzko manifestazioak</b>	5	%3,44
<b>Indarkeria matxista eta zigorra</b>	4	%2,75
<b>Indarkeria matxistarentzako laguntzak</b>	4	%2,75
<b>Indarkeria matxistari buruzko omenaldiak</b>	1	%0,68
<b>Indarkeria matxistari buruzko hitzaldiak</b>	1	%0,68
<b>Guztira</b>	145	%100

<sup>80</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

<sup>81</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

Epealdi honetan, indarkeria matxistarekin zerikusia izan duten testu gehienak, kasuen ingurukoak izan dira: 60 testuekin (%41,37a) hain zuzen ere. Bestetik, indarkeria matxistari buruzko datuekin zerikusia izan duten 25 testu argitaratu dira (%17,24a). Honen atzean, 24 testu argitaratu dira indarkeria matxista orokorrean hitz egin dutenak (%16,55a). Test kopuru baxuagoarekin, indarkeria matxista eta legeekin zerikusia izan duten testuak argitaratu dira, 12 testu hain zuzen ere (%8,27a). Ondoren, indarkeria matxistari buruzko 9 elkarrizketa (%6,24a) eta indarkeria matxistari buruzko manifestazioen inguruan hitz egin duten 5 testu argitaratu dira (%3,44a). Gainera, indarkeria matxista eta zigorrarekin zerikusia izan duten 4 testu eta indarkeria matxistari buruzko laguntzez hitz egin duten beste 4 testu argitaratu dira (bakoitzak %2,75arekin). Azkenik, testu bana egon dira indarkeria matxistari buruzko omenaldien eta hitzaldien inguruan mintzatu direnak (bakoitzak %0,68arekin). Kasu honetan, ondorioztatu daiteke lau egunkariak argitaratutako 145 testuetatik, joera dago indarkeria matxistarekin zerikusia duten kasuak argitarazteko (%41,37a), eta beste gaiek aldiz, pisu erlatibo txikiagoa dute.

Zortzigarrenik, gaien pisu erlatiboa egunkariz egunkari aztertzen badugu, ikus daiteke egunkari desberdinetan gaien pisu erlatiboa aldatu egiten dela (ikus 21. Taula):

## 21. Taula. Gaien pisu erlatiboa egunkariz egunkari<sup>82</sup>

Gaia	Diario Vasco		Noticias de Gipuzkoa		Berria		Gara		Guztira
Indarkeria matxistari buruzko kasuak	40	%51,94	12	%30,76	3	%25	5	%29,41	60
Indarkeria matxistari buruzko datuak	11	%11,28	9	%23,07	2	%16,66	3	%17,64	25
Indarkeria matxista orokorrean	13	%16,88	6	%15,38	-	-	5	%29,41	24
Indarkeria matxista eta legea	6	%7,79	3	%7,39	1	%8,33	2	%11,76	12
Indarkeria matxistari buruzko elkarrizketak	2	%2,59	4	%10,25	3	%25	-	-	9
Indarkeria matxistari buruzko manifestazioak	1	%1,29	-	-	2	%16,66	2	%11,76	5
Indarkeria matxista eta zigorra	1	%1,29	3	%7,39	-	-	-	-	4
Indarkeria matxistaren-tzako laguntzak	2	%2,59	1	%2,56	1	%8,33	-	-	4
Indarkeria matxistari buruzko omenaldiak	-	-	1	%2,56	-	-	-	-	1
Indarkeria matxistari buruzko hitzaldiak	1	%1,29	-	-	-	-	-	-	1
<b>Guztira</b>	<b>77</b>	<b>%100</b>	<b>39</b>	<b>%100</b>	<b>12</b>	<b>%100</b>	<b>17</b>	<b>%100</b>	<b>145</b>

Honekin esan daiteke, lehen esan dugun moduan, egunkari guztietan indarkeria matxistari buruzko kasuen inguruan gehiago mintzaten dela.

<sup>82</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

Bestetik, *Diario Vasco* egunkaria da indarkeria matxistari buruzko datuen inguruan gutxien mintzatzen dena, %11,28an. *Noticias de Gipuzkoa* lehenengo tokian dago %23,07arekin eta bere atzetik, *Gara* %17,64arekin eta *Berria* %16,66arekin. Gainera, aipagarria da esatea, *Berria* egunkaria dela elkarrizketa gehien egiten dituen egunkaria indarkeri matxistari dagokionez, %25ean hain zuzen ere eta aldiz, *Gara* egunkaria da elkarrizketarik ez duen egunkari bakarra.

Baita ere, *Berria* egunkaria indarkeria matxistarekin zerikusi duten manifestazioen inguruan gehien hitz egiten duen egunkaria da, *Gara* egunkariarekin batera. Hala ere, lau egunkarietatik, *Gara* da indarkeria matxista orokorrean eta indarkeria matxistari eta legeari buruz gehien hitz egiten duen egunkaria.

Azkenik, sail desberdinetan agertzen diren testu kopuruak aztertzen baditugu (ikus 22. Taula), ondorengo emaitzak ematen dira:

## 22. Taula. Sail desberdinetan agertzen diren testu kopurua<sup>83</sup>

Saila	<i>Diario Vasco</i>		<i>Noticias de Gipuzkoa</i>		<i>Berria</i>		<i>Gara</i>		Kopurua
<b>Politika</b>	5	%6,49	1	%2,56	-	-	-	-	6
<b>Ekonomia</b>	2	%2,59	-	-	-	-	-	-	2
<b>Kultura</b>	1	%1,29	3	%7,69	-	-	2	%11,76	6
<b>Gizartea (Bertan, Espainia, Euskal Herria eta Gertakariak)</b>	50 (Gertakariak > 10)	%64,93 (Gertakariak > %12,98)	31	%79,48	11	%91,66	13	%76,48	105
<b>Gipuzkoa</b>	13	%16,88	-	-	-	-	-	-	13
<b>Kirola</b>	1	%1,29	1	%2,56	1	%8,33	-	-	3
<b>Mundua/Nazioartea</b>	3	%3,89	1	%2,56	-	-	-	-	4
<b>Iritzia</b>	-	-	2	%5,12	-	-	1	%5,88	3
<b>Eguneko gaiak</b>	-	-	-	-	-	-	1	%5,88	1
<b>Estiloa eta Jendea</b>	2	%2,59	-	-	-	-	-	-	2
<b>Guztira</b>	77	%100	39	%100	12	%100	17	%100	145

*Diario Vasco* egunkarian testuak "politika" sailean agertzen dira %6,59an, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian, aldiz, %2,59an eta *Berria* eta *Gara* egunkarietan, berriz, ez dira agertzen. Bestetik, *Diario Vasco* da egunkari bakarra %2,59an testuak ekonomia sailean sailkatzen dituena. Hirugarrenik, *Diario Vasco* egunkarian, gizartea (Bertan, Espainia, Euskal Herria eta Gertakariak) izeneko sailean agertzen dira %64,93an eta gertakariak izeneko sailean, berriz, %12,98an. *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian gizarte sailean agertzen dira %79,48an. *Berria* aldiz, gizarte sailean %91,66ko kasue-

<sup>83</sup> Taula lanerako berariaz sortua izan da.

tan agertzen dira eta azkenik, *Gara* aldizkarian %6,59an. “Gipuzkoa” saila *Diario Vasco* egunkariak bakarrik du eta 13 testu daude izendapen honetan sailkatuak daudenak.

“Kirola” sailean *Gara* egunkaria izan ezik, beste hiru egunkariak testu bana dute sail honetan. “Mundu/Nazioartea” sailean, *Diario Vascon* agertzen dira %3,89an, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian agertzen dira %2,56an eta *Berrian* eta *Garan* ez dago testurik sail honetan sailkatuta. “Iritzia” izeneko sailean, berriz, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian %5,12an agertzen dira eta *Garan* aldiz, %5,88an. Azkenik, “eguneko” gaiak izeneko sailean *Gara* da egunkari bakarra horrelako sailean sailkatuak duena eta estilo eta jendean saila, berriz, *Diario Vasco* da egunkari bakarra testu bakarrarekin.

Laburbilduz, ikusten da emakumearen aurkako indarkeria testuak sailkatzerako orduan, erabateko adostasun bat dagoela lau egunkarietan, izan ere, testuak, portzentaje handi batean, “Gizartea” sailean kokatzen dituztelako (nahiz eta *Diario Vasco* egunkariak testu batzuk “Gertakariak” bezala sailkatu). Horrek pentsatzera eramaten gaitu, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Berria* eta *Gara* egunkariak kontziente direla indarkeria mota honek gizartearen baitan sortzen den arazoa eta ondorioa dela eta horregatik “Gizartea” izeneko sailean sailkatzen dute.

Azkenik, ikusten da oso testu gutxi sailkatzen dituztela “ekonomia”, “politika” edo “kultura” sailetan. Izan ere, aurreko taulan ikusi dugun moduan (ikus 21. Taula), gai hauen inguruan hitz egiten duten testu oso gutxi daude.

### **3.2. Hitz-en agerpenen esangarritasunaren analisi estatistikoa**

Helburuak, metodologia eta baliabideak izeneko kapituluak aipatu dugun moduan, hirugarren helburu honen barnean, planteatu genuen beste helburuetako bat, gure corpusaren analisia egitea izan zen *WordSmith* (testu corpusen analisia egiten duen programa) eta *CopyCatch Gold 2* (testuak alderatzeko programa) izeneko baliabideen laguntzarekin eta baita ere, Auzitegiko Hizkuntzalaritzaren (Linguistika Forentsea) teknikak erabiliz, hain zuzen ere, Hizkuntzalaritza Konputazionalaren tresnak eta metodologiak baliatzen dituztenak. Tresna hauei esker, hitz horien agerpenen esangarritasunaren analisi estatistikoa bat egiten dute. Hori kontuan izanik, ondorengo analisiak egin ziren:

1. Corpus horretako testuetan dauden hitz-zerrenda osoa lortzea.
2. Egunkari bakoitzari dagokion azpi-corpusean agertzen diren hitz gaikoak eta hitz esklusiboak identifikatzea.

### 3. Hitzen konkordantziak bilatzea.

Lehenengo atalari dagokionez, hiru egunkarien “*WordList*” guztiak ateratako hitz kopuru guztien eta hitz horien maiztasunen bitartez, ondorengo taula sortu da:

Egunkariak	Hitz ezberdinen kopurua	Lehenengo 10 hitzak	Maiztasunak	Portzentajea (%tan)
<b>Diario Vasco</b>	19.422	Mujer/Mujeres	367	%9,35
		Violencia	359	%9,15
		Género	183	%4,66
		Víctima/Víctimas	161	%4,09
		Casos	102	%2,6
		Machista	101	%2,57
		Pareja	94	%2,39
		Hombre	88	%2,24
		Marzo	74	%1,88
		Madrid	72	%1,83
<b>Noticias de Gipuzkoa</b>	8.074	Mujer/Mujeres	169	%10,23
		Violencia	155	%9,39
		Víctima/Víctimas	80	%4,29
		Género	63	%3,81
		Machista	52	%3,15
		Sociedad	41	%2,48
		Medidas	40	%2,42
		Protección	34	%2,06
		Casos	33	%1,99
		Marzo	28	%1,69
<b>Gara</b>	3.506	Mujer/Mujeres	83	%12,08
		Violencia	56	%8,15
		Igualdad	40	%5,82
		Género	36	%5,24
		Víctima/Víctimas	29	%4,22
		Machista	28	%4,07
		Euskal Herria	23	%3,35
		Casos	19	%2,76
		Nafarroa	19	%2,76
		Plan	19	%2,76

*Berria* egunkariaren kasuan, hauek izan ziren gehien erabiltzen diren lehenengo hamar hitzak: “emakume”, “indarkeria”, “kasu”, “matxista”, “eraso”, “genero”, “gizarte”, “biktima”, “botere” eta “andre”.

Taula honen bitartez ikus daiteke lau egunkarietako gehien erabiltzen dituzten lehenengo 10 hitzen artean erabateko konkordantzia bat dagoela, izan ere, maiztasun handiarekin “mujer/mujeres”, “violencia”, “género”, “víctima/víctimas”, “machista” hitzak direlako gehien erabiltzen direnak. Bestetik, “casos” hitza daukagu, emakumearen aurkako indarkeriari erreferentzia eginez, non nahiz eta *Diario Vasco* eta *Berria* egunkarietan goreneko postuetan egon, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara* egunkarietan, aldiz, maiztasun txikiagoarekin erabiltzen dituzte.

Honekin batera, aipagarria da baita ere, *Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarietan maiztasun txikiagoarekin “marzo” hitza aipatzen dutela, izan ere, erreferentzia egiteko martxoak 8ari. Beste egunkarietako aldiz, ez dute kontzeptu hau maiztasun handiarekin erabiltzen.

Azkenik, ikus daiteke lau egunkarietan maiztasun txikiagoarekin kontzeptu desberdinak erabiltzen dituztela.

Lehenik, *Diario Vasco* egunkariak, “pareja”, “hombre” eta “Madrid” hitzak erabiltzeko joera dauka. Esan dezakegu hitzen horien bitartez, erreferentzia egin nahi diotela emakumearen aurkako indarkeriari, hau da, bikotekide barruan ematen den indarkeria bezala eta gizonezkoek burutua dela. “Madrid” hitzarekin, esan daiteke, *Diario Vasco* egunkariak ez dituela bakarrik Euskal Autonomia Erkideko kasuen inguruan hitz egiten, baizik eta, Espainia mailan ematen diren kasuen inguruan ere mintzatzen dela; bigarrenik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak, “sociedad”, “medidas” eta “protección” hitzak erabiltzen ditu. Pentsatzera eramaten gaitu, egunkari honek, emakumearen aurkako indarkeria, gizartearen arazoa bezala ikusten duela eta emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten neurrietan enfasia jartzen duela. Baita ere, emakumeeri babesa eman behar zaiola.

Bigarrenik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren kasuan, esan daiteke legislazioarekin edo antzeko testuinguruarekin zerikusia duten kontzeptuak erabiltzeko joera dute.

Hirugarrenik, *Gara* egunkariaren kasuan, “Euskal Herria”, “Nafarroa” eta “Plan” hitzak erabiltzen ditu maiztasun txikiago batean. *Diario Vasco* egunkariarekin aldentuz, kasu honetan *Gara* egunkariak Euskal Herrian gertatzen diren kasuen inguruan gehiago hitz egiteko joera dauka. Honekin batera, “Plan” hitzarekin, pentsatzera eramaten gaitu, *Gara* egunkariak emakumeei eman diezaioketen laguntzetan ere enfasia jartzen duela.

Azkenik, *Berria* egunkariaren kasuan, “botere” eta “andre” kontzeptuak erabiltzen ditu maiztasun txikiagoarekin. Honekin, esan daiteke “andre” hitzaren bitartez, emakumeari egin nahi diola erreferentzia eta bestetik, “botere” hitzaren bitartez, emakumearen aurkako indarkeria botere-hierarkien egituraketaren ondorioa dela.

Bestetik, “*KeyWords*” funtzioak erakusten digu zeintzuk diren egunkari bakoitzak duen diskurtsoetan gehien nabarmentzen dituzten hitzak edo kontzeptuak. Ondorioz, hitz horiekin zenbait familietan sailkatu dira, ondorengo orrialdeetan ikusi daitekeen moduan. Berdina gertatzen da egunkari bakoitzaren hitz eskusiboak aztertzen baditugu, izan ere, konturatu ginen bazeudela zenbait hitz egunkari guztietan agertzen ez zirenak eta hitz familia desberdinetan sailkatu zitekeenak.



Hori horrela, egunkariz egunkari agertzen diren “*KeyWords*”-ak, hitz esklusiboak eta hitzen konkordantziak<sup>84</sup> aztertuko ditugu.

Hasteko, *Diario Vasco* egunkariaren “*KeyWords*”-ak aztertzen baditugu, ondorengoak hitz-familietan sailkatu ditzakegu: biktimari erreferentzia, “biktimarioari” erreferentzia, delituari erreferentzia, erakundeei erreferentzia, erreferentzia geografikoak eta beste batzuk:

Hitz-familiak	Keywords <i>Diario Vasco</i>
<b>Biktimari erreferentzia</b>	Pareja, mujer, novia, victimas, hijo
<b>“Biktimarioari” erreferentzia</b>	Hombre, agresor, presunto
<b>Delituari erreferentzia</b>	Sucesos, erradicación, asesinatos, feminicidio
<b>Erakundeei erreferentzia</b>	Ministerio, sanidad, parlamento, sistema, institucional
<b>Erreferentzia geografikoak</b>	San Sebastián, Pamplona, Barcelona, Italia
<b>Beste batzuk</b>	Muerte, heridas, destacado, riesgo, igualdad

Orokorrean, ikusten da *Diario Vasco* egunkariak emakumearen aurkako indarkeriaren diskurtsoan, indarkeria honen aspektu zabal bat biltzen duela, izan ere, biktimari, delitugileari, delituari eta erakundeei erreferentzia egiten dioten hitzak erabiltzen dituelako.

Bestetik, *Diario Vasco* egunkariak dituen hitz esklusiboen kasuan, ikusten dugu badaudela hitz batzuk beraiek bakarrik erabiltzen dituztela:

Hitz-familiak	Hitz esklusiboak <i>Diario Vasco</i>
<b>Biktimari erreferentzia</b>	Pareja, victimas
<b>“Biktimarioari” erreferentzia</b>	Presunto, detenido, hombre, castigado
<b>Delituari erreferentzia</b>	Sucesos
<b>Indartzaileak</b>	Riesgo, gritó, temer, sumergida, violada, acuchilló, violó, insultó, propinó

Taula honen bitartez, ikusten da *Diario Vasco* egunkariak erabiltzen dituen hitz esklusiboen artean, joera handia duela krimenaren deskribapenarekin zerikusia duten hitzak erabiltzeko, izan ere, indartzaileak askotan erabiltzen ditu.

Hitzen konkordantziari dagokionez, *Diario Vasco* egunkariaren kasuan, “hombre” hitza, 88 esaldietan agertzen da:

<sup>84</sup> Hitzen konkordantziak ikusteko, ondorengo hitzak bilatu ziren (singularrean nahiz pluralean) *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara* egunkarietan: “hombre”, “mujer” “hombres” eta “mujeres”. *Berria* egunkarian, aldiz, “gizon” eta “emakume” hitzak arakatu ziren.

- "...vivienda de San Sebastián y el **hombre** "cogió un cuchillo y l..."
- "...el **hombre** que presuntamente mató..."
- "...tras asesinar a su pareja, un **hombre** acuchilló y asesinó ta..."

Hiru adibide hauen bitartez ikusten da, *Diario Vasco* egunkariak "hombre" hitza erabiltzen duela gehienetan erasotzailearen izena saihesteko edo ezkutatzeko asmoarekin.

"Mujer" hitzaren kasuan, *Diario Vasco* egunkarian 203 esaldietan agertzen da:

- "...bró el Día Internacional de la **Mujer**, una jornada para reivi..."
- "...elito de malos tratos sobre la **mujer**. La víctima solicitó pr..."
- "...osas amenazas sufridas por una **mujer** víctima de violencia ma..."

Kasu honetan, *Diario Vasco* egunkariak "mujer" hitza erabiltzen du emakumearen aurkako indarkeriari erreferentzia egiteko edo Emakumearen Egunari erreferentzia egiteko.

Bigarrenik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren "KeyWords"-ak aztertzen baditugu ondorengo familiak ikusten dira: biktimari erreferentzia, "biktimarioari" erreferentzia, legegintzari erreferentzia, erreferentzia geografikoak eta baloratzailleak.

Hitz-familiak	Keywords <i>Noticias de Gipuzkoa</i>
<b>Biktimari erreferentzia</b>	Pareja, afiliadas
<b>"Biktimarioari" erreferentzia</b>	Presunto, detenido, hombre
<b>Legegintza</b>	Penas, medidas, Urkullu, cumplimiento, alternativas, penas, protección
<b>Erreferentzia geografikoak</b>	Donostia, Brasil, Euskadi
<b>Baloratzailleak</b>	Riesgo, largo, temer, insostenible

Kasu honetan, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak bere diskurtsoan gehien nabarmentzen dituen hitzak edo kontzeptuak, legegintzarekin zerikusia dutenak dira, izan ere, zigorren eta neurrien inguruko lexikoak erabiltzeko joera dauka.

Bestetik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak dituen hitz eksklusiboak aztertzen baditugu, ikusten dugu badaudela hitz batzuk beraiek bakarrik erabiltzen dituztela:

Hitz-familiak	Hitz esklusiboak <i>Noticias de Gipuzkoa</i>
<b>Biktimari erreferentzia</b>	Mujer
<b>“Biktimarioari” erreferentzia</b>	Asesinos, hombres
<b>Delituari erreferentzia</b>	Sucesos, delictivo, delincuencia
<b>Legegintza</b>	Incumplimiento, procuradores, parlamentarias, jurídica, penas, ley, lehenakari, preventivas
<b>Beste batzuk</b>	Estrangulados, acometidas, desgracia, quemada

Kasu honetan ere, aurretiaz aipatu dugun moduan, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak legegintzarekin zerikusia duten hitz esklusiboak nabarmentzen ditu.

*Noticias de Gipuzkoa* egunkarian, aldiz, 15 esaldi daude “hombre” hitzarekin:

- “...el cual, en otras ocasiones el **hombre** también “le amenazaba...”
- “...rato no habitual. Asimismo, el **hombre** no podrá aproximarse a...”
- “...undo corte en el cuello y a un **hombre** herido grave por quem...”

*Diario Vasco* egunkarian gertatzen den moduan, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian ere “hombre” hitza erabiltzen dute erasotzailearen izena saihesteko edo ezkutatzeke asmoarekin.

“Mujer” hitza, aldiz, 65 esaldietan agertzen da:

- “...define la violencia contra la **mujer** como la “consecuencia...”
- “...juzgados de violencia sobre la **mujer** (más del 82 %) y en las...”
- “...adan el cuerpo sin vida de una **mujer** asesinada por su pareja...”

*Diario Vasco* egunkarian bezala, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian “mujer” hitza emakumearen aurkako indarkeria aipatzeko erabiltzen da, nahiz eta, zenbait kasuetan, Emakumearen Egunari erreferentzia egin.

Hirugarrenik, *Gara* egunkariaren “KeyWords”-ak aztertzen baditugu, ondorengoak agertzen dira: biktimari erreferentzia, delituari erreferentzia, erakundeei erreferentzia, kolektiboari erreferentzia, erreferentzia geografikoak, adjektiboak, berdintasuna eta garapenari erreferentzia eta gizarteari erreferentzia.

Hitz-familiak	Keywords Gara
<b>Biktimari erreferentzia</b>	Mujeres, encarceladas, mujer
<b>Delituari erreferentzia</b>	Feminicidio, agresión, casos, sexistas
<b>Erakundeei erreferentzia</b>	Departamentos, ayuntamiento, administración, Emakunde
<b>Kolektiboei erreferentzia</b>	LGTBI, feministas
<b>Erreferentzia geografikoak</b>	Euskal Herria, Nafarroa, Iruñea, Gazteiz
<b>Adjektiboak</b>	Sexistas
<b>Berdintasuna eta garapena</b>	Igualdad, desarrollo, trabajo, actuaciones, acciones, estratégicos, tratamiento, participación, colaborar
<b>Gizarteari erreferentzia</b>	Heteropatriarcal, empoderamiento

*Gara*, hitz-familia gehien agertzen den egunkaria da. Kasu honetan, aipatzekoa da, kolektiboei eta gizarteari erreferentzia egiten dioten hitzak erabiltzeko joera duela (*Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa* egunkarietan gertatzen ez den moduan). Gainera, *hitz asko* errebindikazioarekin edo aldarrikapenarekin zerikusia dute.

*Gara* egunkariaren hitz eskusiboen kasuan, hauek agertzen dira:

Hitz-familiak	Hitz eskusiboak Gara
<b>Biktimari erreferentzia</b>	Mujeres
<b>“Biktimarioari” erreferentzia</b>	Victimario, victimaria, misógino
<b>Delituari erreferentzia</b>	Sexistas, «feminicidio», ascendió
<b>Legegintza</b>	Procedimientos, abolición, institucional
<b>Adjektiboak</b>	Abrumadores, agotamiento
<b>Beste batzuk</b>	Discriminaciones, estereotipos, victimización, revictimizando
<b>Gizarteari erreferentzia</b>	Patriarcado

*Gara* egunkariaren kasuan, aipatzekoa da “victimario”, “victimaria” eta “victimización” bezalako hitzak erabiltzen dituztela, beste egunkarietan aurkitu ezin daitezkeenak.

Hitzen konkordantziari dagokionez, *Gara* egunkarian, berriz, “hombre” hitza duen 5 esaldi agertzen dira:

- “...a ejecutó el crimen junto a un **hombre** o la victimaria mata e...”
- “...Según comunicó la mujer, el **hombre** con el que convive le...”
- “...local de Getxo ha detenido a un **hombre** que agredió en la vía...”

Kasu honetan, esan daiteke “hombre” hitzari ez zaiola hainbesteko garrantzia ematen. Honen arrazoia izan daiteke, lehen esan dugun moduan, delitugileari errefe-

rentzia egiteko bestelako kontzeptuak hobesten dituzte, adibidez, “biktimario” (“victimario”).

Garan egunkarian, “mujer” hitza, aldiz, 13 esaldietan agertzen da:

- “...pero sí como «asesinato de **mujer**» por cuestiones como el...”
- “...da este pasado domingo por una **mujer** a manos de su pareja...”
- “...para acabar con la vida de la **mujer** y en un 30% se hizo con...”

Kasu honetan ere, aurreko bi egunkariet bezala, “mujer” hitza emakumearen aurkako indarkeriari erreferentzia egiteko

Azkenik, *Berria* egunkariaren kasuan, 22 esaldi agertzen dira “gizon” hitzarekin:

- “...eta Ertzaintzak 20 urteko **gizonezko** bat atzeman zuen...”
- “... Gasteizko Udaltzaingoak igandean **gizonezko** bat atxilotu zuen...”
- “...tugulako. Munduko krimenen %90 **gizonek** egiten dituzte...”

Berria egunkarian ere, nahiago dute “gizon” hitza erabili erasotzailearen identitatea ez jakiteko.

Bestetik, “emakume” hitza 63 esaldietan agertzen da:

- “...Gipuzkoako Abokatuak Elkargoak **emakumeen** aurkako indarkeriari...”
- “...atriarkatuak erabili egiten du **emakumeen** kontrako indarkeria...”
- “...dira emakumeen hilketak, baina **emakumeen** hilketa guztiak ez...”

Beste egunkariak bezala, kasu honetan ere, emakumearen aurkako indarkeria erreferentzia handiago ematen diote.

Azkenik, “hombres” eta “mujeres” hitzei dagokienez, hiru egunkarietan (*Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara* egunkarietan), “mujeres y hombres” bezalako esaldietan erabiltzen da, eta ez hainbeste ekintza burutu duen pertsonan edota biktiman zentratzeko. Adibidez ondorengo esaldietan ikusi daiteke:

- “...real y efectiva de **mujeres y hombres**...”
- “...oportunidades entre **mujeres y hombres**, como son el Consejo...”
- “...en la igualdad entre **mujeres y hombres**. La Diputación otorga...”

### 3.3. Ondorioak

- Aztertu dugun epealdian, esan dezakegu lau egunkarietan testu kopuru handiena, martxoaren 1etik 30era bitartera argitaratu dela. Agian, egun kopuruarengatik izan daiteke arrazoa, izan ere, ez genuelako aukerarik izan otsailaren eta apirilaren egun guztiak aztertzeko aukera. Baina beste arrazoi martxoaren 8a izan daiteke, emakumeen nazioarteko eguna alegia.
- Lau egunkarietatik, *Diario Vasco* egunkaria da epealdi honetan behintzat, emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten testu kopuru handiena argitaratu duena, guztira 77 testuekin. Beraz, esan dezakegu emakumearen aurkako indarkeriari trataera zabalena eman dion egunkaria *Diario Vasco* dela. Aldiz, trataera txikiena eman dion egunkaria, *Berría* da, 12 testu baino ez baititu argitaratu.
- Aurrekoaren ildora, kontuan hartu behar dugun beste ideia oso garrantzitsua da ea kasuen inguruan hitz egiteaz gain beste gaien inguruan hitz egiten duten. Kasu honetan, *Diario Vasco* egunkariak, indarkeria matxistari buruzko kasuak nabarmentzen ditu gehienbat, baina baita ere, indarkeria matxista kasuak ez direnean inguruan ere mintzatzeko joera dauka, nahiz eta kopuru baxuago batean izan, adibidez, datuak aipatuz edota indarkeriaren inguruan orokorrean hitz eginez. Bestetik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria, gehienbat indarkeria matxistari buruzko kasuen inguruan mintzatzen da, baina baita ere, indarkeria honen datuen, zigorren inguruan eta elkarrizketen inguruan hitz egitea garrantzia ematen dio. *Berría* egunkariaren kasuan, indarkeria kasuetan eta elkarrizketetan zentratzen da batik bat eta *Gara* egunkariaren kasuan, aldiz, emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko kasuetan eta indarkeria orokorrean hitz egitean.
- Epealdi honetan, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Berría* egunkariak emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten testuak, “Gizartea” izeneko sailean sailkatu dituzte: *Diario Vasco* %64,93an, *Noticias de Gipuzkoa* %79,48an, *Berría* %91,66an. *Gara* egunkariaren kasuan, %76,48an, “Kultura” izeneko sailaren barnean sailkatu ditu testuak. Honetan, aipagarria da *Diario Vasco* egunkariaren kasua aztertzea, izan ere, 77 testuetatik, 10 testu “Gertakariak” (gazteleraz “Sucesos”) sailean kokatu zituen. Hau erabat kontrajarriko litzateke “1. Komunikabideetako kodeen azterketa” kapituluaz aztertu dugunarekin, izan ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak “*Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta*

*autorregulaziokoa*” izeneko kode deontologikoan (Diario Vasco beste komunikabideekin batera sinatzailea dena), argi eta garbi aipatzen du kodearen 2. Puntuari, emakumearen aurkako indarkeria ez dela gertakari isolatu bat bezala kontsideratu behar. Ondorioztatu daiteke behintzat epealdi honetan, *Diario Vasco* egunkariak ez duela bete sinaturiko kode honetaz agertzen den puntua.

- Hiru egunkarien “*WordList*” guztien bitartez ikus daiteke hiru egunkarietako gehien erabiltzen dituzten lehenengo 10 hitzen artean erabateko konkordantzia dagoela, izan ere, maiztasun handiarekin “mujer/mujeres”, “violencia”, “género” eta “víctima/víctimas” hitzak dira lau egunkarietan gehien erabiltzen direnak.
- *Diario Vasco* egunkariak erabiltzen dituen lexiko gehiena emakumearen aurka burutu den krimenaren edo ekintza deliktiboaren ingurukoa da. Beraz, esan daiteke *Diario Vasco* egunkariak, behintzat epealdi horretan, bere diskurtsoa gehiago zentratzen dela krimenean, lexiko horiek erabiltzeko joera handia duelako.
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak, behintzat epealdi honetan, badirudi enfasi handiagoa jartzen diotela, legislazioan, auzitegietan edo antzeko testuinguruarekin zerikusia duen lexikoan, izan ere, zigorrak, neurriak, etab. bezalako hitzak erabiltzeko joera dutelako. Bestetik, agertzen diren hitz eskusiboaren artean, kasu honetan ere, aurretik aipatua erabat beteko litzateke, izan ere, legeak eta zigorren testuinguruari erreparatzen diote, krimenaren ezaugarri garrantzi handia eman gabe.
- *Gara* egunkariaren kasuan, kontrako egoera emango litzateke, izan ere, erabiltzen duen lexiko gehiena, behintzat epealdi honetan, errebindikazioarekin edo aldarrikapenarekin zerikusia izaten dute, enfasi handiagoa emanez. Bestetik, egunkari honen kasuan aipatzekoa da “biktimario” edo “biktimizazioa” bezalako termino teknikoagoak erabiltzen dituztela, beste egunkarietan erabiltzen ez direnak.
- Hitzen konkordantziei dagokionez, esan daiteke lau egunkarietako orokorrean, “hombre” eta “gizon” hitza erabiltzen dutela gehienetan erasotzailearen izena saihesteko edo ezkutatzeko helburuarekin. Eta “hombres” eta “mujeres” hitzari dagokionez, hiru egunkarietan, “*mujeres y hombres*” bezalako esaldietan erabiltzen da, eta ez hainbeste ekintza burutu duen pertsonan edota biktiman zentratzeko.

## V. KAPITULUA - KONKLUSIOAK

Lehenengo kapituluaren hasieran, generoaren kontzeptuaz, genero indarkeria definizioaren inguruan, genero indarkeriaren arrazoen inguruan, indarkeri mota honek emakumeengan eragiten dituen ondorioaz eta datuen inguruan mintzatu gara. Honekin esan daiteke, emakumearen aurkako indarkeria egiturazko indarkeria baten ondorioz ematen dela, gizartearen baitan kokatzen den egiturazko sistema batean. Gainera, indarkeria aipatzeko bestelako kontzeptuak daudela ikusi ditugu, batzuk besteak baino gehiago hobetsiz.

Oro har, genero indarkeria zer den azaltzeaz gain, indarkeria honetan dauden legeen inguruan ere mintzatu gara. Ikusi dugun moduan, bai nazioarte mailan, estatu mailan eta autonomia erkidego mailan, lege anitz aurreikusten dira. Esan beharra dago erabat adierazgarriak direla lege arloan egindako aurrerapen handiak, izan ere, Estatu-tuko, Nazioarteko eta Autonomia Erkidegoetako Erakundeek emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errefusatzeko dituztelako. Honekin batera, lege horien bitartez ahaleginak egiten saiatzen dira gizartea sentibilizatzeko eta indarkeria honekin ezabatzen laguntzeko.

Bigarren kapituluaren hasieran, ikusteko aukera izan dugu komunikabideak gure gizartearen parte diren heinean, oso garrantzitsuak direla errealitateari forma emateko, interpretatzeko eta eraikitzeko. Izan ere, komunikabideek kontziente dira gizartean duten eragin sozialaz, batez ere, emakumearen aurkako indarkeria kasuen salaketetan edota dibulgazioan. Beraz, genero indarkeria komunikabideetan Espainian eboluzio bat egon zela ondorioztatu dezakegu, izan ere, honen hasiera, 80. hamarkadan eman zela esan genezake, emakumeen erakundeei eta bereziki, mugimendu feministei esker, izan ere, epe horren aurretik, emakumearen aurkako indarkeriak ez zuen lortu Espainiako prentsan benetako garrantzia lortzea. Geroago, 1997. urteko abenduaren 4an, Ana Orantesen kasua gertatu zen, emakumearen aurkako indarkeriaren historian inflexio puntu bat bezala kontsideratu zen kasua alegia. Erailketa honek gizartean erabateko erreakzio sortu zuen, emakumeek pairatzen zuten indarkeriaren arazoa ikusgarri eginez eta estatu mailan lege aldaketak ekarriz.

Atal enpirikoari esker, komunikabideen araudia genero indarkeriaren trataera aztertzeko aukera izan dugu. Lege horietan oinarrituta, martxan jarri dira emakumearen aurkako indarkeriaren trataera egokia egiteko autoerregulazio kodeak. Ikusi dugunez, azterturiko bost autoerregulazio kodeetan agertzen den edukia, kasu batzuetan desberdina da, baina orokorrean esan daiteke edukiek bat egiten dutela.



Baina protokolo horietan lan egiteen duten pertsonak edo jarraipena egiten duten pertsonak, orokorrean eszeptikoak dira autorregulazio-kodeekin nahiz komunikabideek duten rolarekin. Hau da, autoerregulazio-kodeak eta komunikabideak ezinbestekoak direla pentsatzen dute eta honekin batera, lagundu dezaketela emakumearen aurkako indarkeriaren tratamenduan. Hala eta guztiz ere, aipatzen dute komunikabideak eboluzio-bide batean daudela, izan ere, nahiz eta hobekuntza bidean egon emakumearen aurkako indarkeriaren trataeran, oraindik ez dute komunikabideek trataera modu egoki batean egiten, komunikabideen kezken inguruan, emakumearen aurkako indarkeria agertzen ez delako.

Beraz, beraiek dioten moduan, kodeen eragina txikia da, aplikazio oso mugatuarekin eta interpretazio oso erlatiboarekin. Izan ere, epealdi honetan ikertu ditugun joerak eta mezuak oso desberdinak dira ondorioz, protokolo horiek gutxienez ez daukatela interpretazio eta aplikazio unibertsal bat, bestela diskurtsoa paretsuak izango litzateke. Horrek esan nahi du, bigarren kapituluaren komentatu dugun moduan, komunikabideek gizartean inpaktua dutela, eta ikusten da zein komunikabidetara jotzen duzunaren arabera edo zein komunikabide jarraitzen duzun, zuri eragingo dizun edo jasoko duzun diskurtsoa desberdina izango dela eta sortuko den pertzepzio soziala ere desberdina izango dela.

Ondorioz, garbi dago egunkarietatik zabaltzen diren diskurtsoak desberdinak diren heinean, gizartearen pertzepzio soziala ere kontraesankorrak edo ezberdinak izango dira. Horregatik, komenigarria izango litzateke gai honetan kontsentsu bat edo adostasun bat bilatuko bagenu. Izan ere, askotan esaten da hezkuntza dela konponbide nagusia emakumearen aurkako indarkeriarentzat. Eta egia da. Izan ere, berdintasunezko hezkuntza baten bitartez, berdintasunean oinarrituko gizarte bat eraiki daiteke.

Baina komunikabideek ere hezkuntza bezain besteko inpaktua dute, eta berdintasunean oinarritutako gizartearen sortu, garatu eta zabaldu dezakete. Baina lehenik eta behin, helburu hori lortzeko kontuan izan behar dugu komunikabideetan ere, hezkuntzan bezala, esku-hartzea egin beharko litzatekeela. Honetan esan beharra dago kriminologoaren eremuen artean, delitugilearen gaineko esku-hartzea burutzea dela (García-Pablos de Molina, 1989: 84 or.). Gure kasuan, ez gara delitugileen inguruan hitz egiten ari, baina bai proposatu dezakegu esku-hartzea gai honetan. Zein esku-hartze mota?

Agian legeak aldatuz, komunikabideek aurreikusiak dituzten protokoloen jarraipenak eginez edota emakumearen aurkako indarkeria komunikabideetan dituzten trataera bezalako ikerketa desberdinak eginez. Adibidez, hortxe daukagu Lucia Martinez Odriodola, UPV/EHU-ko Kazetaritza saileko irakaslea eta bere garaian, Euskal Kazetarien Elkarteko presidentea, hemen egin dugun ikerketa baino serioagoa eta sakonagoa egiten eta agian, horrelako ikerketei egin beharko genioke kasu.

Gainera, ikertzaile horiek ere agian, kriminologiaren laguntza eskertu dezakete, izan ere, lan honen bitartez erakutsi nahi dugu guk ere badaukagula zer ekarria, perspektibak erantsi ditzakegula, beste marko zabalago bat eman. Beraz, beraiekin lankidetzan, denok artean lortu dezakegu komunikabideek emakumearen aurkako indarkeriaren trataera ahalik eta egokiena egitea.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Acale Sánchez, M. (2005). Los nuevos delitos de maltrato singular y de malos tratos habituales en distintos ámbitos, incluido el familiar. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 11-54.
- Aldundia, G. F. (2012). *II Plan Foral para igualdad de mujeres y hombres. 2012-2020*.
- Aldundia, G. F. (2014). *Indarkeria Matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria*.
- Aranguren, T., Asumendu, E., Barandiaran, S., Jauregi, A., Muñagorri, A., & Zabalondo, B. (1998). *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa.
- Bandrés Goldáraz, E. (2011). Propuesta para el tratamiento eficaz de la violencia de género. *IC-Revista Científica de Información y Comunicación*(8), 113-138.
- Barrenetxea Beaskoetxea, E. (2010). Género-indarkeria eta babes-aginduari buruzko hausnarketa. *Eleria: Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, 5-28.
- Berganza Conde, M. (2000). *Comunicación, opinión pública y prensa en la sociología de Robert E. Park*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Carrasco Gómez, J. J., & Maza Martín, J. M. (2010). *Trado de Psiquiatría legal y forense* (4.ª Edición ed.). Madrid: LA LEY.
- Castelló Blasco, J. (2005). *Dependencia emocional: características y tratamiento*. Madrid: Alianza Editorial.
- Castells, C. (1996). *Perspectivas feministas en teoría políticas*. Barcelona: Paídos Ibérica.
- Cuéllar, P. (07 de Enero de 2017). *Breve Historia de la Violencia de Genero*. Recuperado el 02 de 03 de 2017, de Actuallynotes.com: <http://www.actuallynotes.com/actually-notes-breve-historia-de-la-violencia-de-genero-htm/>
- Curran, J. (2007). *Medios de comunicación y poder en una sociedad democrática*. Barcenola: Hacer.
- de Andrés, P. (2006). Violencia de género y salud. *Jornadas Estatales: Sinergias Invisibles. III Jorndas sobre Violencia de Género y VIH* (pág. 11). Madrid: Creación Positiva.
- Emakunde. (2009). *Drogak eta generoa*. Farapi S.L. 48-75.
- Emakunde. (2009). Emakumeen aurkako indarkeria. 1-39.
- Emakunde. (2015). *Emakumeen aurkako indarkeria EAE-n.Amaierako txostena:2014ko eta 2015eko lehen seileko datuak*.

- Espinar Ruiz, E., & Hernández Sánchez, M. I. (2012). El periodismo de paz como paradigma de comunicación: para el cambio social: características, dimensiones y obstáculos. *CIC Cuadernos de Información y Comunicación*, 17, 175-189.
- Facio Montejo, A. (2011). "Viena 1993, cuando las mujeres nos hicimos humanas". *Pensamiento Iberoamericano*, 3-20.
- Facio, A., & Fries, L. (2005). Feminismo, género y patriarcado. *Revista sobre enseñanza del Derecho de Buenos Aires*(6), 259-294.
- Faraldo-Cabana, P. (2006). Razones para la introducción de la perspectiva de género en Derecho Penal a través de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre. *Revista Penal La Ley*, 72-94.
- Fisas, V. (1998). *Cultura de paz y gestión de conflictos*. Barcelona: Icaria.
- Formas y tipos de violencia*. (s.f.). Recuperado el 01 de Abril de 2017, de No más violencia de género. Jose Antonio Burriel: <http://nomasvg.com/informacion-sobre-violencia-de-genero/formas-y-tipos-de-violencia/>
- Fuentes, M. O. (2003). *Respuesta institucional a la violencia contra las mujeres en la CAPV*. ARARTEKO.
- Gamba, S. (2008). *Feminismo: historia y corrientes*. Recuperado el 30 de Enero de 2017, de Mujeres en Red. El periódico feminista: diskurtso teorikoa eta mugimendua eta presio taldea.
- García Muñecas, N., & Rasero Romero, M. C. (2007). Problemática sociológica de las mujeres inmigrante víctimas de delitos en la CAE. *Eguzkilo*(21), 263-272.
- García-Pablos de Molina, A. (1989). La aportación de la Criminología. *Eguzkilo*(3), 75-95.
- Hernández García, Y. (2006). Acerca del género como categoría analítica. *Nómadas. Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas*(13), 1-10.
- Jaurilaritza, E. (2009). *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa*. Gazteizen.
- Jaurilaritza, E. (2011). *Jaurilaritzaren jarduteko I. Plana, genero-indarkeriaren kontra*. Gazteizen.
- La lucha contra la violencia de género, p. a. (16 de Octubre de 2006). Recuperado el 5 de Enero de 2017, de TIEMPO: <http://www.tiempodehoy.com/espana/la-lucha-contra-la-violencia-de-genero-paso-a-paso#>
- Laguna Paradas, T. (2009). El compromiso de los medios de comunicación en la erradicación del problema de la violencia de género. En J. M. Paniagua, E. Martínez García, & G. Montiel Roig, *Retos de la Comunicación ante la*

*Violencia de género. Marco Jurídico, Discurso mediático y Compromiso social* (págs. 287-293). Valencia: tirant lo blanch.

*Legislación española sobre la violencia de género.* (s.f.). Recuperado el 18 de Marzo de 2016, de No más violencia de género. Jose Antonio Burriel: <http://nomasvg.com/legislacion/>

López Díez, P. (2002). La violencia contra las mujeres en los medios de comunicación. *I Foro Nacional "Mujer, violencia y medios de comunicación"* (págs. 21-34). Madrid: Instituto de la Mujer e Instituto Oficial de Radio y Televisión (RTVE).

López Díez, P. (2009). Los medios de comunicación y la violencia de género. 1-21.

López Samaniego, L. (2011). *Violencia de género/doméstica y Salud Mental: Perspectiva holística a través de participantes clave de la sociedad.* Alicante: Tesis Doctorales.

López, E. (04 de 2005). Violencia doméstica versus Violencia de género. *Mujeres en red. El periódico feminista*, 1-2. Recuperado el 01 de 02 de 2017, de <http://www.mujeresenred.net/spip.php?article149>

Lorente Acosta, M. (2009). ¿Qué papel pueden tener los medios de comunicación de masas en la erradicación de la violencia de género al amparo de la ley integral? En J. M. Paniagua, E. Martínez García, & G. Montiel Roig, *Retos de la Comunicación ante la Violencia de género. Marco Jurídico, Discurso mediático y Compromiso social* (págs. 49-63). Valencia: tirant lo blanch.

Loscertales, F. (2003). Estereotipos discriminatorios que afectan a las mujeres. En M. d. Ramírez Alvarado, *Medios de comunicación y violencia contra las mujeres* (págs. 96-111). Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer y Fundación Audiovisual de Andalucía.

Márquez, A. (30 de Mayo de 2008). *Violencia de género, siglos de historia.* Recuperado el 01 de Marzo de 2017, de El Periódico Extremadura: [http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/opinion/violencia-genero-siglos-historia\\_376986.html](http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/opinion/violencia-genero-siglos-historia_376986.html)

Martín Serrano, M. (2004). *Presentación de la Teoría Social de la Comunicación.* Madrid: Alianza.

Martínez Galiano, J. M. (2010). Importancia del Sistema Sanitario en la Identificación de Casos de violencia de género. *ENE Revista de enfermería*, 2(4), 19-23.

Menéndez Menéndez, M. I. (2010). *Representación mediática de la violencia de género: Análisis de la prensa balear (2004-2008).* Palma: Edicions UIB.

Ménendez Ménendez, M. I. (2014). Retos periodísticos ante la violencia de género. El caso de la prensa local en España. *Comunicación y Sociedad*, 53-77.

- Ministerio de Sanidad Servicios Sociales e Igualdad. (2015). *La atención primaria frente a la violencia de género. Necesidades y propuestas*. Madrid: Centro de Publicaciones.
- Molina, C. (2003). Género y poder desde sus metáforas. Apuntes para una topografía de patriarcado. En S. Tubert, *Del sexo al género. Los equívocos de un concepto* (págs. 123-159). Madrid: Ediciones Cátedra.
- Moreno Benítez, D. (2010). De “violencia doméstica” a “terrorismo machista”: el uso argumentativo de las denominaciones en la prensa. *Discurso & Sociedad*, 4, 893-917.
- Murgibe. (2009). *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloa*. Sorluze.
- Nicholson, L. (2003). La interpretación del concepto de género. En S. Tubert, *Del sexo al género. Los equívocos de un concepto* (págs. 47-81). Madrid: Ediciones Cátedra.
- Nogueira, C. (8 de Octubre de 2004). *El Congreso aprueba por unanimidad la ley integral contra la violencia de género*. Recuperado el 17 de Octubre de 2016, de El País: [http://elpais.com/diario/2004/10/08/sociedad/1097186401\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2004/10/08/sociedad/1097186401_850215.html)
- Osakidetza, & Osasun eta Kontsumo Saila. (2011). Osasun arloko langileen egiteko Genero Indarkeriaren aurka: Erronkak eta aukerak., (págs. 1-14). Vitoria-Gazteiz.
- Osasun, G. Z. (s.f.). *Gure historia*. Recuperado el 31 de Marzo de 2017, de Instituto de la Mujer y para Igualdad de Oportunidades : <http://www.inmujer.gob.es/eu/ellnstituto/historia/home.htm>
- Osborne, R. (2008). La evolución del concepto de género. *Revista de Metodología de Ciencias Sociales*(15), 147-182.
- Osborne, R. (2009). *Apuntes sobre violencia de género*. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- Parrat Fernández, S. (2010). Consumo de medios de comunicación y actitudes hacia la prensa por parte de los universitarios. *Revista de estudios de comunicación - Zer*, 15(28), 133-149.
- Radl Philipp, R. M. (2011). “Medios de comunicación y violencia contra las mujeres. Elementos de violencia simbólica en el medio televisivo”. *Revista Latina de Sociología*(1), 156-181.
- Ramos de Mello, A. (2015). *Feminicidio: Un análisis criminológico-jurídico de la violencia contra las mujeres (Tesis Doctoral)*. Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona.

- Red, M. e. (01 de 2005). *Historia de la Ley Integral contra la violencia de género española*. Recuperado el 01 de 03 de 2017, de Mujeres en Red. El periódico feminista: <http://www.mujeresenred.net/spip.php?article1315>
- Romero Fernández, D. (2008). De parricidio a violencia machista: apuntes para una reflexión sobre la representación de los malos tratos en once años de información periodística. *Revista del Seminario Interdisciplinar de Estudios de las Mujeres de la Universidad de León*, 291-316.
- Rubin, G. (1986). El tráfico de mujeres: notas sobre la "economía política" del sexo. *Nueva Antropología*, VIII(30), 95-145.
- Russell, D., & Harmes, R. (2001). *Femicide in Global Perspective*. New York: Teachers College Press.
- San Martín García, A. F. (2012). *Violencia de género y cultura (Tesis Doctoral)*. Universidade da Coruña, A Coruña.
- Sans, M., & Sellarés, J. (2010). Detección de la violencia de género en atención primaria. *Revista Española Medicina Legal*, 104-109.
- Sanz, B. (2006). La opinión pública vasca y la violencia de género. En L. Ariznabarreta, & e. al., *Tratamiento de la violencia de género en la prensa vasca: Equipo de Investigación Género y Medios de Comunicación* (págs. 151-176). San Sebastian: Universidad de Deusto.
- Stoller, R. (1968). *Sex and Gender*. New York: Science House.
- Taulé, M., M.A. Martí, M. Recasens (2009). "AnCora: Multilevel Annotated Corpora for Catalan and Spanish", Proceedings of 6th International Conference on language Resources and Evaluation. [http://www.lrec-conf.org/proceedings/lrec2008/pdf/35\\_paper.pdf](http://www.lrec-conf.org/proceedings/lrec2008/pdf/35_paper.pdf)
- Toledo Velazquez, P. (2009). Controversias jurídicas entorno a la tipificación del feticidio/femicidio en países latinoamericanos. Un breve análisis. *Congreso internacional sobre modelos de prevención, atención y sanción de la violencia contra las mujeres*, (pág. 2). México.
- Tubert, S. (2003). *Del sexo al género. Los equívocos de un concepto* (Primera ed.). Madrid: Ediciones Catedra.
- Varela Menéndez, N. (2006). Medios de comunicación y violencia de género. II. *CONGRESO SOBRE VIOLENCIA DOMESTICA Y DE GENERO*, 1-13.
- Vázquez Mezquita, B. (2006). Malos tratos: el maltrato en la pareja como forma de maltrato global. *Manual de psicología forense*, 96-97.
- Vegas Aguilar, J. C. (2009). La posible responsabilidad de la administración en el tratamiento informativo de la violencia de género. En J. M. Bernardo Paniagua, E. Martínez García, & G. Montiel Roig, *Retos de la Comunicación ante la*

*Violencia de género. Marco jurídico, Discurso mediático y Compromiso social* (págs. 64-79). Valencia: tirant lo blanch.

Vidal Beltrán, J. M. (2009). Contenidos básicos, déficits y necesidades de la regulación y autorregulación de los medios de comunicación de masas españoles en materia de la violencia de género. En J. M. Paniagua, E. Martínez García, & G. Montiel Roig, *Retos de la Comunicación ante la Violencia de género. Marco Jurídico, Discurso mediático y Compromiso social* (págs. 97-114). Valencia: tirant lo blanch.

Wikipedia. (26 de Noviembre de 2016). *Felipe González*. Recuperado el 31 de Marzo de 2017, de Wikipedia Entziklopedia askea: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Felipe\\_Gonz%C3%A1lez](https://eu.wikipedia.org/wiki/Felipe_Gonz%C3%A1lez)

Wikipedia. (11 de Abril de 2017). *Convención de Seneca Falls*. Obtenido de Wikipedia La enciclopedia libre: [https://es.wikipedia.org/wiki/Convenci%C3%B3n\\_de\\_Seneca\\_Falls](https://es.wikipedia.org/wiki/Convenci%C3%B3n_de_Seneca_Falls)

Wikipedia. (26 de Marzo de 2017). *John Dewey*. Recuperado el 07 de Abril de 2017, de Wikipedia La enciclopedia libre: [https://es.wikipedia.org/wiki/John\\_Dewey#cite\\_note-unesco-1](https://es.wikipedia.org/wiki/John_Dewey#cite_note-unesco-1)



## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA.

GENERO INDARKERIAREN TRATAMENDURAKO KOMUNIKABIDEEN AUTOREGULAZIO KODEAK

## 1. “Manual de Urgencia sobre el tratamiento informativo de la violencia contra las mujeres, 2002”

### 1. Emakumeen duintasuna urratzen dituzten ereduak saihestu behar dira:

Kulturaren industriak, emakumearen eredu bat zabaldu egiten du bere duintasunaren kontra egiten duena (objektuaren irudia, irudi bikarioak, menderatutako irudiak). Edozer gauza egin behar da estereotipo horiekin amaitzeko. Emakumeen irudia zabaldu egin behar da komunikabideetan beraien biktimizazioa saihesteko. Emakume ingeniariak, margolariak, garraiolariak, medikuak, meatzariak...

### 2. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen kontrakoak dira:

Tratu txarrak, delituak dira, gizartearen arazo, guztiori dagokiguna. Tratu txarrak, ez dira gai pribatu bat, ezta ere etxeko kontu bat eta ezta ere, ustekabeko zorigaiztoko gertaera bat.

### 3. Ez nahastu morboa interes sozialarekin:

Tratu txarren biktima bat testigantza ona izan daiteke, baina ezin du izan gantxo publizitario bat izan behar. Indarkeria mota honentzat, “infoikuskizuna” ez da formatu egokia.

### 4. Emakumeen aurkako indarkeria ez da gertakari bat, ez ohiko albiste bat,

**ez urgentea ere:** Urgentea, arazoa konpontzea da. Ikertu, hausnarketarako denbora bat hartu eta informazioa testuinguruan jarri “emakumearen aurkako indarkeria” bezala ezagutzen dena. “Gertaerak” atalean edo kronika beltzean ez sartu.

### 5. Informazio-iturri guztiak ez dira fidagarriak:

Guztiekin hitz egin, baina irizpide batekin aukeratu. Mundu guztiak ezin du guztiaz hitz egin behar. Lekuko batzuk daude lagundu egiten dutenak, baina beste batzuk daude nahastu egiten direnak. Bikotekideen barnean dauden aurreiritziek, hondatzen egoera baten ondorioz, edo “haserrealdi puntual” batengatik indarkeria azaltzea eraman dezakete.

### 6. Informazio erabilgarria eman behar da, aldez aurretik aholkua eskatuz:

Albistea, tratu txarren ondorioz eman den hilketa da, baina baita ere, jarduketa judizial edo polizial eskasa, ereduzko zigorrak, beren bizitza berreraiki duten biktimak eta irteera azaltzen dutenak. Gainera, adituen iritzia arazoa modu egokian kokatzen laguntzen duten. Komenigarria da salaketa zuzenean ez premiatzea komunikabidetik, baizik eta, aurretiazko informazio eskuratzea. Saihestu daitezkeen arriskuak daude.

### 7. Erasotzailearen irudia identifikatu egin behar da eta biktimaren duintasuna errespetatu:

Erasotzailea argi eta garbi identifikatu egin behar da, bestela bere nortasunarekin, kautela judizialengatik, bai bere portaera. Honen arrazoia da beste

emakumeak laguntzea aukera izan dezaten erasotzailearen irudia identifikatu ahal izateko. Biktimari dagokionez, ezin da bere baimenik gabe erakutsi, ezta ere tentsio emozional momentuetan. Bere mina errespetatu eta itxoin bere autoestimua eta oreka berreskuratu arte. Onuragarriago izango da eta morbo gutxiago.

**8. Irudia ez da dena, ez erori sentsazionalismoan:** Irudiak pertsonaren duintasuna errespetatu behar du. Baliabide estetikoak eta gertaeren erreportajeen ohiko narratibak ezin dira emakumearen aurkako albisteetan erabili. Biktimen kriminalitatea saihestu behar da ezkutatzeko errekurtsoak erabiltzen direnean. Gertaeren berreraikuntzarekin zerikusia duten xehetasun korapilatsuak edo lehen planoko ubeldurez beteriko aurpegiak edo aurpegi negartsuek, ez dute arazoa identifikatzen laguntzen, bakarrik morboa edo biktimaren errukitasuna eragiten dute.

**9. Zenbakiak hainbat egoera adierazi ditzakete:** ondo informatu eta azaldu: Datuak, tratu txar mota eta lurraldetasun eremu desberdinei egiten die erreferentzia: bikotekide erlazio baten kanpo dauden biktimak, bizitza galtzen duten biktimak susperaldi epe baten ondorioz eta suizidio bezala kontsideratuak diren tratu txarren ondorioz eragindako suizidioak.

**10. Topikoak eta estereotipoak arinkerian eta hutsalakerian jaustea eragiten dute:** adjektiboei, esaerei eta topikoei arreta: kontrolaezina den arinkeria apur bat eragiten du. “Jeloskorra”, “edalea” edo “pertsona normala” bezalako kalifikatzaileak, edo “lagunekin ateratzen zen” edo “maitale bat zuen” bezalako esaldiek, zorigaitzaren benetako jatorrien atentziotik aldentzen dute eta irakurketa okerra eragiten du.

## **2. Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa**

2016ko uztailean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak *“Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autorregulaziokoa”* izeneko kode deontologikoa argitaratu zuen. Autoerregulazio kode hau sortzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak urte eta erdi baino gehiagoz, Euskadiko publizitate-agentzia eta komunikabideekin batera lan egin zuen erabat osatu den kode hau sortzeko, publizitaterako, kazetaritzarako eta emakumeen kontrako indarkeriaren tratamendurako dekalogoak edukiz. Beraz, emakumearen aurkako indarkeriaren arloan, kode honetan aurreikusita dagoen *“3. Eranskina. Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako dekalogoak”*-ren 10 puntuak aipatuko ditut:

### **1. Terminologia egokia erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren berri**

**emateko:** atal honetan, erabili behar diren terminoen inguruan hitz egiten da, ondorengo hauek hobetsiz: emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria matxista, gizonen emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria. Aitzitik, ondorengo termino hauek ez dira erabiliko: etxeko indarkeria, familia-indarkeria, familia barruko indarkeria, bikotekideen arteko indarkeria. Honen arrazoa da azken batean, termino hauek ez dituztelako emakumeen aurkako indarkeriari erreferentzia egiten, baizik eta, beste indarkeria-forma batzuk izendatzen dituzte.

### **2. Emakumeen kontrako indarkeria testuinguruan jartzea, eta zer den azal-**

**tzea:** puntu honetan, argi uzten da erabat beharrezkoa dela emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria nabarmentzea (emakumeek, emakume izate hutsagatik, gizonen aldean pairatzen dituzten egiturazko desberdintasunak), emakumeen aurkako indarkeria, bere forma guztietan, desberdintasun honen adierazpen latzena izanik. Horregatik, eta interes orokorrari begira, egiturazko desberdintasun hori nabarmendu egin behar da albistearen diskurtso osoan, eta inoiz ez gertaera, kasu edo gertakari isolatu bat balitz bezala. Gainera, informazioaren kontakizunak continuum gisa erakutsiko behar du emakumeen aurkako indarkeria, eta ez gertakari isolatu gisa moduan, hau da, emakume jakin batek sufritutako azken kasua bezala. Albistean ere, azaldu egin behar da zer den emakumeen aurkako indarkeria, zeintzuk diren emakumeen kontrako indarkeriaren kausak, nola identifika dezakegun indarkeria mota hori, nola gertatzen den eta zer egoeratan dauden kasu horietan indarkeria jasaten duten beste batzuk, hala nola emakume horien seme-alabak.

### **3. Emakumeari buruzko informazioa, eta indarkeria jasaten duten beste**

**batzuen:** indarkeria testuinguruan kokatzeko, haren kausak azaltzeko, gaitzespen soziala bultzatzeko eta indarkeria jasaten ari diren beste emakume batzuei egoera horri aurre egiten laguntzeko, ematen diren datuak lagungarri izan behar dira, beti ere, indarkeria jaso duen biktimaren eskubideak bermatuz. Biktimari dagokionez, biktimak nor diren zuzenean edo zeharka jakiten laguntzen duten daturik ez da emango (adingabeen kasuan adibidez). Horretarako, interes orokorrekoak diren datuak baino ez dira emango, biktimei eta haren ingurukoei dagokienez (adibidez, nazionalitatea, lanbidea edo hezkuntza-maila). Bestetik, biktimak lehenagotik duen egoera judizialari buruzko informazioa kontu handiz eman beharko da (kasu honetan, erasotzaileak lehenagotik zuen egoera judiziala aipatzea egokiagoa da). Gainera, eraildako emakumeen kasuetan, beraien bizitza-historia bat egitea baliagarria izan daiteke, gizartearen kondena handiagoa lortzeko edota enpatia sustatzeko.

**4. Erasotzaileari buruzko informazioa:** lehenik eta behin, kontuan izan behar da erasotzailearen edo haren ingurukoaren kontakizuna ez duela indarkeria jasaten duen emakumearen kontakizunaren gainetik egon behar. Bestetik, erasotzailearen daturik ez da zabalduko, baldin eta datu horiekin biktimak nor diren zuzenean edo zeharka jakiten laguntzen bada (adibidez, adingabeak badira). Erasotzailearen datu pertsonalak eman ez gero (adina, lanbidea, nazionalitatea edo hezkuntza-maila), testuinguruan kokatu dira. Erasotzailearen jokabidearen inguruko berriak emango dira (beste emakume batzuk eta haien ingurukoak ohartarazteko), erasotzailearen adierazpen errugabetzailerak saihestu egingo dira eta erasotzaileen portaera bortitza salbuesten edo arintzen duten mito hutsalgarri eta zuritzaileak alde batera utziko dira.

**5. Kasu bakoitzaren inguruabarrei buruzko informazioak:** garrantzitsua da kasu bakoitzaren inguruabarrei buruzko informazio ematea, azken batean, emakumeen aurkako indarkeria kontzeptuaren barruan kokatzen eta indarkeria jasaten duten emakumeek eta haien ingurukoek agertzen dituzten jarrera desberdinen berri ematen laguntzen duelako. Bigarrenik, garrantzitsua da albisteetan erasotzailearen aurrekariei buruzko informazioa ematea (kondenarik nahiz urruntze-agindurik dagoen, urratzerik egoten ote den,...). Azkenik, garrantzitsua da azaltzea ezean, erasotzailearen azken ekintza emakumeak erasotzailea bere bizitzatik urruntzea erabaki duenean gertatzen dela, normalean.

**6. Kasuen jarraipen informatiboa egitea, denboran zehar: epaiketak eta epaiak:** Garrantzitsua da denboran zehar kasuen jarraipen informatiboa egitea (epaiketen berri emanez, erasotzaileen aurka emandako epaiak jakinaraziz, etab.). Izan ere, halako jokabideek zer ondorio dituzten ikusarazten lagunduko duelako.

**7. Informazio osagarriak ematea, emakumeen aurkako indarkeria ezagutzarazten laguntzeko. Informazioak ondo azalduta emango dira:** garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria eta haren bilakaera testuinguruan kokatzen laguntzen duten informazioak argitaratzea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa-erreportajeak egiteak, eraildako emakumeei buruzko estatistikak ez gehiago erakustea (horren orde, erasotzaileen kontrako epai judizialak, ematen diren babes-agindua, etab. erakutsi behar da) eta komenigarria da komunikabideek urtero informazio osagarri prestatzea emakumeen aurkako indarkeria kasu zehatzen aparte.

**8. Informazio erabilgarria ematea, indarkeria jasaten duten emakumeentzat eta haien ingurukoentzat:** erabilgarri dauden baliabideei buruzko informazioa, helbideak eta telefono-zenbakiak argitaratuko dira.

**9. Informazio-iturri adituak erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko ezagupena dutenak:** funtsezkoa da informazio-iturri adituengana jotzea eta ez hainbeste familia, bizilagun eta lekukoengana jotzea (lekuko hauetara jo ezker, beraien lekukotzat zuhurtasunez eta profesionaltasunez erabiliko dira beti, emakumea berriz ez biktimizatzeke eta erasotzailearen jokabidea ez zurrizteke).

**10. Baliabide grafikoak eta ikus-entzunezkoak, emakumeen aurkako indarkeria ikusarazten eta salatzen laguntzeko:** emakumea eta indarkeria jasaten duten gainerako biktimak identifikatzea errazten duten irudiak (biktimarenak, senideenak etab.) saihestu behar dira duintasuna errespetatuz. Bestetik, biktima zuzenean edo zeharka identifikatzen uzten duten irudiak edota sare sozialetik edo internetetik hartutako irudiak argitaratzeko (adingabeen kasuan kontu handia eduki behar bereziki zaurgarriak direlako), beharrezkoa da bere baimena (hil ez badute) edo biktimaren senideengana jotzea (zeharkako biktimatzat jotakoek). Kontuan eduki behar da, hedabideek ez dutela inoiz erabiliko morboa elikatuko duten irudirik (eraildako emakumearen hilotza, arma hiltzailea, odol-orbanak, etab.).

### **3. “Decálogo para informar sobre violencia de género” autoerregulazio kodea**

**1. Indarkeria mota hau izendatzeko, *Público* egunkariko erredaktoreen esamolde hauek erabiliko ditugu, ordena honetan:** Genero-indarkeria (1/2004 legearen arabera: gizonetzkoek emakumezkoen gain eragiten duten indarkeria, emakume izate hutsagatik mendean izateko); Indarkeria matxista; Indarkeria sexista; Gizonezkoen indarkeria emakumeen aurka. Ez ditugu inoiz ondorengo esamolde hauek erabiliko horrelako krimen motak izendatzeko: “Etxeko indarkeria”; “Bikote-indarkeria”; “Familia-indarkeria”. Gizonezko batek bere lagun gizonetzkoa hiltzen duenean edo emakumezko batek bere lagun emakumezkoa, kasuaren arabera, etxeko indarkeriaz edo hilketaz hitz egingo dugu. Delitu horiek ez dute zerikusirik 1/2004 Legeak genero-indarkeriatzat jotzen duenarekin.

**2. Ez da gertakari bat:** mota honetako albisteen egoera hauek bestelako indarkeria kasu batzuetatik ahalik eta urrutien kokatu beharko dira; Ez ditugu albistek puztuko. Hobe da albistea labur idaztea presaka idaztea baino.

**3. “Efektu narkotizantea” saihesten ahaleginduko gara:** egunez egun indarkeri matxistari buruz berri emateak, logura eragin dezake. Horregatik: bestelako tratamendu informatiboak bilatuko ditugu morboa eta interes soziala nahasi gabe (argazki eta xehetasun gordinak saihestu egingo ditugu. Honela, ez da komenigarria, adibidez,

zenbat sastakai sartu zizkioten adierazte). Inoiz ez dugu horrelako esamolderik erabili: “beste... kasu bat”.

**4. Zurrumurrak saihestuko ditugu:** iturri guztietara joko dugu, baina alde batera utziko ditugu bizilagunen zenbait adierazpen adibidez, “oso bikote normala zen”, “ohiko eztabaidak zituzten”, izan ere, zurrumurrak baino ez dira eta ez informazio fidagarria. Gainera, horrelako adierazpenak kaltegarriak dira indarkeria mota honen aurka egiteko. Ez ditugu bizilagunen adierazpenak sartuko eta argi egongo gara familien adierazpenekin (beste gauza bat da, ikusi/entzun duten lekuko zuzenen adierazpenak, espekulatu gabe). Polizia eta ikerketa-iturriei emango diegu lehentasuna. Adituen iritzia eta epaileen sententziak jasoko ditugu..

**5. Ez dugu espekulatuko ustezko arrazoien inguruan:** erasotzailearen jokarari arrazoiak aurkitzea bere ekintza kriminala justifikatzea da. Ez dugu adieraziko erasotzailea alkoholaren, drogen, jelsien edo eztabaida baten ondorioz jokatu zuenik, izan ere, frogatuta dago genero indarkeria kasuetan, hauek ez direla arrazoiak gizonen hil egiten dutenean. Alkoholismoa arrisku faktore bezala aipatu dezakegu, tratu txarren kasuan egoera okertzen dutelako, baina inoiz ez dugu zergati-ondorio harreman zuzenik egingo alkoholaren eta indarkeriaren artean. Alde batera utziko ditugu “urruntze-agindua baztertu egin zuen” edo antzeko esaldiak, biktimaren gain ezartzen dutelako gertatutakoaren ardura (eta erasotzailearen erantzukizuna arintzen dutelako).

**6. Zigorak zehaztuko ditugu:** alderdi judizialen berri emango dugu, beti ere, epaia zigortzailea egon bada, zigorra titularrean jasoko dugu. Baita ere, “aurreko salaketak, epaiaren zain dauden prozesu judizialak, urruntze-aginduak...” azpimarratu ditugu.

**7. Identifikatzea:** biktimen kasuan, ez ditugu identifikatuko eta haien intimitatea gordeko dugu. Erasotzaileen kasuan, haien errugabetasun-presuntzioa errespetatuko dugu epai irmoa dagoen arte. Baina zigorra jasoz gero, behar den moduan identifikatuko ditugu. Garrantzitsua da erasotzailearen profila eta haren jarrerak nolakoak diren azaltzea, beste biktima batzuek erraz antzeman dezaketena tratu txarren ereduak eta jokabideak.

**8. Tratu txarren biktimen testigantzak:** tratu txarren biktimen adierazpenak interes handikoak dira, baina inoiz ez dugu testigantzarik eskatuko muturreko egoeran dauden emakumeei, baizik eta, buruarekiko estimua berreskuratu eta beste biktima batzuei itxaropenerako mezua emateko gai direnean bakarrik. Eraila izan ez den bik-

tima bere testigantza eman nahi duenean, biktima bera edo haren ingurua kaltetu dezakeen daturik ez dugu emango.

**9. Arazoa gainditu duten emakumeei buruz eta hasieratik tratu txarrei aurre egin eta bikoteen aldetik erasorik edo mendekotasunezko harremanik onartu ez zuten emakumeei buruz ere ariko gara.**

**10. 016 Telefonoa:** Albistearen amaieran (helbide-kaxan) tratu txarrak salatzeko eta edozein informazio erabilgarri emateko doaneko telefonoa jarriko dugu (016).

#### **4. “Recomendaciones sobre el tratamiento de la violencia machista en los medios de comunicación” autoerregulazioa**

**1. Indarkeria matxista giza eskubideen urraketatzat eta pertsonen askatasunaren eta duintasunaren aurkako erasotzat jotzea:** 5/2008ko Legeak adierazten duen moduan, indarkeria matxista *“un impedimento para que las mujeres puedan lograr la plena ciudadanía”*. Beraz, indarkeria matxista egunkarietako genero eta formatu anitzetik berri eman behar da. Tratu txarrak, delitua eta gizarte arazo bat da. Aurretiaz erakunde ofizialetan salatuak ez diren kasu partikularrak komunikabideen bitartez ez zabaltzen saihestu behar dira, kaltetutako pertsonen osotasuna babesteko.

**2. Informazio-iturriak hautatu eta iturri bat baino gehiagotara jo:** Saihestu bizilagunen eta familien testigantzak, baldin eta, datu zehatzak eta baliagarriak ez badituzte. Kaltegarria da kasuarekin zerikusia ez duten hirugarren pertsonak sartzea, nahiz eta, erlazio sentimentalak edo senidetasunezkoak eduki. Kasu bakoitzerako, iturri espezializatuak eta egiaztatuak erabilia. Iturriak identifikatu egin behar dira. Komunikagarria da kazetariak eta komunikabideek printzipioak eta arau etikoak errespetatzea. Testigantzen eta iturrien erabakien eta aukeraketan, kontuan hartu behar da informazioaren trataera burutzerako orduan, kazetaritza helburua lortzea, egitatea koka-tzen den testuingurua eta eragin ditzaken ondorioetan.

**3. Emakumezkoen ekarpenak ageriko egitea eta nagusitasun osoz aurkeztea:** informazioaren tratamenduan gomendatzen da emakumezkoak errespetuz eta nagusitasun osoz aurkeztea eta gizarteko arlo guztietan emakumezkoen ekarpenak agerikoa egitea.

**4. Erasoa jasan duten pertsonen intimitaterako eskubidea eta ustezko erasotzaileen errugabetasun-presuntzioa errespetatu:** eraso jasan duten pertsonen anonimatua eta bere identitatearen zabaltzea babestu behar da (adingabeen ka-



suan, kontuan hartu Kataluniako 22/2005eko Legeko 81. Artikuluan aurreikusitakoa). Informazioaren zabalkundearen inguruan, segurtasun indarren erabakiak errespetatu dira. Erabaki judizial baten eman aurretiko ondorioak ekidin behar dira. Kamera ezkutu irudiak ez dira zabalduko kanpo baimenik gabe.

**5. Erasoia jasan duten pertsonen eta haien familiako edo auzoko pertsonen duintasuna errespetatu eta haiek aurrez baimenik eman gabe hedabideetan ez atera:** tratu txarrak jasan dituen pertsonaren jazarpena ekidin behar da komunikabideen bitartez eta itxaron egin behar da estimua berreskuratzen duen arte. Komenigarria da arazoa gainditu duten emakumeen edo adituak diren elkarten testigantzak erabiltzea.

**6. Gertaerak zehatz azalduko dituzten kontzeptuak eta terminoak erabili:** arinkerian eta hutsalakerian jaustea eragiten duten indarkeri matxistaren inguruko este-reotipoak eta topikoak ekidin behar dira.

**7. Ezkutuko eta antzematen zailagoa den indarkeria matxista azaleratu:** indarkeria psikologikoa, ekonomikoa, soziala edo laborala eta indarkeria mota horietatik ondorioztatzen diren efektuak azaleratu.

**8. Indarkeria matxistari buruzko albisteetan (forma eta eduki aldetik) sensazionalismoa eta dramatikotasuna saihestu:** testu eta irudi guztiek pertsonen duintasuna errespetatu behar dute. Beraz, xehetasunezko deskribapenak, korapilatsuak eta inpaktu handikoak ekidingo dira. Gainera, indarkeria matxista beste arazoe-kin desberdintzen saiatu behar da.

**9. Hedabidea edozein dela ere, informazioa ematen duten irudiak hautatu eta erasoia jasan duten pertsonengan edo haien ingurukoengan arreta osoa ez jarri:** irudi guztiak inpersonalak, neutralak eta pertsona edota lekua erakusten ez dutenak izan behar dute. Beharrezko irudiak eta kutsu informatiboa duten irudien artean baloratzea komeni da.

**10. Gertaeren eta nahasita dauden pertsonen jatorriaren, egoera soziokulturalaren edota gorabehera pertsonalen arteko zergati-ondorio harreman oro saihestu:** kaltegarria da indarkeri matxista kasuak talde sozial jakinei, jatorri kulturelei edo ezaugarri zehatzea ezartzea.

**11. Informazioa testuinguruan jarri:** biktimaren aurrekariak eta jarraitu dituen prozesuak (salaketa, babes-neurriak, etab.) azaltzea.

**12. Kasuen jarraipen informatiboa bermatu behar da. Ebazpenaren edo konponbidearen inguruan jakinarazi behar da eta, komeni bada, eraso jasan duten pertsonak nola osatu diren:** biktimak izan diren emakumeek biktimizazio berri bat ez jasateko, indarkeri matxistaren inguruan tratatu diren kasuen eta nola gainditu den inguruko informazioa adierazi behar da. Honi esker, fenomenoaren ikuskera osoa eman daiteke. Honekin batera, txostenak, egunkari balantzeak, estatistikak, errekurtsio baliabideak, zerbitzu bereziak nahiz larrialdi-zenbakiak aipatzea komenigarria da.

**13. Erasoak eta indarkeriak erasotzaileentzat ondorio txarrak dituela informatu eta, era berean, gizartean sortutako gaitzespen-adierazpenak azaleratu.**

**14. Kasu jakin bati buruz zabalduko okerreko edozein informazio berehala zuzendu:** horrelako kasu baten aurrean, hedabideak ahalik eta azkarren zuzendu beharko du.

**15. Komunikazioko profesionalen prestakuntza sustatu:** komunikabideek, indarkeria matxistarekin zerikusia duten edukiak lantzeko, pertsonen formakuntza sustatu behar dute, profesionalen kode etikoak nahiz deontologikoak errespetatuz.

## **5. “Komunikazio Parekiderantz. Kazetarietzako eskuliburua”**

**1. Emakumeen kontrako indarkeria egiturazkoa den heinean, hedabideek horrelaxe islatu eta irudikatu behar dute.**

**2. Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazioak ez dira gertakari isolatuak:** Honako informazioak helarazterakoan egungo testuinguruan kokatu behar dira, emakumeek pairatutako zapalkuntzaren egoeraren ondorioztzat hartuta. Hau dela eta, informazio hauek behar duten espazioa eta garrantzia bermatu behar da (besteak beste, “laburrak” edo “gertakariak” bezalako ereduak ekidinez).

**3. Ez dago erasotzaile ezta biktimaren profilik:** Erasotzailea edota biktima maila sozial, kultural edota ekonomiko jakin batekoa denaren ideia edota irudia ez dugu helarazi behar.

**4. Estereotipo eta eginkizun (rol) sexistaren erabilpena ekidin:** Emakumeei eta gizonei betidanik egokitutako estereotipoek emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten dute. Beraz, errealitatea irudikatzen ez duten hainbat adierazpen eta izenondo ekidinen dugu (esaterako, “pasiozko hilketak”, “etxeko indarkeria”...).

**5. “Sentsazionalismoa” saihestu:** Helaraziko den informazioa nabarmena eta serioa izan behar da. Hortaz, adituak ez diren pertsonen iritziak (auzokideen adierazpenak) ez dira kontutan hartuko.

**6. Jarraipen egokia landu:** Indarkeriaren gertaera ez da eraso soilik, baizik eta eratortzen den prozesu osoa (salaketa, epaiketa, zigorra...). Beraz, prozesu osoa landu eta haren berri eman behar da.

**7. Elementu positiboak irudikatu:** Indarkeria sexista pairatzen duten emakumeak bizitza “berregiteko”, aurrera egiteko gauza dira, eta komunikabideek horrelaxe islatu behar dute, beste emakumeek urratsa eman dezaten lagunduz.

**8. Informazioaren helburua laguntzea, jendarteratzea eta aurre hartzea da:** Egoera gainditzeko dauden baliabideak eta bitartekoak (legeak, laguntzarako telefonoak, helbideak...) plazaratu behar dira. Bestalde, indarkeriaren ondorioak detektatzeko elementuak helarazi behar dira.

**9. Salaketa soziala:** Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean, Mugimendu feministak eta giza eragileek burutzen dituzten mobilizazio, salaketa eta ekimenen berri eman behar da.

**10. Ikuspuntu integrala indarkeria deuseztatzeko:** Informazioaz gain, hainbat elementuk (musika, irudiak, komikiak, publizitatea) ere emakumeen zapalkuntza eta indarkeria sexista iraunarazten dute. Hortaz, elementu hauek ekidin behar dira.

**11. Erabiliko diren terminoak:** genero indarkeria, emakumeen kontrako indarkeria matxista, indarkeria sexista, edo emakumeen kontrako indarkeria. Eta ez: etxe indarkeria, bikote-indarkeria, familiarteko indarkeria...

**12. Zer den emakumeen kontrako indarkeria:** tratu txar fisiko, psikologiko eta ekonomikoak; emakumeak baimendu gabeko sexu-erasoak; neskatoekiko gehiegikeria sexualak; lan-munduko sexu-jazarpena; emakume eta neskatoen erabilera sexu-esplotaziorako, prostituziorako eta sexu-komertziorako; emakumeen genitalen mutilazioa; emakumeen eskubide sexualen eta ugalketa-eskubideen kontrako indarkeria; emakumearen duintasuna eta osotasuna hautsi dezaketen edozein ekintza edo jarrera.

**13. Nork eta non:** Erasotzailearen eta biktimaren identifikazioa. Ezein biktima ez da identifikatu behar bere izen-abizenekin edo helbidearekin. Erasotzailea ez da identifikatuko epaiak erruduntzat jo arte, ez bada erasotzaileak bere krimena aitortu duela. Erasotzaileak biktimarekin zuen jokaera bai identifikatuko da, beste emakumeek

tratu txar egoerak detektatu ditzaten. Erasotzaileek ez dute soslai jakin bat: nazionalitateak ez dauka zer ikusirik, eta xenofobia areagotu besterik ez du egiten gisa horretako informazioak.

**14. Nola:** Kontu handiz ibili behar da erasoaren zein modutan eman zen azaltzerakoan. “Labankadakaz hil zuen” edo “labanarekin hogeitaz astakatu zuen” bezalako esaldiek ez die laguntzen gizartearen arazoaren kontzientzia hartzen, eta aldiz morboa eta sentsazionalismoa besterik ez dituzte sustatzen.

**15. Tratu txarrak eta erailketak giza eskubideen kontrako krimenak dira:** Heriotza tartean baldin badago, erasotzaileak emakumearen bizitzeko eskubidearen aurka egin duela esan behar du informazioak. Gizonezkoak emakumeak bereizketa nahi zuelako hil zuela esaten bada, esan behar da baita ere emakumearen harremana uzteko askatasun-eskubidearen kontra jo zuela. Tratu txar psikologiko edo fisikoak daudenean, emakumea umiliatu eta errespetu faltaz bere duintasuna puskatzen duenean esan behar da emakumeak eskubidea duela tratu krudelik edo laidogarririk ez jasotzekoa, eta gizonak eskubide hori urratu diola. Erasotzaileak emakumea kontrolatzen duenean, bere ingurukoekin harremantzea mehatxupean ekiditen dionean, emakumearen askatasunerako eta segurtasunerako oinarritzko eskubidearen kontra egiten du.

**16. Emakumeek gizonengan eragindako indarkeria-kasu bakanetan ez da genero indarkeriaren terminoa erabiliko:** Gainera, aztertu beharko da gertaerak tratu txarrekin zerikusirik baduen.

**17. Ezein formatotan ez da tratu txarren gaineko irakurketa positiborik egingen, ez eta aipamen ironiko edo sarkastikorik onartuko.**

**18. Biktimak jasaten duen indarkeria egoeraren errudun moduan utzi leza keten testigantza edo aipamenak saihestu behar dira** (*“emakumea gizonarekin eztabaidan aritu zen”, “urrunketa-agindu bati ezezkua eman zion”*). Arduraduna erasotzaile da.

**19. Informazioa non kokatu kontuan hartuko da, inguriak baldintzatu baitezake albistearen esanahia:** Edozein krimen banalizatzen duen iragarkietatik urrun behar luke halako gisako albisteak.

**20. Erasotzailearen eta biktimaren inguruko testigantzak ez dira datu objektiboak, iritziak dira, eta ez dute indarkeriaren fenomenoaren ulertzen laguntzen.**

Jarrera kriminal batekin amultsuak diren iritziak saihestu behar dira (“ez da gizon biolentoa”, “bere andrearekin maiteminduta zegoen”).

**21. Adituak agertu behar dira, emakumeen kontrako indarkeriaren errealitateaz dakitenak eta biktimen egoera ezagutzen dutenak:** Gizon eta emakumeek era orekatuan agertu behar dute.

**22. Tratu txarren egoeratik ateratzeko dauden baliabideen berri eman behar du kazetari profesionalak.**

**23. Indarkeria mota hau deuseztatzeko beharra gizartean zabaltzeko programa berezi, iritzi-artikulu, erreportaje, eztabaida eta bestelako eduki sakoneko generoak sustatu behar ditu hedabideak.**

**2. ERANSKINA.**  
**ELKARRIZKETAK**

## 1. ELKARRIZKETA IRENE ORMAZABAL

(DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA) - 17/03/03

### 1. ATALA - SARRERA

**-Nor zara? Zertan egiten duzu lan? Noiz hasi zinen lanean Donostiako Emakumeen Etxean? Zergatik?**

Nire izena Irene Ormazabal da eta Donostiako Udaleko Berdintasun Sailean berdintasun teknikari bezala lan egiten dut. Donostiako Emakumeen Etxea, berdintasun sailaren barnean kokatua dago eta hemen lan egiten hasi nintzen duela 9 urte. Ni berez kazetaria naiz, baina berdintasun masterra ikasi nuen unibertsitatean eta ordutik, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailean nago lanean eta gainera, Donostiako Emakumeen Etxeko elkarteko bazkidea naiz.

**-Zertan egiten du lan Donostiako Emakumeen Etxeak? Nola egiten duzue lan Donostiako Emakumeen Etxean?**

Alde batetik, Emakumeen Etxea proiektua dago eta bestetik, Donostiako Udaleko Berdintasun Saila, non Berdintasun Sailak parte-hartzen duen Emakumeen Etxean dirua, lokala, etab jarriz eta bestelako aktibitatea antolatuz eta bestetik, elkarte dago, Emakumeen Etxea izena duena non kudeatzen dituen ikastaroak, lan-taldeak, tailerrak, etab. Donostiako Emakumeen Etxeak egiten du lan pixka bat hiriko emakumeei zerbitzu batzuk, ikastaro batzuk eta gune batzuk eskaintzeko. Baina gero udalaren lana pixka bat haratago doa, da gehiago udaletxeari barruari begira.

**-Ze kezka dituzue Donostiako Emakumeen Etxean emakumeen aurkako indarkeria inguruan? Ze politika dituzue honen inguruan?**

Gure ustez, emakumearen aurkako indarkeria nahiko zabala den fenomeno da eta aurpegi asko ditu, orduan, gure kezka da adibidez, indarkeria fisikoa eta psikologikoa familiaren eta bikotearen esparruan, indarkeria hori jasaten duten emakumeei, erakundeentzako aldetik erantzun on bat jaso dezaten, adibidez, bigarren mailako biktimizazioa gertatu ez dadin. Azken batean, erakundeetara joaten zara eta ez dizute ondo tratatzen. Hori ekiditeko lan egiten dugu Berdintasun Sailetik, hau da, guk ez dugu atentzio zuzena egiten, hori udaletxeko Gizarte Zerbitzutik lan egiten dute. Guk egiten dugu lana da azken batean, beraiei formazio ematen, sailen arteko koordinazioa sustatzen eta ziurtatzen zerbitzu hori egokia dela.

**-Badago zuen elkartean ikerketa espezifikoren bat emakumeen aurkako indarkeria eta komunikabideei dagokionez?**

Ez dugu komunikabideen eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko ikerketa espezifikorik, baina Estatu mailan badira horrelako ikerketak.

## **2. ATALA – GENERO INDARKERIA ETA KOMUNIKABIDEAK**

**-Zure ustez, zein maiztasunekin heldu diote komunikabideek emakumeen aurkako indarkeriari? Gaur egun gehiago edo gutxiago egiten dutela uste duzu? Eboluzioaren bat ikusi da honetan?**

Argi dago, 90. hamarkadatik gaur egun arte eboluzio bat egon dela. Kasu bat egon zen oso paradigmaticoa izan zena, Ana Orantesen kasua, bere senarraren eskutik eraila izan zen emakumea, non ordutik aurrera, nik uste dut gehiago eta zerbait hobeto tratatu dela emakumearen aurkako indarkeria komunikabideetan. Hala eta guztiz ere, komunikabideetan agertzen diren kasuak gehienbat hilketak izaten dira eta baita ere, azaroaren 25a (Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna), non asko hitz egiten da genero indarkeriari buruz, baina honetaz aparte, ez da ezer gehiago hitz egiten. Gainera, azaroaren 25ean egiten den trataera normalean nahiko morbosoa izaten da, adibidez, komunikabideetatik asko deitzen dute Donostiako Emakumeen Etxera tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen testigantzak nahi dituztelako, eta guk ezezkoa ematen diegu.

**-Nola tratatzen dutela uste duzu komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria?**

Alde batetik, iruditzen zait komunikabideek askotan esaten dutela *“una mujer ha muerto”*, bihotzekoak joko balio bezala, eta hori ez da horrela, beste pertsona batengatik eraildua izan dela jarri beharko luke, hau da, ez dira erailketan zentratzen. Nire ustez, gehiago azpimarratu behar da ez dela hil modu natural batean bazik eta, beste pertsona batek hil duela. Bestetik, komunikabideetan joera handia dago herri edo hiri bateko auzoko bizilagun bati elkarrizketatzekoa eta beti, hiltzailea pertsona ona, zoragarria, zintzoa, etab. bezala deskribatzen dute, erailketaren arrazoia biktimaren errua izango balitz bezalako irudia emanez. Horrekin ere uste dut kontuz ibili beharko luke-tela. Gainera, komunikabideek ez dituzte bilatzen emakume baten esperientzia kontatzea nola atera den genero indarkeria kasu batetik edota ezta ere, ez da bilatzen psikologiaren arlotik edota arlo juridikotik adituak diren pertsonen testigantzak jasotzea genero indarkeria kasu baten aurrean.

Beraz, niretzako azken batean horiek hiruak dira komunikabideen egiten dituzten akats handienak.

**-Emakumearen aurkako biktima eta erasotzailea berdin tratatuak izan dira komunikabideetan?**

Ez. Eta gero gainera, daude kasu batzuk oso paradigmaticoak direnak, adibidez, Nagore Laffagen kasua adibidez. Ematen du komunikabideek biktima epaitzen ari direla, gizonetzko askoren ateratzen zela, bere janzteko modua dela eta, etab. bezalako komentarioak egiten.

**-Zein iritzi duzu komunikabideek dituzten emakumeen aurkako indarkeria tratatzeko autoerregulazio kodeen inguruan?** Beharrezkoak direla egotea kode horiek, baino ez bakarrik egotea, baizik eta betetzea. Baita ere, beharrezkoa izan behar luke formazioa emate kazetariei, agian kazetariak ez dituzte kode horiek ezagutzen edo oso



sinpleak dira, bian gero hori nola praktikan jarri trebatu behar da eta ikasi behar da, agian beharko lukete formazio pixka behar dute.

**-Beraz, gaur egun dauden autoerregulazio kodeak emakumearen aurkako indarkerian lagundu dutela uste duzu? (Hizkeraren erabilera, biktimaren eta erasotzailearen inguruko informazioa ematea, pasio-hilketa bat bezala ez erakustea, arazo sozial bat bezala erakustea eta ez kasu isolatu bat bezala, informazio-iturri adituak erabiltzea, beste kasuen datuak adieraztea, etab.)**

Ez dakit, azken batean, ez dakidalako kode hauek zenbateraino dauden zabaldua, baino suposatzen dut baietz.

**-Komunikabideek, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan benetako kezka dutela uste duzu? Edota bakarrik kasuak ematen direnean?**

Suposatzen dut komunikabideen arabera, agian batzuk beste baino gehiago, Baina bueno nik uste dut baietz, azken batean kazetariak pertsonak dira. Pentsatu nahi dut baietz.

**-Komunikabideetan, emakumearen aurkako indarkeriaren inguruan espezialistak daudela uste duzu? Edo behar direla uste duzu?**

Nik uste dut behar direla, ez daudelako. Beti bilatzen dute biktimen testigantzak jasotzea, baino ez dute adibidez, elkarteekin hitz egiten informazioa lortzeko.

**-Biolentzia sexista, genero indarkeria, emakumearen kontrako indarkeria, kontzeptu horiek gizartean ondo pedagogizatuta daudela uste duzu? Eta aurreko galderarekin harremanetan, pentsatzen duzu komunikabideek egoki lantzen dituztela kontzeptu hauek?**

Lehenengo galderari dagokionez, nik uste dut ezetz eta gainera, daude indarkeriaren beste forma batzuk ez direla kontuan hartzen, adibidez, laneko eremuan burutzen den jazarpena, hori da indarkeriaren beste forma bat genero indarkeriarena, edota prostituten hilketak edo transexualen hilketak, non ez diren kontatzen genero indarkeriaren zifra ofizialetan eta bai dira genero indarkeria edo bestetik, adibidez, ospitale arloan burutzen den indarkeria, gai oso tabuzat hartua izan dena, non emakumea ospitalera erditzera joaten diren eta tratatu txarrak, irainak, praktika biolentoak jazarpenak, etab. pairatzen dituzte. Indarkeria mota honi, indarkeria obstetrikoa bezala deitua izan da, non genero indarkeriaren beste forma bat den.

Kontua da non jartzen duzun genero indarkeriaren muga, baina nik ulertzen dut azken batean, aipaturiko indarkeria mota hauek, misoginiaren forma desberdinak direla.

Bigarren galderari dagokionez, nik uste dut ezetz. Hobetu dela argi dago, baina oraindik gehiago hobetu daiteke.

### **3. ATALA – KRIMINOLOGIA ETA KOMUNIKABIDEAK**

**-Soziologia Ikerketa Zentroak (gaztelaniaz CIS), 2017ko urtarrilean argitaratutako txostenean, Espainiako arazo nagusien pertzepzioaren inguruan, emakumea-**

**ren aurkako indarkeriak ez du lortu gizartean kezka nagusienetarikoena bilakatzeari, baina komunikabideek dituzten kezken inguruan, emakumearen aurkako indarkeria goreneko posizioetan dagoela uste duzu?**

Goreneko posizioetan argi dago ezetz, ez duzu inoiz ikusiko informatibo bat irekitzen indarkeria matxista kasu batengatik, agian bai, terrorismo kasu batengatik, baina ez genero indarkeria kasu batengatik.

**-Uste duzu beharrezkoa dela komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria albisteak ikustea horrelako kasuak ematen direla sinesteko? (hau da, komunikabideak gabe gizartean arazo honen berri emango litzatekeela uste duzu?)**

Nik uste dut pixka bat zaila dela, hau da, komunikabideak asko zentratzen baldin balira hilketa batean, batzuetan badauka imitazio efektu bat eta horregatik, ez dakit egokia izan daitekeenik bonbo asko ematea horri. Nik pentsatzen dut onena izango litzatekeela gobernuaren aldetik edo estatuaren aldetik, pilak jartzea eta prebentzioaren inguruko plan nazional bat egitea eta informazioa eman horri buruz, nola arazo bat dago eta nola egingo diogun aurre arazo honi eta hor jarri garrantzia jarri eta ez hainbeste kasu konkretu batzuenetan, morboa bilatzea.

**-Komunikabideek genero indarkeriari buruzko albisteak etengabe helarazten badituzte, arriskua dagoela uste duzu gizarteak informazio hauetara erabat egokitzeko eta ondorioz, erabat arriskutsua ez den arazo batean aurrean gaudenaren pertzepzioa gizartean bilakatzeko?**

Nik uste dut dala arazo bat gehiago zerikusia duena komunikabideekin beraiekin, hau da, komunikatzeko duten formarekin edo orokorrean, beraien esentziagatik, eta ez hainbeste genero indarkeriagatik. Egokitze hau ere, beste gai batzuetan gertatzen dira.

**-Komunikabideek genero indarkeriaren inguruko albisteak, imitazio efektu bat eragiten dutela uste duzu? Eta bestetik, albiste positiboak (neurrien inguruan hitz egiteak, indarkeria pairatu duten emakumeen inguruan hitz egitean, etab.) hilketen gutxiagotze bat ekarri litzatekeela uste duzu?**

Ez naiz aditua, baina bai pentsatzen dudala genero indarkeriarekin inguruko albisteak helarazteak imitazio efektu bat eragin dezakeela. Eta bestetik, albiste positiboak agian bai ekarri dezakete hilketen gutxiagotze bat. Agian, baliabideen inguruan, nola jo dezakezun etab. bezalako informazioa zabaltzen baduzu, biktimek hori ikusten badute bai egon daitekeela hilketen gutxiagotze bat. Baina lehenik eta behin, hori guztia komunikatzeko baliabide horiek egon behar dute eta baliabideak jartzen badira eta neurri serioak hartzen badira eta ondoren, komunikabideek hori ondo komunikatzen badute, bai eduki dezake efektu positibo bat hilketen gutxiagotzeari dagokionez.

**-Lan asko egiteko geratzen da oraindik, baina zein puntutan gaude orain?**

Nik uste dut, genero indarkeriaren testuinguruan hemen Euskal Herrian hobeto gaudela Espainiako beste toki batzuekin konparatzen badugu, baina honekin ez dut adierazi nahi hemen oso ondo bizi garela. Alderdi polizialaren aldetik gauzak asko hobetu daitezkeela argi dago, adibidez, segurtasun neurrien inguruan, non nire ustez, ez dute ondo funtzionatzen eta ondorioz, zerbait egin behar da. Eta bestetik, baliabide gehiago

behar dira, diru gehiago. Nik uste dut hor hobetu behar dela eta zeozer hobetu dela, baina jarraitu behar da bide honetatik.

**-Komunikabideei dagokionez, zer egiteko geratzen zaie oraindik?**

Komunikabideei dagokionez, egin behar dutena da alde batetik, ez zentratzea hainbeste morboan, bestetik, saiatzea ematen beste irudi positiboago bat, eta azkenik, hartzea gaia benetan zerbait inportantea den bezala eta ez, bizitza galtzen duten zenbait emakumeri gertatzen zaien gai bat bezala.

**-Ze uste duzue egin daiteke hurrengo urratsa emateko?**

Nik uste dut, egokia dela autoerregulazio kode horiek komunikabide beraiek egitea eta ez hainbeste gobernutik edo goitik inposatua egotea, hau da, beraien adierazpen askatasunaren parte izatea, beraiek erabakitzea horrela nahi dutela informatu. Pentsa, gobernuak esaten duela: *“egingo dugu lege bat komunikabideek nola informatu behar duten”*. Ondorioz, komunikabideek esan dezakete beraien adierazpen askatasuna mugatzen ari direla edo antzeko zerbait. Beraien erabakia izan behar duela iruditzen zait. Bestetik, agian egokia izan daiteke komunikabideen artean aliantza bat egiten badute, denak ados jarritz nola informatu behar duten.

**-Azkenik, Gipuzkoako SOS arrazakeriak, “Mugak” izeneko aldizkaria dauka, non bertan egunero immigrazioa eta gutxiengoei buruz jasotzen eta bidaltzen dizkieten prentsa albisteak datu-base batean gordetzen dituzten. Ondorioz, nire galdera da: Donostiako Emakumeen Etxeak horrelako gure bat dauka, prentsako albisteetan emakumearen aurkako indarkeriaren ingurua dagokionez? Noizbait hitz egin duzue horrelako kontsultarako gune bat sortzearen inguruan? Interesgarria irudituko litzaizueke?**

Ez dugu horrelako gune bat eta dugu inoiz hitz egin horrelako gune baten inguruan. Nik uste dut, horrelako zerbait sortzeak gehiago pegatzen diola unibertsitateari. Guk ez dugu ahalmena horretarako, izan ere, Donostiako Emakumeen Etxean pertsona bat bakarrik dago liberatua, hau da, soldatarekin eta bulegoko lan asko dauka. Gero gu, berdintasun teknikariok bestelako lana izaten dugu. Baina norbaitek horrelako lana egingo balu, guretzako oso interesgarria izango litzateke.

**-Oso ondo, eskerrik asko Irene.**

Bai, zuri.

## 2. ENTREVISTA RAQUEL RAPOSO (EMAKUNDE) - 23/03/17

### **PRIMERA PARTE - INTRODUCCIÓN**

**-¿Quién eres? ¿En que trabajas? ¿Cuándo empezaste a trabajar en Emakunde y porque?**

Soy Raquel Raposo y soy la responsable del área de Programas y Formación en Emakunde. Empecé a trabajar hace 20 años aproximadamente por una motivación. Nunca tenía pensado trabajar en la administración pública, pero acabé la carrera Psicología y Sociología y apareció una oferta del curso de Emakunde en “Formación e Igualdad”, me presenté y me seleccionaron. Después de unos años aparecieron unas plazas en Emakunde, oposité y hasta hoy.

**-¿En que trabaja Emakunde? ¿Vuestros trabajos o vuestros criterios han tenido impacto en la sociedad?**

En primer lugar, hay que tener en cuenta de que Emakunde no es una asociación, sino que es un organismo autónomo del Gobierno, y dependemos directamente de ellos. Y por ello, Emakunde tiene dos líneas de trabajo fundamentales: por una parte, trabajar con las administraciones públicas desarrollando instrumentos, estructuras de coordinación etc., es decir, poniendo medios para que la administración en todos sus niveles (gobierno, las diputaciones, los ayuntamientos), y cada cual en el marco de sus competencias, desarrolle sus servicios con perspectiva de género. Es un objetivo bien ambicioso y por eso decimos, que Emakunde es un organismo básicamente de impulso, es decir, no ejecuta políticas, sino que trabaja, para impulsar, para sensibilizar, para que otros y otras hagan desde sus competencias con perspectiva de género (salud, educación, cultura, medio ambiente); y por otro lado, Emakunde trabaja con determinados sectores muy influyentes, porque nos lo marca la ley y los decretos de estructura, desarrollando programas con ellos y también, trabaja con la sociedad en general a través de las campañas de sensibilización. Eso sería nuestras dos líneas fundamentales de trabajo.

¿Tiene impacto? Bueno, habría que medirlo. ¿Cómo mides ese impacto? Es muy difícil medir eso. El problema es estructural, tiene que ver cómo está construida la sociedad, y hay que incidir en cuestiones que supones cambios muy profundos. Hay que incidir en que las personas cambien sus valores, comportamientos, etc. El cambio para la igualdad es tan grande que medir el impacto es muy complicado. Pero por ejemplo se ha visto un impacto en la administración, en donde en la última evaluación de la ley, que se hizo en 2015, pone de manifiesto que se han cambiado muchas cosas como por ejemplo con unidades de igualdad, con las evaluaciones de impacto de género, con incorporar cláusulas en los contratos, etc. Si hay un impacto pero son procesos de largo recorrido.

**-¿Qué problemas veis desde Emakunde en cuanto a la violencia contra la mujeres?**

La violencia contra las mujeres al final es la consecuencia más grave de la desigualdad. En mi opinión, la gran dificultad que hay es que no hay una conciencia clara de

